

GIPUZKOAN BIZI DIREN JATORRI LATINOAMERIKARREKO BIZTANLEEK **LGBTI+** **KOLEKTIBOAREN** **INGURUAN** DITUZTEN PERTZEPZIOAK



Mugen Gainetik eta Gehitu elkarten lankidetzari esker sortu da txosten hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lagundu duen «LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde lan egiten duten Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko erakundeen arteko koordinazio-guneak sortu dira. III. Fasea» izeneko proiektuaren baitan.

EGILETZA: ASSUMPTA AYERDI OLAIZOLA _ SORGINLORE GIZARTE ELKARTEA
ITZULPENA: LIDE ARROYO



GIPUZKOAN BIZI DIREN JATORRI LATINOAMERIKARREKO BIZTANLEEK **LGBTI+** KOLEKTIBOAREN INGURUAN DITUZTEN PERTZEPZIOAK



■ KREDITUAK

Mugen Gainetik eta Gehitu elkartean lankidetzari esker sortu da txosten hau, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lagundu duen «Creados espacios de coordinación entre organizaciones centroamericanas y vascas que trabajan por la defensa de los derechos del colectivo LGTBI+. Fase III» (LGTBI+ kolektiboaren eskubideen alde lan egiten duten Erdialdeko Amerikako eta Euskal Herriko erakundeen arteko koordinazio-guneak sortu dira. III. Fasea) izeneko proiektuaren baitan.

Egiletza: Assumpta Ayerdi Olaizola _ Sorginlore Gizarte Elkartea

Itzulpena: Lide Arroyo

Maketazioa: Ikuspe Sormen Estudioa

Donostia, 2023ko ekaina

■ ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile guztiei. Bereziki elkarrizketatuei, haien konfiantza eta gertutasunagatik eta ideiak, zalantzak eta bizipen pertsonalak -historia pozgarriak, mingarriak, des/ber/eraikitzaileak eta kontakizun kolektiboa eraikitzen dutenak- partekatzeko prest agertu izanagatik.

Izen-zerrenda: Amets, Brayan, Carolina, Cecilia, Damián, Diego, Egoitz, Eider, Emeli, Estela, Frank, Garazi, Gloria, Gloris, Heidi Daniela, Irune, Jokin, July, Liz, Luci, Lukene, Lurdes, Magali, María, María José, Marta, Mayra, Mash, Maxi, Mikel, Morelva, Noemi, Onix, Paki, Paloma, Romina, Sammy, Sandra, Sarai, Shanel, Uxo, Yoana.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu begirada kritiko batetik azterketa hau bideratzen lagundu diguten elkarteei, hain zuzen, AMHER eta Hiruki Larroxa Kooperatibari.

■ ARGIBIDEAK

1. Aldi baterako baliozkotasuna. Genero-aniztasuna, haren kontzeptualizazioa, hura izendatzeko eta azaltzeko erabilitako terminoak eta hari buruzko legedia etengabe berrikusten dira. Ikusgaitasuneko, hausnarketa kolektiboko eta eztabaida sozialeko testuinguru espazial eta denborazko jakin bati erantzuten diote, baita iritzi politikoei ere. Horiek horrela, azterketa honetan bildutako legediak gaiak 2023ko apirilean zuen egoera islatzen du.

Pertzepzioak dinamikoak dira izatez eta, ondorioz, baliteke aztertutako pertzepzioak aldatu izana lekukotasunak jaso ziren unetik.

2. Erabilitako terminoak. Jakin badakigu terminoak ez direla behin betikoak eta ez dutela garena bere osotasunean islatzen. Hala ere, terminoek azterketan duten izaera estrategikoa eta helburu pedagogikoa kontuan hartuta, honako hauek erabiltzea erabaki dugu:
 - ▷ LGTBI+: jakin badakigu errealitatea (identitateak, desirak eta gorputzak) taxonomizatzea murriztaile dela eta kategoriek malguak izan behar dutela. Gauzak horrela, termino hau erabiltzeko erabakia hartu dugu, orientazio, gorputz eta genero-identitate transgresoreei dagozkien sexu-disidentziak barne hartzen dituelako.
 - ▷ Kolektiboa: berariazkotasun eta antzekotasun soziodemografikoak dituen talde gisa ulertzen dugu kolektibotasuna eta LGTBI+ siglak osatzen dituzten letra bakoitza ere kolektibo gisa ikusten dugu bere horretan. Era berean, hartu-emanerako, partaidetzako, ahalduzko eta babeserako espazio bizi gisa ikusten dugu komunitatea eta bertako kideak pertsona disidentetzat hartzen ditugu sexualitateari eta genero-arauei dagokienez. Hala ere, LGTBI+ kolektiboa beharrezko fikzio edo kategoria bakartzat hartu dugu azterketa honetan, azterketa bera errazteko.

- ▷ Zisheteronormatibitatea eta zispassing-a: desiraren, gorputzen eta identitateen dimentsioei dagokionean, pertsona oro zisa eta heterosexuala delako edo izateko modu onargarri edo bakarra hori delako ideia adierazten du.
- ▷ Sexu- eta genero-identitatea: legegintza-kontuez ari garenean bi terminoak erabili ditugu, legediak hala jasotzen duelako. Bestelako kasuetan genero-identitatea erabili dugu, bi alderdiak biltzen dituela iruditzen zaigulako.
- ▷ Trans*: jaiotakoan esleitutako generoarekin identifikatzen ez den pertsona orori erreferentzia egiteko erabiltzen den kontzeptu generikoa. Platero-k (2014) proposatu zuen moduan, amaieran izartxoia gehitu diogu zisheteronormatibitatea urratzen dutenen askotariko bizipenak ikusarazteko estrategia gisa. Honako hauek barne hartzen ditu: gizon/emakume transexualak, pertsona transgeneroak, pertsona trans ez bitarrak, genero malgua duten pertsonak, travestiak eta bestelako genero-identitateak.



Aurkibidea

SARRERA	8
TESTUINGURUA	13
1. Legedia	13
a. Sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa	13
b. Atzerritasunari buruzkoa	18
2. Pertsonak eta kolektiboak (Gipuzkoan)	21
a. Jatorri latinoamerikarreko biztanleak	21
b. LGTBI+ kolektiboa	22
3. Pertzepzioak	25
a. LGTBI+ kolektiboari buruzkoak	25
b. Atzerritarrei buruzkoak	25
4. Diskriminazioa eta erasoak	27
a. LGTBI+ kolektiboaren aurkakoak	27
b. Atzerritarren aurkakoak	29
AZTERKETAREN HELBURUA ETA AZTERGAIA	31
HIPOTESIA	31
METODOLOGIA	32




DATUAK AZTERTZEKO MARKO KONTZEPTUALA	42
Interseksionalitatea	42
Kulturartekotasuna	42
Transfeminismoa eta feminismo dekoloniala	43
ELKARRIZKETETATIK ATERATAKO EMAITZAK	44
Ezagutza orokorra	44
Eskubideak	52
Adierazpena	59
Erasoak	86
ONDORIOAK	95
GOMENDIOAK	102
BIBLIOGRAFIA	107
1. ERANSKINA	111
2. ERANSKINA	115

Sarrera

Gaur egungo testuingurua geroz eta konplexuagoa da, ñabardura gehiagokoa eta esplizituagoa: globalizazio aurreratua; migrazio-fenomenoen aniztasuna; zaintza-kate globalak; eragile sozial berrien larrialdia; teknologia berrien hedapena; loturarik gabeko hiperkonexioa; geroz eta indibidualismo handiagoa; bestetasuna kutsatzen duten imajinario negatiboak; alderdikeriaren eta instituzioen gaitzuste politikoa; ongizate-estatuaren eta zuzenbidezko estatuaren hauskortasuna; fake news-en eta zurrumurruen hedapena; klima aldaketa eta ingurumenaren krisia; berdintasunik ezaren gorakada; indarkeria matxistaren betikotasuna eta ikusgaitasuna; belaunaldien arteko distantziaren ideia; genero-eraikuntzak zalantzan jartzea, egia-ostearen gorakada, munduaren silikolonizazioa... Elementu horiek guztiek eragiten digute.

Azterketa honek Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleek LGBTI+ kolektiboaren inguruan duen pertzepzioa du ardatz. Argi dago aipatutako elementuetako asko gurutzatu egiten direla eta pertzepzio horietan eragiten dutela.

- Sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, polarizazio bat egon dela esan genezake, bai erkidego mailan, bai



estatu mailan, baita nazioartean ere. Alde batetik, lege-babes handiagoa dago eta aurrerapausoak eman dira tolerantziari, ikusgaitasunari eta normalizazioari dagokienez, bereziki gazteen artean eta sexu-orientazioari dagokionean – baita, neurri batean, transexualitateari dagokionean ere-. Aitzitik, LGTBI+fobiak gora egin du kapitalismoak oinarri duen ekoizpen-erreproduktzio sistemaren eta haren eraldatzeko gaitasunaren eta maila hegemonikoa galtzearen aurkako erresistentziaren ondorioz. Zehatzago esanda, fundamentalismoak sendotzen ditu kulturalki irauteko estrategia gisa. Fundamentalismo horien oinarria familia tradizionala da: patriarkala, heteronormatiboa, monogamoa eta ugalketarekin eta gizonen desirarekin lotutako sexualitatean oinarritzen dena.

- Bien bitartean, areagotu egin dira migrazio-mugimenduak. Gizakia etengabe lekualdatu da historian zehar eta horrek bide eman du gizataldeak nahasteko, hartu-emanerako, tentsio-eta eraldaketa-egoerak gertatzeko, berrikuntzarako eta ikuspegiak irekitzeko. Gaur egun nagusi den globalizazioaren paradigmak hondamendia eta prekaritatea

dakartza eta eskubide-maila desberdinak dituen taldetan banatzen du gizartea. Aldi berean, gainera, imajinario sexista, biolento, arrazista eta ez-inklusibo baten aldeko mezuz inguratzen gaitu. Horiek guztiek arrazismoa sustatzen dute; izan ere, atzeritarrak genero-berdintasunaren inguruko kontzientzia eta praktikari dagokionez atzeratuak eta biolentoak direlako eta diskurtso eta praktika matxisten gorakadaren erantzule direlako ideia zabaltzen du mendebaldean.

- Ikus dezakegu sistema ekonomiko imperialista eta bidegabearen iraupena defendatzen duen kultura hegemonikoak mugak ezartzen dizkiela desberdinak diren eta araua jarraitzen ez dituzten bi talderi: batetik, genero-disidenteei, familia heteropatriarkalaren erdua hankaz gora jartzen dutelako eta, bestetik, migratu eta maila baxuagokotzat hartzen diren kulturak ekartzen dizkigutenei. Bi kasuetan genero-berdintasuna bihurtzen da elkarrizketa eta eztabaidaren protagonista maila sinboliko zen kulturalean eta alde batera uzten dira, besteak beste, ekonomia-, politika- eta lege-kontuak.

- ▶ Orokorrean, Lurrealde Historikoko herri eta hirietako biztanleria-taldeak elkarren ondoan bizi dira elkarbizitzan baino. Ondorioz, zailagoa da arau sozialek erabakietan eta isiluneetan duten pisua azaleratzea, estereotipoak gainditzea eta kontraesanen, pribilegioen eta diskriminazioen gainean kontzientzia hartzea kulturarteko elkarrizketan eta ikuspegi interseksionalean oinarrituta.

Elkarrizketa horri ekarpenak egiteko, Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleek LGTBI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioak aztertu nahi ditugu.

Pertzepzioak ukiezinak eta emozionalak dira, erraietatik sortuak. Mundua interpretatzeko, gizartean kokatzeko eta inguruarekin harremanetzeko moduaren adierazle dira eta balioak, ohiturak, bizipenak, itxaropenak eta beldurrak islatzen dituzte. Gure buruarekiko irudia ere zizelkatzen dute, bai banakakoa, bai taldekoa, baita komunitatekoa ere.

Pertzepziook estereotipoetan oinarritzen dira batzuetan eta desberdintasun- eta diskriminazio-egoerak, jarrerak eta erasoak zilegi egiten dituzten aurreiritziak sortzen dituzte.


Elkarrizketen bidez, LGTBI+ kolektiboaren esperientziak eta kolektiboak berak bere buruarekiko dituen pertzepzioak jaso ditugu lau ataletan:

- ▶ **Ezagutza orokorra:** ezagutzen ditugu gure bizi-esperientziei (heteroaraua, kolonialtasuna, etab.) forma ematen dieten kontzeptuak? Ezagutzen dugu LGTBI+ kolektiboko pertsonarik edo pertsona arrazializaturik? Badago halako inor gure sare afektiboan?
- ▶ **Eskubideak:** LGTBI+ kolektiboko pertsonen zein eskubide dituztela uste dugu? Eskubideok erabiltzeko zailtasunik dute?
- ▶ **Adierazpena:** uste dugu LGTBI+ pertsonen euren orientazioa, identitatea eta afektibitatea modu irekian eta askatasunez adieraz dezaketela? Zer erreakzio eragiten ditu? Norengandik? Zerk du eragina?
- ▶ **Erasoak:** egoerak, testuinguruak, profilak, arrazoiak...

43 pertsona elkarrizketatu ditugu: jatorri latinoamerikarreko 29 (% 67,5), horietatik % 79 zisheterossexualak eta % 21 LGTBI+ kolektibokoak. Halaber, LGTBI+ komunitateko bertako 14 pertsonari

egin diegu elkarrizketa, jendeak izandako erreakzioek edo jarrerak haiengan nola eragin duen aztertzeko. Bakoitzak bere historia ekarri du, bere ahotsa. Adinak, landatarra edo hiritarra izateak, erlijio-sinesmenak, azalaren koloreak, genero-identitateak, genero-adierazpenak, lan-inguruneak, migratzean izandako adinak, jatorrizko herrialdeak, Gipuzkoan igarotako denborak, diru-sarrerek eta haien egonkortasunak, LGTBI+ kolektiboko pertsonetikiko gertutasun afektiboak edo harremanak, ikasketa-mailak eta abarrek izan dute eragina historia horietan eta haien ahotsak definitzeko prozesuan.

Aztertuko dugu zein neurritan eragiten duen kulturen nahasketak gure ikuspegia zabaltzeko bidean, zerk eramaten gaituen arau sozialak onartzera eta zein alderdi ikusten ditugun mugatzaile gisa sexualitatea libreki bizitzeari dagokionean.



Testuingurua

Azterketari testuingurua emateko, beharrezkoa iruditu zaigu lehenik lau alderdi lantzea: lehenik, landuko dugun gaiaren inguruko legedia. Bigarrenik, aztergai diren pertsonak eta kolektiboak. Hirugarrenik, pertzepzioak eta, azkenik, sentitu eta bizi izandako diskriminazioak. Atal horietan guztietan hartuko ditugu kontuan LGTBI+ kolektiboaren errealitateak, baita jatorri latinoamerikarreko biztanleenak ere.

Azkenik, azpimarratu nahiko genuke, nahiz eta ikerketa leku eta garai jakin batean kokatuta egon –Gipuzkoan, 2022 eta 2023 urteetan–, oso lotuta dagoela hasieran aipatutako testuinguru globalarekin. Zapalkuntza- eta kontrol-mekanismoek desberdin jarduten duten arren, antzeko logika daukate eta haien ondorioek muga fisiko eta administratiboak gainditzen dituzte. Erresistentziek eta disidentziek topo egiten dute, elkar aitortzen dira eta bat egiten dute tokiko zein mundu mailan aldaketak eragiteko.

1. LEGEDIA

Azterketaren gai nagusia kontuan izanik, modu xehatua jardungo gara LGTBI+ kolektiboko pertsonen eskubideez eta sexu- eta genero-identitatearen lege-esparruaz. Modu osagarrian, Latinoamerikako herrialdeetako legediaren inguruko erreferentziak bilduko ditugu eta, azterketak Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko pertsonen pertzepzioa aztertzen duenez, haien egunerokoan berariaz eta modu bereizgarrian eragiten duten legeei buruzko zertzelada batzuk emango ditugu. Hori eginda hobeto ulertu ahal izango dugu haien testuingurua eta baldintza horiek euren pertzepzioan duten eragina.

a. Sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa

NAZIOARTEKO ESPARRUA

Nazioarteko esparruari dagokionez, NBek printzipio batzuk zehaztu zituen 2007an giza eskubideen nazioarteko legedia sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko gaitan aplikatzeko. Printzipio horiei

Yogyakarta-ko printzipioak¹ deritze. Estatu kideentzat printzipio lotesleak dira.

Bestalde, NBEko hainbat estatu kidek gaiaren inguruko hainbat ebazpen eta adierazpen aurkeztu dituzte². Hain zuzen ere, 2016an onartu zen NBEren Giza Eskubideetarako Goi Komisioaren sexu-orientazio eta genero-identitatearen inguruko aditu independente baten izendapena. Hortik abiatuta, txosten garrantzitsuak sortu dituzte³.

2022ko martxora bitarte, sei herrialdek soilik eskaintzen dute genero-identitate eta/edo genero-adierazpenagatiko diskriminazioaren aurkako babes konstituzionala. Horietako hiru Latinoamerikako herrialdeak dira; hain zuzen, Bolivia, Kuba eta Ekuador.

Hala ere, kriminalizazioa eta penalizazioa are ohikoagoak dira: sexu bereko pertsonen arteko sexu-harremanak legez kontrakoak dira edo de facto zigortzen dira 70 herrialdetan, hala nola, heriotza-zigorraren edo aldi baterako edo biziarteko kartzela-zigorraren bidez. Hiru herrialdetan soilik daude esplizituki debekatuta konbertsio-terapiak, besteak beste, Brasilen eta Ekuadorren.

Lesbiana, Gay, Transexual eta Bisexualen Nazioarteko Elkarteak (ILGA) 2020an kaleratutako txosten baten arabera, NBEko 193 herrialdeetatik 30etan soilik onartzen da sexu bereko pertsonen arteko ezkontza. Kopuru horri azken bi urtetan legea onartutako herrialdeak gehitu behar zaizkio, besteak beste, Latinoamerikako herrialde hauek: Argentina

1 Yogyakarta-ko printzipioak. Giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazioari eta genero identitateari buruzko gaietan aplikatzeko printzipioak. <https://www.refworld.org/cgi-bin/texis/vtx/rwmain/opensslpdf.pdf?reldoc=y&docid=48244e9f2>

2 Sexu-orientazioa eta genero-identitateagatiko giza eskubideen urraketei buruzko baterako adierazpena. 2006an Norvegiak 54 estaturen izenean aurkeztua. <http://arc-international.net/global-advocacy/sogi-statements/2006-joint-statement/>

Munduan homosexualitatea despenalizatzeko eta LGTB pertsonen giza eskubideen abusua gaitzesteko baterako adierazpena. 2008an Frantziak, Herbehereek eta Argentinak 66 estaturen izenean aurkeztua. <http://arc-international.net/global-advocacy/sogi-statements/2008-joint-statement/>

Giza Eskubideen Nazio Batuen Goi Komisioari sexu-orientazioa eta genero-identitateagatik banakako en aurka egiten diren diskriminaziozko lege eta praktikak eta indarkeriazko egintzak dokumentatzeko eskatzeko ebazpena. Hegoafrikak 2011an gidatua.

<https://cnnspanol.cnn.com/2011/06/17/la-onu-aprueba-una-resolucion-a-favor-de-los-derechos-de-los-homosexuales/#0>

Sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin lotutako ebazpena; 2014an Brasil, Txile, Kolonbia eta Uruguaiak gidatua.

<https://www.hrw.org/es/news/2014/09/26/onu-resolucion-historica-en-defensa-de-los-homosexuales>

Pertsonen genero-identitate eta sexu-orientazioagatiko indarkeriaren eta diskriminazioaren jatorria aurkitzeko gobernuarekin pertsona horiek nola babestu eztabaidatzeko «aditu independente» bat izendatzeko ebazpena. 2016an Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Costa Rica, Mexiko eta Uruguaiak aurkeztua.

<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/G16/154/18/PDF/G1615418.pdf?OpenElement>

Heriotza-zigorra bermatzailea denean eta oinarritzko giza eskubideak irratzen dituen hura aplikatzearen kontrako ebazpena. Lehen aldia da genero bereko pertsonen arteko adostasuneko harremanak aipatzen direla. 2017an Belgika, Benin, Costa Rica, Frantzia, Mexiko, Moldavia, Mongolia eta Suitzak aurkeztua. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/LTD/G17/276/71/PDF/G1727671.pdf?OpenElement>

3 • Informes sobre el género: La ley de inclusión y Prácticas de exclusión (Generoari buruzko txostenak: inklusioaren legea eta bazterkeria-praktikak, 2021)

• Informe sobre Autonomía e Integridad Corporal (Gorputzaren autonomiari eta integritateari buruzko txostena, 2021)

• Informe sobre Educación Sexual Integral (Sexu-heziketa integralari buruzko txostena, 2021)

• Informe sobre el Impacto de la Pandemia de Covid-19 en Los Derechos Humanos de las Personas LGBT (Covid-19aren pandemiak LGBT pertsonen giza eskubideetan izandako eraginari buruzko txostena, 2020)

• Orientaciones ASPIRE sobre la Covid-19 (ASPIREn Covid-19ari buruzko gidalerroak, 2020)

• Informe sobre Terapias de conversión (Konbertsio-terapiei buruzko txostena, 2020)

• Informe sobre Inclusión sociocultural y económica (Gizarte-, kultura- eta ekonomia-inklusiari buruzko txostena, 2019)

• Informe sobre Identidad de Género (Genero-identitateari buruzko txostena, 2018)

(2010), Brasil (2013), Txile (2021), Kolonbia (2016), Costa Rica (2020), Ekuador (2019), Mexiko (ez dago horri buruzko lege federalik, baina estatu batzuetan arautu, onartu eta aitortu dute sexu bereko pertsonen arteko ezkontza) eta Uruguai (2013). Gainera, ILGAren txostenaren arabera, gaiaren inguruko erabaki batzuk arautzeke daude El Salvador, Honduras eta Peru bezalako herrialdeetan.

Pertsona ez bitarrei dagokienez, haiei aitortpena emateko zehaztapen batzuk dituzte herrialde batzuek, baina ez da ohikoa. Europan, Islandiak eta Maltak autodeterminazioan oinarritutako prozeduren bidez ematen diete aitortpen hori; Alemania, Austria eta Herbehereetan, berriz, pertsona intersexualek soilik dute identitate ez bitarra eskuratzeko aukera. Azkenik, zortzi herrialdek soilik eskaintzen dute nortasun-agirian ez bitartasunaren marka (adibidez, X) ezartzeko aukera. Latinoamerikan, Argentinak ematen du hori egiteko aukera; Europan berriz, bakar batek ere ez.

EUROPAKO ESPARRUA

2020an, EBk sexu-orientazioagatiko diskriminazioa legez zentsuratu zuen Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneko Diskriminaziorik ez ataleko 21. artikulua 1. apartatuan.

«Diskriminazio oro debekatuta dago, batez ere, diskriminazioaren eragilea denean sexua, arraza, kolorea, etnia- edo gizarte-jatorriak, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa, pentsamoldeak, iritzi politikoak nahiz beste edozein motatako iritziak, gutxiengo nazional bateko izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina edota sexu-orientazioa» (21. artikulua 1. apartatua)

Era berean, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak erreferentzia egiten dio diskriminazio mota ororen debekuari eta Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak

sexu-orientazioagatiko diskriminazioaren aurkako borrokari lotutako xedapenak jasotzen ditu Amsterdamgo Ituneko 10. eta 19. artikuluetan.

Diskriminazioaren aurkako Europako legediari buruzko eskuliburuaren arabera, sektore batzuek uste dute sexuagatiko diskriminazioaren aurkako araudiak dagoeneko babesten duela genero-identitatearen auzia. Beste batzuek, ordea, auzia sexu-orientazioaren inguruko araudiak babesten duela. Edonola ere, ez dago gaiari buruzko berariazko xedapenik eta, gainera, horietako batek ere ez du jasotzen sexu-generoa aldatu nahi dutenen edo esleitutakoarekin bat ez datorren genero-adierazpena dutenen kontrako diskriminazioa.

ESTATUKO ESPARRUA

Hainbat arlotan aurrerapauso batzuk eman dira:

- ▶ Orientazio edo sexu- edo genero-identitateagatiko gorroto-delituak: Zigor Kodeak inguruabar astungarria duten delitu gisa arautzen ditu.
- ▶ «Delitu egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriako beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu zein sexu-joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada» (22.4. artikulua). 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari buruzkoa.
- ▶ «Sexu berdineko pertsonen arteko ezkontza»: Kode Zibila aldarazteko uztailaren 1eko 13/2005 Legeak ahalbidetu zuen «sexu berdineko nahiz desberdineko pertsonak elkarrekin ezkontzea; ezkontideen sexua edozein izanik ere, ezkontideen eskubideak eta betebeharrak oso-osokoak eta berdinak izango dira».

- ▶ Ondorioz, honako hau ere zehazten du: «ezkontzaren [...] ondore horiek berberak izango dira eremu guztietan, ezkongaien sexua zein den kontuan hartu gabe. Ondorioen artean aipa daitezke, hala nola, eskubide eta prestazio sozialak, bai eta adopzio-prozeduretan alderdi izateko aukera ere».
 - ▶ Preso dauden pertsona transexualek integrazioa: Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiaren martxoak 9ko 7/2006 instrukzioak babes-esparru bat ezartzen du honako hau aitortuta: «sexu-identitate ofizialarekin bat ez datorren genero-identitate psiko-soziala duten pertsona transexualek Espetxeetako Administrazioari eska diezaioke baldintza hori aitortzeko eta espetxean haren arabera espetxeratuak izateko». Horri esker kasu gehiago barne hartzen dira gaur egun, lehen sexua berresleitzeko ebakuntza egin zutenei soilik aitortzen baitzitzaien eskubide hori.
 - ▶ Pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamenaren zuzenketa: pertsona transexualek Erregistro Zibilean izena aldatzeari buruz Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak ebazitako martxoaren 15eko 3/2007 Legeari eta 2018ko urriaren 23ko Instrukzioan egindako aldaketa esanguratsuei jarraikiz:
 - ▷ NANA edo pasaporte bezalako nortasun-agirietan izenari edo sexuari dagokion aipamena aldatu daiteke genitalen ebakuntzarik, prozedura judizialik, genero-disforiaren diagnostikorik edo tratamendu medikorik gabe.
 - ▷ Espainiako nazionalitatea eta behar besteko gaitasuna duen pertsona orok eska dezake identitate-aldaketa, adingabeek barne.
 - ▷ Ezkonduta dagoen emakume lesbiana oro izan daiteke in-vitro sistemaren bidez emazteak izandako haurren ama.
- Gainera, 2023ko martxoaren lehen onartu eta argitaratu zen BOEren 51. zenbakian transexualek berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legea. Hona hemen lege horren alderdi esanguratsuenetako batzuk:
- ▶ Sexu- edo identitate-sexualagatik, genero-adierazpenagatik, ezaugarri sexualengatik edo familia aniztasunagatik diskriminaziorik ez jasateko eskubidearen berriazko aitortpena.
 - ▶ Arau transbertsala da, politika publikoetako hainbat esparrutan eragiten baitu: administrazio-arloan (administrazio-inprimaki egokiak), lan-arloan (hitzarmen kolektiboetako klausulak), osasun-arloan (abertsio-, konbertsio- edo kontrabaldintzapen-metodoen debekua; ugalketa lagunduko teknikak baldintza berdinetan jasotzeko eskubidea; sexu- eta ugaltze-heziketari buruzko kanpainak), hezkuntza-arloan (inklusioa lantzea hezkuntza-urrats bakoitzeko curriculumean), kirol-arloan (txapelketak arautzea)...
 - ▶ Pertsona transexualei lotutako aurreikuspenak: estrategia orokor bat sortzea, lan-arlorako ekimen positiboko neurriak eta osasun-arloko artaren inguruko protokoloak diseinatzea, genero-autodeterminazioa...
 - ▶ Pertsona intersexualei lotutakoak: osasun-arreta osoa, 12 urtetik beherakoei genitalak aldatzeko debekua, urtebetez sexuaren aipamena hutsik uzteko aukera.

Hona hemen Espainiako autonomia-erkidegoetako legediaren alderaketa⁴:

TAULA (1): legediaren alderaketa, autonomia-erkidegoaren arabera (2022ko maiatza). Iturria: Euforia Familias Trans-aliadas.

AUTONOMIA- ERKIDEGOA	LGTB LEGEA	TRANS LEGEA	OSASUN- BABESA	OSASUN- TXARTELA	HEZKUNTZA- BABESA	AUTODETERMINAZIOA
ANDALUZIA	✓	✓	✓	✓	✓	✓
ARAGOI	✓	✓	✓	✓	✓	✓
ASTURIAS						
BALEAR UHARTEAK	✓		✓	✓	✓	✓
KANTABRIA	✓		✓	✓	✓	✓
GAZTELA-MANTXA	✓	✓	✓	✓	✓	✓
GAZTELA ETA LEON			✓		✓	
KATALUNIA	✓		✓	✓	✓	✓
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	✓	✓	✓	✓	✓	✓
EXTREMADURA	✓		✓	✓		✓
GALIZIA	✓		✓		✓	
KANARIAK		✓	✓	✓	✓	✓
ERRIOXA		✓		✓		✓
MADRIL	✓	✓		✓	✓	✓
MELILLA					✓	
MURTZIA	✓		✓	✓	✓	✓
NAFARROA	✓		✓	✓	✓	✓
EAE		✓	✓		✓	✓

✓ = eskasa edo osatu gabea

4 Euforia Familias Trans-Aliadas (2019-2020). Legislación estatal. <https://euforia.org.es/informacion/legislacion/legislacion-estatal/>

ERKIDEGOKO ESPARRUA

Euskadi aitzindaria izan da hainbat esparrutan:

- ▶ 2003an, izatezko bikoteak arautzeko Euskadiko 2/2003 Legeak, maiatzaren 7koak, berariaz onartu zuen homosexualen elkarketa zibilerako eta adopziorako eskubidea.
- ▶ 2012an, lehenetariko autonomia erkidegoa izan zen transexualitateari buruzko gaien berariazko araudi bat sortzen; hain zuzen, 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Besteak beste, honako hauek biltzen ditu:
 - ▷ Pertsonen euren genero-identitateari, hots, bakoitzak bere sentitzen duen sexuari dagokionari, jarraikiz zuzendu behar gatzazkie.
 - ▷ Pertsona transexualek administrazio-agiri egokiak izateko aukera izango dute sexua berriro esleitzeko prozesuak irauten duen bitartean⁵.
 - ▷ Osasun publikoak ordainduko ditu diagnostikoak, tratamenduak eta interbentzioak.
 - ▷ Pertsona transexual adingabeek erabateko eskubidea dute euren transexualitateari buruzko diagnostiko eta tratamendu medikoa jasotzeko.
- ▶ 2019an, aurrerapauso handi bat eman zen despatologizazioaren bidean ekainaren 27ko 9/2019 Legearen bidez. Izan ere, lege horrek aurrekoa aldatzen du eta kendu egiten du pertsona transexualek legez ezarritakoari atxiki ahal izateko

diagnostiko, txosten psikiatriko edo psikologiko edo tratamendu medikorik izateko beharra.

- ▶ 2022ko ekainean, ekainaren 28ko 14/2012 Legea bigarren aldizko lege-proposamen bat aurkeztu zen Eusko Legebiltzarrean. XII. Legegintzaldia (2020-2024) amaitu aurretik ebazpena ematea espero dute. Proposamena onartzeko gero, honako aldaketa hauek egingo liriteke:
 - ▷ «Transgenero» terminoa berariaz barne hartzea.
 - ▷ Pertsona transexual adingabeei entzunak sentitzeko eskubidea bermatzea.
 - ▷ Pertsona transexual edo transgeneroek jaso ditzaketen osasun-prestazioen hobekuntza nabarmena.
 - ▷ Lehen mailako arretan transexualitate barne hartzeko aurreikuspena.
 - ▷ Kulturaren, aisiaren eta kirolaren arloetako neurrien erregulazioa.
 - ▷ Segurtasunaren, justiziaren eta larrialdien arloetako neurriak.

Halaber, espero da Eusko Legebiltzarrak denbora luzez espero eta eskatutako LGTBI+ lege integrala laster izapidetu eta onartzea.

b. Atzerritartasuna

Espainiar Estatuak Arrazagatiko Era Guztietako Diskriminazioak Ezabatze Nazioarteko Konbentzioa, Errefuxiatuen Estatuari buruzko Nazioarteko Konbentzioa

⁵ 2016an sortu zen 234/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa, ekainaren 28ko 14/2012 Legeko 7. artikulua arautzen duena, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

eta beste hainbat lege-tresna berretsi ditu migranteen, errefuxiatuen eta atzerritarren lanaren, osasunaren, etxebizitzaren eta abarren arloetako eskubideei dagokienez.

Bestalde, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoa -8/2000, 14/2003 eta 2/2009 Lege Organikoek aldarazitako Atzerritarrei buruzko Lege gisa ezagunada Espainian Europar Batasunetik kanpoko atzerritarren sarrera eta egonaldia arautzen eta atzerritarrek dituzten eskubide eta askatasunak aitortzen dituena.

Laburbilduz (ACOGEn 2021ko txostena):

Atzerritar orok Espainian dituen eskubideak:

- ▶ Agiriak gordetzeko eskubidea eta betebeharra
- ▶ Biltzeko eta manifestatzeko askatasuna
- ▶ Elkartzeko askatasuna
- ▶ Greba
- ▶ Hezkuntza-eskubidea: adingabe eta helduentzako derrigorrezko hezkuntza (indarrean dagoen hezkuntza-legediari jarraikiz)
- ▶ Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea (gutxienez 3 hilabetez erroldatuta egonda), indarrean dagoen osasun-legedian zehaztutakoari jarraikiz
- ▶ Etxebizitza-arloko eskubideak
- ▶ Abokatuen laguntza jasotzeko eskubidea

Egoitza-baimenik gabeko pertsonen EZ dauzkaten eskubideak:

- ▶ Askatasunez zirkulatzeko eskubidea
- ▶ Parte-hartze publikoa
- ▶ Lana eta gizarte segurantza
- ▶ Gizarte-prestazioak
- ▶ Etxebizitza lortzeko laguntzak
- ▶ Familiaren intimitatea

EAEn, hiru urtez bertan finkatuta egon diren pertsonen zenbait gizarte-prestazio jasotzeko eskubidea dute, adibidez, DSBE edo etxebizitza lortzeko laguntzak. Halaber, 6 hilabetez EAEn finkatuta egon diren haurrak dituzten familiek ere jaso ditzakete gizarte-larrialdietarako laguntzak.

Duela gutxi aldatu zuten Atzerritarrei buruzko Garapen-legearen araudia eta 2022ko abuztuaren 16an sartu zen indarrean. Aldaketa guztien artean, honako hauek nabarmentzen ditu Biltzen-ek⁶:

- ▶ Finkatuta egotearen ideia gaurkotzea eta ikasketak direla eta finkatuta egotegatiko baimen berri bat sortzea.
- ▶ Aldaketak familia berriro elkartzearen ondoriozko egoitza-baimenetan.
- ▶ Aldaketak ikasketen eta lan-merkatuan sartzearen ondoriozko egoitza-baimenean.
- ▶ Berritutako baimenen indarraldia.
- ▶ Jatorrizko herrialdeko kontratazio-izapideen hobekuntza.

Aldaketok gorabehera, pertsona migranteen edo pertsona migranteekin lan egiten duten kolektibo eta erakundeek ez dute erreforma nahikotzat jotzen.

6 Biltzen: Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua. www.biltzen.org

Sarah Babiker-en⁷ arabera, pertsona migranteekin lan egiten duten bost erakunde nagusiek –Andalucía Acoge, Cáritas, CEAR, Convive Fundación CEPAIM eta Red Acoge– eskatu zuten arreta lan-merkatutik kendu eta migrantei euren eskubideak berdintasunean erabiltzeko aukera mugatzen dieten kontuetan jartzea. Halaber, elkarteon arabera, etengabe eta elkarriketa bidez berrikusten jarraitu behar da atzerritarrei buruzko araudia (besteak beste, familia berriro elkartzeko aukera malgutzeari, lana lortzeko bisei, gizarte-babesa jasotzeko aukerari edo atzerritarrei eta asiloari buruzko araudia hobeto koordinatzeari dagokiona). Horrez gain, Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuak (SJM) adierazi du proposamenen izaera utilitaristak kanpoan uzten duela migrazio behartua: «Gainera, ez du sektore horietako prekaritatearekin amaitzen, enpleguari bideratuta ez dauden gizarte-inklusioko alderdiak nabarmentzen ditu eta ez ditu jasotzen administrazio-izapideak egiteko epeetan sortzen diren babesgabetasun-egoerak».

Orokorrean, dokumentuak ez die legegintzako #RegularizaciónYa herri-ekimenaren kanpainaren eskaerei erantzuten, hain zuzen, «Estatu Espainiarrean administrazio-egoera irregularrean dauden gutxienez milioi erdi pertsona kalteberatasun-egoeratik ateratzeko irtenbide politiko bat» eskaintzeari.

Atzerritarrei buruzko legeaz gain, etxeko lanen sektoreari dagokion legediak garrantzia berezia du atzerritar jatorriko biztanleentzat, emakume latinoamerikar ugarik egiten baitute lan esparru horretan. 16/2022 Errege Lege-dekretuak, irailaren 6koak, etxeko langileen baldintzak eta gizarte segurantzakoak hobetzekoak, aldarazi zuen etxe-zerbitzarien

Araubide berezia arautzen duen 1620/2011 Errege Dekretua. Arau horren helburua da etxe-zerbitzarien laneko eta Gizarte Segurantzako baldintzak besteren konturako langileenekin parekatzea eta haien arteko desberdintasunak baztertzea, bai horiek bidezkoak ez direlako, baita langile horien kolektiboa desabantailan –eta, ondorioz, diskriminazio-egoeran– jartzen duelako. Guztiaren gainetik, bi diskriminazio historikorekin amaitu nahi du: langabezia-prestazioa jasotzeko eskubiderik ez izatea eta arrazoirik gabe kaleratzea. Erreformak indarrean dauden kontratu guztietan eta aurrerantzean sinatzen direnetan du eragina, baina, kasu batzuetan, urtarrilean sartuko da indarrean langabeziaren ondorioz kotizatzeo betebeharra.

7 Babiker, S. (2022ko ekainak 15). Regularización Ya considera utilitarista la reforma de Escrivá y denuncia el ninguneo a la ILP. El Salto. <https://www.elsaltdiario.com/migracion/reforma-utilitarista-no-escucha-personas-migrantes-descontento-propuesta-regularizacion-escriva>

2. PERTSONAK ETA KOLEKTIBOAK

Atal honetan ikerketa-subjektuaren eta helburuko biztanleriaren azterketa kuantitatiboa bat egingo dugu.

Ikerketa-subjektua Gipuzkoan bizi den jatorri latinoamerikarreko biztanleria da nagusiki. Nortzuk osatzen dute biztanle-talde hori? Nondik datoz? Non bizi dira?

LGTBI+ kolektiboari buruz galdetu diegu eta kolektiboari berari ere hainbat galdera egin dizkiogu. Zer nolako presentzia du kolektiboak Gipuzkoan?

a. Jatorri latinoamerikarreko pertsonak

2021eko urtarrilaren 1ean, honako hau adierazten zuten espainiar Estatuko administrazio-egoerari buruzko datu orokorrek (ACOGUE txostena, 2021):

- ▶ Egoitza-baimendun 2.313.000 atzerritar daude. Horietako % 79k epe luzeko baimena dute.
- ▶ 390.000 eta 470.000 atzerritar bitarte daude administrazio-egoera irregularrean. Horietako % 20 40 urte baino gehiagoko emakumeak dira; gizonak, berriz, % 4.

Ikuspegi-ren 2022ko maiatzeko 84. Begirada txostenaren arabera, 2022ko urtarrilaren 1era bitarte Gipuzkoan erroldatutako biztanleen % 11,5 atzerrian jaiotakoak dira, uneko nazionalitatea edozein izanik ere. % 50 jatorri latinoamerikarrekoak dira, horietako % 61,1 emakumeak. Emakunderen Zifrak 2020 txostenaren arabera, Erdialdeko Amerikako eta Karibeko herrialdeetako gizon eta emakumeen artean dago alderik handiena. Izan ere, bertatik

etorritakoen % 68,9 emakumeak dira.

Jatorriko herrialde nagusien artean, zortzi latinoamerikarrak dira: Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Ekuador, Honduras, Paraguai eta Peru.

Zurrumurrueen Aurkako Sarearen eskualdekako datuen arabera, bertako biztanleria eta/edo atzerritar jatorrikoa modu berdintsuan zeuden banatuta Lurralde Historikoan 2020. urtean. Biztanleriaren zati handiena Donostialdean bizi da eta atzetik dauzka Bidasoa Beherea, Goierri eskualdea eta Urola Kosta.

TAULA (2): Gipuzkoako biztanleen jatorria, bizi diren eskualdearen arabera. Zurrumurrueen Aurkako Sarea.

	ESKUALDEAN BIZI DEN ATZERRITAR KOPURUA, GIPUZKOAKO BIZTANLERIA OSOAREKIN ALDERATUTA	ESKUALDEAN BIZI DEN BERTAKO BIZTANLE KOPURUA, GIPUZKOAKO BIZTANLERIA OSOAREKIN ALDERATUTA
Debagoiena	7%	9%
Bidasoa Beherea	14%	11%
Debabarrena	8%	8%
Donostialdea	46%	45%
Goierri	10%	9%
Tolosa	6%	7%
Urola Kosta	9%	11%
GUZTIRA	100%	100%

Jatorri latinoamerikarreko biztanleei dagokienez, Donostialdean bizi da gehiengoa (% 55). Eskualde horretan biztanleria zaharragoa denez eta industria gutxiago dagoenez, zaintzako eta hirugarren sektoreko langile gehiago behar dira. Hori horrela, lan-esparru horietara egokitzen dira jatorri latinoamerikarreko biztanleak, batez ere

emakumeak.

Elkarteei dagokionez, emakume gehiago daude jatorri latinoamerikarreko elkarte mistoetan gizonak baino. Kasu batzuetan, talde espezifikokoak ere badituzte. Halaber, euren erakundeak sortu dituzte, maiz beste jatorri batzuetako emakumeekin elkartuta. Hona hemen horietako batzuk: Garaipen (emakume migrante eta euskaldunen elkarte, Errenteria), Malen Etxea (emakume etorkinen elkarte, Zumaia), Lacasiun (emakume latinoen elkarte, Eibar), Mujeres del Mundo Unidas (Donostia), Gu Haziak Gara (Aretxabaleta), Ondoan Topagunea – La Palmera de Débora (Donostia). Bestetik, talde geografiko handien kasuan, hainbat jatorritako atzerritarrak elkartzeko joera dago. Elkarreez gain, elizak ere badira topagune, bai katolikoak, baita, nagusiki, ebanjelikoak ere.

b. LGTBI+ kolektiboa

Berdinduk (sexu- eta genero- aniztasunarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzua), Osakidetzaen Genero Unitateak eta Eraberean-ek (tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea) jasotako arreta-eskaeretan, gorroto-delituaren eta/edo erasoen salaketetan, Berdinduk eskoletan egiten duen lanean eta kolektiboak dituen elkarte kopuruan oinarrituta egin ditzakegun estimazioez gain, ez dago euren burua LGTBI+ kolektiboko kide gisa definitzen duten pertsonen inguruko datu kuantitatiborik. Ildo horretatik, atzerritar jatorriko biztanle batzuek –administrazio-egoera erregularra dutenek barne– ez dute sentitzen gizarte-zerbitzu jakinetara eta/edo segurtasun-indarrengana jotzeko zilegitasun edo konfiantzarik eta, ondorioz, are zailagoa da jakitea Gipuzkoan bizi diren atzerritar jatorriko –eta, zehazki, jatorri latinoamerikarreko– zenbat biztanlek definitzen duten euren burua

LGTBI+ kolektiboko kide gisa.

Nahiz eta datuok esanguratsuak izan politika publiko integral eta interseksionalak sortzeko, ezin dugu aho batez esan etikoa eta zuzena denik herritarren desiraren, afektibitatearen eta sexu-genero identitatearen inguruko joerei buruzko datuak biltzea.

Hala ere, gauza argia da gaiaz geroz eta gehiago hitz egiten dela publikoki, bai legegintza-erabakidetan, bai eztabaida mediatikoetan eta baita hezkuntza- eta medikuntza-arloetan ere. Gainera, publikoki LGTBI+ kolektibokoak direla adierazten duten pertsonak ere ikusgaitasun handiagoa dute gaur egun.

Lurralde Historikoari dagokionez, azpimarratu beharra dago alde handiak daudela LGTBI+ erakunde, elkarte eta talde antolatuen artean. Desberdintasun horiek bi jarduera-ildoko edo filosofiatan banatu genitzake, zeintzuk, polarizatuta egon ez, baina erakundearen arabera gurutzatu egiten baitiren.

Erakundeetako batzuekizaera instituzionalagoa dute, laguntzako, eta ikuspegi erreformista eta unibertsalago bat dute LGTBI+ kolektiboaren eskubideen inguruan. LGTBI+ kolektiboko pertsonen eskubideen aldeko borrokari dagokionez, berdintasunaren kontzeptuaren alde egiten dute eta pertsona heterosexualek eta homosexualen eta zisen eta transen eskubide-berdintasuna sustatzen dituzte (sexu berekoen arteko ezkontza, adopzioa, sexua berresleitzeko kirurgiak, etab.).

Beste erakunde batzuek, ordea, izaera iraultzaile, erradikal, transfeminista eta antisistemagoa dute. Haien aldarrietan edozein zapalkuntza-sistemaren oinarriak kritikatzeko dituzte politikoki eta estrukturaliki –instituzioek zapalkuntza horiek errepikatzen dituztela ulertuta– eta sistema zisheteropatriarkalaren asimilazio oro gaitzesten dute.

Hona hemen Gipuzkoako LGTBI+ erakunde edo taldeen zerrenda:

TABLA (3): Gipuzkoako LGTBI+ erakundeak.

IZENA	IZEN OSOA/EUSKARA	LURRALDE HISTORIKOKO ESKUALDEA
Gehitu	Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkarte	Gipuzkoa
Naizen	Nafarroako eta Euskadiko adingabe transexualen familien elkarte	Gipuzkoa
Loratuz Lotu	Trans helduentzako elkarte	Gipuzkoa
Ampgyl	Generoagatiko intolerantziaren aurkako familien elkarte	Gipuzkoa
Ehgam	Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua	Zarautz, Donostia, Hernani, Erreterria
Lea Artibai eta Mutrikuko Transmaribolluk	Lea Artibai eta Mutrikuko transbollomarika sarea	Mutriku
Atxabalta Harro	Aretxabaletako talde transbollomarika autonomoa	Aretxabaleta
Morbor Arrasate	Arrasateko talde transbollomarika autonomoa	Arrasate
Donostiko Asanblada TransBolloMarika	Donostiko asanblada transbollomarika	Donostia
Zizta Donostia	Donostiako transbollomarika talde autonomoa	Donostia
Harrotu Antxo	LGTBIQ+ taldea	Pasai Antxo
Orio Harro	LGTBIQ+ taldea	Orio
Elgoibar LGTBIQ+	LGTBIQ+ taldea	Elgoibar

Hona hemen Euskal Herriko LGTBI+ mugimenduaren agenda politikoan azken urteotan identifikatutako erronka nagusiak:

- ▶ Fundamentalismo erlijioso, politiko eta antzekoei eta, ondorioz, indarkeriaren, gorroto-diskurtsoen eta eraso digitalen gorakadari aurre egitea.
- ▶ Transexualak baztertzen dituzten diskurtsoei aurre egitea.
- ▶ LGTBI+ kolektiboaren borroka merkantilizatzen eta kapitalizatzen duten erakunde pribatu eta enpresei eta instituzioen pinkwashingari aurre egitea.
- ▶ Pandemiagatik desbideratutako aurrekontuen murrizketak eta legedia integral eta benetako konpromiso politikoaren falta salatzea.
- ▶ Giza eskubideen atzerakadari aurre egitea.
- ▶ Herri txikietan eta landa-eremuetan lan

egitea sexiliora ekiditeko.

- ▶ Sexu-orientazioaren eta genero-identitateen patologizazioari aurre egitea.
- ▶ Sare sozialetan ziberjazarpen LGTBI+fobikoa sustatzen duen anonimotasunarekin amaitzea.
- ▶ Eguneroko LGTBI+fobia sinbolikoari aurre egitea.
- ▶ Termino berri ugari egoteagatik sortutako nahasketa terminologikoarekin amaitzea.
- ▶ LGTBI+ kolektiboaren Memoria Historikoa lantzea eta/edo berreskuratzea.
- ▶ Covid-19aren pandemiak izan duen eragin erreala aztertzea.
- ▶ LGTBI+ kolektiboko aktibista eta militanteen eskasiarekin eta prekaritatearekin eta erakundeen artikulazio (edo antolaketa) faltarekin amaitzea.
- ▶ LGTBI+ politiken arlo guztietan ikuspegi interseksionala sartzea.
- ▶ LGTBI+ korronteen barruan dauden desadostasun ideologiko eta metodologikoek eragindako eztabaidak argitzea.

3. PERTZEPZIOAK

Ikuspegik duela gutxi egindako bi txostenetatik abiatuta, euskal biztanleriak sexu- eta genero-aniztasunaren eta atzerritarren inguruan dituen pertzepzio orokorrak aurkeztuko ditugu.

a. LGTBI+ kolektiboari buruzkoak

Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa. Sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak txostenaren arabera, datuek adierazten dute euskal gizartearen gehiengoa irekia eta sexu- eta genero-aniztasunaren eta LGTBI+ kolektiboaren ez diskriminatzearen aldekoa dela.

Hala ere:

Era berean, aldeko jarrerak nabarmen nagusitzen badira ere, joera batzuek erakutsi dute onarpen-maila eta erosotasunaren adierazpena neurritsuagoak direla errealitate intersexualekin eta transekin zerikusia dutenean, lesbianekin, gayekin edo bisexualekin lotzen direnean baino. (Ikuspegi, 2022, 93. orr.)

Bestalde:

Esan daiteke LGTBI+ kolektiboarekiko tratu desberdina eta diskriminazioa, nahiz eta azken urteetan gaurkotasuneko gai bihurtu eta goraka ari den, ez dagoela lotuta horri buruzko adostasun edo jarrera sozial argi batekin. Lortutako datuek agerian utzi dute, iritzi-banaketa ez ezik, EAEko biztanleriaren zati handi batek zalantzak dituela edo ez duela bere jarrera azaldu nahi. (Ikuspegi, 2022, 47. orr.)

Pentsa daiteke eragina izan dezakeela LGTBI+ pertsonen bizi dituzten errealitateak ez ezagutzeak, bai eta, agian, eztabaida sozial eta politikoen gorakadak ere, pertsona horien inguruan jarrera kontrajarriak planteatzen baitituzte. Komeni da, halaber, ez saihestea eskuin muturrekoen eta katoliko kontserbadoreen diskurtsoen suspertze mediatikoa, jarrera diskriminatzaileak eta intoleranteak defendatzen baitituzte argi eta garbi. (Ikuspegi, 2022, 93. orr.)

Agerian geratu da LGTBI+ kolektiboarekiko eta sexu- eta genero-aniztasunarekiko jarrera hurbilagoak edo enpatikoagoak dituztela gazteenek, ikasketa handienak dituztenek, agnostiko/ateo deklaratuak, bertakoek, ezkertiarrek eta estatus sozioekonomiko ertain-altua eta altua dutenek. Bestalde, jarrera urrunagoak dituztenak daude, adin handieneko pertsonak, ikasketa txikienak dituztenak, erlijiosoak, atzerritar jatorrikoak, ideologikoki eskuinekoak/zentro-eskuinekoak direnak eta estatus sozioekonomiko ertain-baxukoak eta baxukoak. (Ikuspegi, 2022, 52. orr.)

Azterketa horretan ondorioztatu zen ez dagoela alde nabarmenik gizonen eta emakumeen diskriminazioaren eta tratu desberdintasunaren inguruan duten pertzepzioaren artean.

b. Jatorri atzerritarreko pertsonen buruzkoak

Barometroa 2021. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak txostenaren arabera:

- Euskal gizarteak ez du uste migrazioa arazo garrantzitsu bat denik EAEn.

- ▶ Euskal gizartearen kezka gehienak gure ongizate-estatuaren aurkako mehatxuekin lotuta daude, zeintzuk aurreiritzi edo zurrumurru nagusiek islatzen baitituzten. Nolanahi ere, euskal gizartea ez dago soilik bertakoak babesten dituen gizarte-sistemen alde. Uste du hezkuntza eta osasun publikoa eskubide unibertsalak direla. Immigrazioaren inguruko estereotipo faltsu eta negatiboek dagokionez, joera positibo bat dagoela ikusi dugu: geroz eta babes gutxiago dute gizartearen imajinarioan.
- ▶ Euskal gizarteak errealitate oso urrun dagoen pertzepzio bat dauka EAEn bizi den atzerritar kopuruaren inguruan. Izan ere, estatistika ofizialetan erroldatuta eta erregistratuta dauden atzerritar kopuruaren ia bikoitza direla uste dute.
- ▶ Herritarrei galdetu diegunean etorkizunean zein jatorritako atzerritarrak etorriko direla uste duten, gehiengoak magrebtarrak izango direla dio (% 80,8k) eta, bigarrenik, baina alde handiarekin, latinoamerikarrak (% 57,8k). Pertzepzio hori ez dator bat datu objektiboek islatzen duten errealitatearekin, EAera azken urteotan etorritako atzerritarren gehiengo jatorri latinoamerikarrekoa baita.
- ▶ Euskal gizartearen zati handi batek uste du, a priori, denoi dagokigula elkarbizitza sustatzea (% 82,3k). Hala ere, gehiengoaren iritziz, atzerritarrek ardura handiagoa dute egokitzapenari dagokionez (% 78,1k). Gainera, biztanle gehienek uste dute atzerritarrek gure legediarekin bat ez datozen alderdi erlijioso edo kulturalak baztertu behar dituztela (% 63,5k). Hau da, «asimilazionismo biguna edo joeragatikoa».
- ▶ Azken hamarkadotan egondako migrazio-mugimenduen ondorioz, geroz eta gehiago dira guraso atzerritarrak dituzten eta Euskadin jaiotako haurrak. Integrazio-prozesuaren inguruan galdetuz gero, euskal gizartearen gehiengoak euskalduntzat hartzen ditu atzerritar jatorrikoak izan, baina bertan jaiotakoak (% 89,5k).
- ▶ Generoari dagokionez, datuek adierazten dute ez dagoela alde nabarmenik euskal gizartean eta gizon eta emakumeek pareko iritzia dutela immigrazioaren inguruan..

4. DISKRIMINAZIOA ETA ERASOAK

Eusko Jaurlaritzako Segurutasun Sailak Euskadiko gorroto gertakariei⁸ buruzko 2021ko txostenaren (2022) arabera, zeina 2017tik urtero egiten duen UPV/EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrarekin elkarlanean, 279 gorroto-delitu erregistratu ziren 2021an Euskadin eta, beraz, gorako joera hori mantendu da. Kasuen % 31,05 Gipuzkoan gertatu ziren. Datuen arabera, eraso gehienak arrazistak edo xenofoboak izan ziren (% 58,48, hots, % 38,4 gehiago). Sexu-orientazioagatiko edo genero-identitateagatiko delituak dira bigarren gorroto-delitu mota ohikoenak. 73 kasu erregistratu ziren, guztizko delituen % 26,3. Beraz, % 46ko gorakada egon zen 2020. urtearekin alderatuta. Orokorrean gorroto-diskurtso gutxiago egon ziren eta lesio eta mehatxu gehiago. Zigortutakoak gizonak izan ziren batik bat, gehienak 18 eta 29 urte bitartekoak (kasuen % 25,7). Adin-tarte horretan, gizonen kasu kopurua emakumezkoena baino bederatzi puntu altuagoa da. Halaber, bikoiztu egin zen 18 urtetik beherakoen kasu kopurua.

Gainera, gogoan eduki behar dugu «infrasalaketen» fenomenoak, hau da, hainbat arrazoigatik diskriminazio-egoerak ez salatzea erabakitzen dutenena. Arrazoen artean, honako hauek azpimarratu ditzakegu: salaketa jartzeko eskubideak edo erabili ditzaketen mekanismoak ez ezagutzea, instituzioekiko konfiantza falta, diskriminazio-egoeren normalizazioa eta bigarren biktimizatua izateko eta nahi gabeko ondorioak jasateko beldurra. LGTBI+ kolektiboari dagokionez,

berriz, salaketa jartzeak orientazioa edo genero-identitatea adieraztea dakar eta denak ez daude horri aurre egiteko prest. Egoera irregularrean dauden pertsona immigrante askok ere uko egiten diete haien eskubideei, kanporatzeko gobernu-espeditente bat irekiko dietelako beldur.

a. LGTBI+ kolektiboaren aurkakoak

LGTBI kolektiboaren aurkako diskriminazio handirik ez dagoelako ideia zabalduta egon arren, euskal biztanleen % 50k baino gehiagok adierazi du sexu-orientazioagatiko eta/edo sexu- edo genero-identitateagatiko komentario negatiboak entzun dituztela edo haien lekuko izan direla (isekak, txantxak, txistek, imitazioak, keinuak, etab.). Halaber, biztanleriaren % 42,5k adierazi du irainen (marikoi, bollera, trabelo...) lekuko izan direla. % 22k adierazi du ezagutzen dituela kolektiboko pertsonen edo taldearen ez ikusiarena egin edo parte hartzen utzi ez dioten kasuak, baita bazterketa kasuak ere. % 17,9k mehatxuak jasan dituela dio eta % 13,5k, berriz, eraso fisikoak. Edonola ere, euskal biztanleen % 32,7k adierazi du ez duela aipatutako diskriminazio-egoerarik inoiz entzun edo ikusi (Neurtu 2021).

Eraberean elkarteak 2020an egindako txostenaren arabera, 13 kasu artatu zituen Gipuzkoako sareak. Horietatik % 30 sexu-orientazioari edo sexu- edo genero-identitateari lotutakoak izan ziren. Artatutako pertsonen % 78,9 jatorri espainiarrekoak ziren eta % 10,5 jatorri latinoamerikarrekoak. Denak emakumeak ziren, gehienak 18 eta

8 Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Antolakundearen barruan (ESLA), 2003an hartutako definizioaren arabera, hau da gorroto-delitua: «zigor-arloko edozein arau-hauste, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-haustek barne, zeinean arau-haustearen biktima, lokala edo xedea aukeratzeko baita talde bateko partaide, laguntzaile edo afiliatua izateagatik edo harekiko lotura edo sinpatia izateagatik, edo hala dela susmatzeagatik». Eraberean. Igualdad de trato y no discriminación. Guía Básica (Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Oinarritzko gida). https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean/es_observat/adjuntos/ERABEREAN_GUIA.pdf

40 urte bitartekoak. Diskriminazio-egoera gehienak hezkuntza-arloan (matrikula egitean izenarekin izandako zailtasunak), aisialdirako lokaletan eta etxebizitza eskuratzekoan gertatu ziren.

Berdinu elkarteak, berriz, 95 pertsona artatu zituen Gipuzkoan 2021an, horietako 28 migranteak. Arta gehienak sexu- eta genero-identitateari lotutakoak (dokumentazioa izapidetzea, tratamenduak lortzea...) eta juridikoak (asiloa, zaurgarritasun-egoerak, administrazio-erregulazioa...) izan ziren. Eskaera larriagoren bat ere egon zen, buruaz beste egiteko saiakerak eta eraso fisikoak tarteko zituena.

Lehen aipatutako Euskadiko gorroto-kasuen 2021ko (2022) txosteneko datuak modu xehatuagoan adierazteko, kolektiboka banatu ditugu txostenean jasotako sexu-orientazio eta identitateगतिको delituak: 2021an, gayen kolektiboa izan zen erasotuen (51 delitu, hots, kasuen % 69,86). Gainerakoan artean, pertsona transgeneroen aurkako zazpi delitu, lesbianen aurkako sei eta zehaztu gabeko bederatzigertatu ziren. Datuak probintziak banatuz gero, 23 lirateko Gipuzkoan gertatutakoak. Delituak gehienak bide publikoan gertatu ziren eta, horren atzetik, Interneten eta etxean.

Azterketak jatorri latinoamerikarreko pertsonen LGBTI+ kolektiboari buruz duten pertzepzioa ikertzeko helburua duenez, garrantzitsua iruditu zaigu, Gipuzkoako egoeraz gain, haien jatorriko herrialdeetako egoera aztertzea. Horretarako, Amerikarteko Giza Eskubideen Batzordearen (CIDH) *Avances y Desafíos hacia el reconocimiento de los derechos de las personas LGTBI en las Américas* (Amerikan LGTBI+ pertsonen eskubideak aitortzeko aurrerapausoak eta erronkak, 2018) txosteneko laburpen hauek errepikatu ditugu.

► Ameriketako gizarteak heteroarauaren, zisarauaren, sexu-hierarkiaren, sexu- eta genero-bitartasunaren eta misoginiaren printzipio errotuen mende daude. Printzipiook, sexu-orientazio,


identitate eta genero-adierazpen ez normatiboak eta askotariko gorputzen kontrako intolerantziarekin batera, zilegitasuna ematen diete LGTBI kolektiboko pertsonen edo halakotzat hartutakoan kontrako indarkeriari eta diskriminazioari.

- Aurreiritzi sozial eta kulturalen eta haurtzarotik heziketa eta sentsibilizazioa sustatzeko beharraren arteko loturari dagokionez, CIDHk kezka handiz adierazi du eskualdeko hainbat herrialdeetan debekatuta dagoela genero-ikuspegiari - gutxiespenez «generoaren teoria eta/edo ideologia» deitu ohi diotena- buruzko materialak zabaltzea eta erabiltzea, batik bat haurren eta nerabeen kasuan.
- Amerikarteko batzordeak aurrerapauso garrantzitsu batzuk identifikatu ditu Amerikako Estatuaren Erakundeko (OEA) kide diren herrialde batzuetan LGTBI kolektiboko pertsonen edo halakotzat hartutakoan eskubideen aitortpenari dagokionez. CIDHk azpimarratu du aurrerapauso horiek LGTBI kolektiboak edo bertako kideek eta haiek babesten dituzten sozietate zibileko erakundeek haien eskubideen alde egindako aldarrikapenen ondorio direla.
- CIDHk adierazi du aurrerapauso horiek eskualde mailan LGTBI biztanleen eskubideak bermatzeko dagoen adostasunaren isla direla. Edonola ere, eskubideon aitortpenean atzera egiteko mehatxuak egon dira eta atzerapauso batzuk ere eman dira, LGTBI eskubideen kontrako sektoreek bultzatuta. Sektoreok hainbeste hazi eta zabaldu dira Ameriketean, ezen gobernu-erakunde eta -instantzietan eragiteko ahalmena lortu baitute.

b. Pertsona atzerritarren aurkakoak

Eraberean elkartearen 2020ko txostenaren arabera, Gipuzkoako sareak artatutako kasuen % 51 migrazioari lotutakoak izan ziren. Salatzaileen % 28,1 latinoamerikarrak ziren eta horietako % 62 18 eta 40 urte arteko gizonak. Diskriminazio-egoera gehienak esparru pribatuan gertatu ziren. Esparru publikoari dagokionez, berriz, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoarekin (% 27,3) eta osasun-arloarekin (% 18,2) dute zerikusia atzerritar jatorriko pertsonen kontrako diskriminazio-kasu gehienak. Lehenak etnia eta arrazarekin lotutako identifikazioekin izan ohi du lotura eta bigarrenak, berriz, osasun-arloko langileekin komunikatzea zailtzen duten hizkuntza-kontuen ondorioz jasotzen duten artarekin.

Lehen aipatutako gorroto-kasuen Euskadi 2021 (2022) txosteneko datuei aipamen eginez, jatorri latinoamerikarreko pertsonen aurkakoak izan ziren aipatutako delitu xenofobo edo arrazisten % 19,14. Gipuzkoan erregistratutako kasuek ere nabarmenki egin dute gora (54 kasu). 2020an laurden bat gutxiago delitu gertatu ziren eta 2021, berriz, herena. Delitu gehienak Irun eta Donostia inguruan gertatu ziren, batez ere bide publikoan, eta atzetik ditu etxebizitza, espazio komunak, aisialdiko espazioak, ostalaritzako espazioak eta merkataritza.



Azterketaren helburua eta aztergaia

Azterketa honen helburua Gipuzkoan kulturartekotasunean eta transfeminismoan oinarritutako elkarbizitza sustatzeko ekarpenak egitea da, sexu- eta genero-aniztasunarekiko ikuspegi interseksionaletik eta tokiko eta nazioarteko ezaugarriak kontuan izanda. Zehatzago esanda, eragile desberdinekin elkarlanean aritzeko gomendioak identifikatu nahi ditugu.

Horretarako, Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleek, bai LGBTI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, LGBTI+ kolektiboarekiko dituzten pertzepzioak ditugu aztergai. Biztanleriaren sektore horretako hainbat ahots, bizipen eta ikuspegi bildu ditugu eta, modu osagarrian eta alderaketa bat egite aldera, bertako LGBTI+ biztanleen pertzepzioak eta bizipenak ere jaso ditugu.

Hipotesia

Azterketari ekin genionean, honako hauek ziren gure hipotesia osatzen zuten elementuak:

- ▶ Horren gauza argia izanagatik aipatu beharrik ez dagoela dirudien arren, ez dugu ahaztu behar Euskadiko biztanleria eta LGBTI+ kolektiboa ez direla homogeneoak, ezta Latinoamerikatik migratu duen eta Gipuzkoan bizi den biztanleria ere. Alde handiak daude euren bizi-ibilbide, uneko egoera, sentimendu


eta ideietan eta, ondorioz, pertzepzio desberdinak dituzte sexu- eta genero-aniztasunaren inguruan.

- ▶ Kulturarteko topaketek (belaunaldi artekoek, landa- eta hiri-eremuetakoek, herrialde artekoek, etab.) ikuspegiak, balioak, epistemologia eta ezagutzak areagotzeko, bizi-aukera gehiagotara zabaltzeko eta mugak gaintzeko espazioak eskaintzen dituzte, bereziki

kulturartekotasunean eta elkarbizitzan oinarritzen badira.

- ▶ Migratzen duten pertsonak, ahal denean, modu autonomoan erabakitzen dute euren helmuga eta nahiago izaten dute gizarte-zerbitzuak eskaintzen eta legearen betearazpena bermatzen dituen botere publiko, bake sozial eta aniztasunarekiko tolerantzia dituen gizarteetara migratu, adibidez, Gipuzkoara. Normalean, lehenago migratu duten eta Gipuzkoan bizi direnen bidez –senideak, herrikideak– izaten dute testuinguruaren berri.
- ▶ Gaur egun, badaude ikerketak frogatzen

dutenak LGTBI+fobia bereziki eskuin-muturrarekin, erlijio-ikuspegi jakinekin eta berdintasunaren eta ekitatearen arloko aurrerapenen kontrako erreakzio zuri eta maskulinoarekin lotuta dagoela. Baliteke jarrera horiek indartzea «ardi beltzaren joera» deiturikoaren bidez; joera horren arabera, soilik –edo bereziki– kolektiboko kideen hanka-sartze eta jarrera zigorgarriak zuzentzen dituzte komunitatetzat hartutako komunitate edo biztanle-taldeek (adibidez, jatorri latinoamerikarrekoek edo herrialde jakin batekoek, bertakoek, LGTBI+ pertsonak edo feministek).



Metodologia

Gure proposamena metodologia kualitatibo bat jarraitzea da, ikerketakoa, testuinguruan kokatua eta jarrera epistemologiko feministan oinarritua. Jarrera hori kritikoa eta politikoa da funtsean eta gizarteko justizia sustatzea eta aldaketa eraldatzaileak aplikatzea ditu helburu. Metodologia honek jakintzaren sortzaile gisa ikusten du bestetasuna, testuinguru sozial, politiko, ekonomiko eta kulturaletik bereizi ezin dena. Ezagutza horrek eta hizkuntzak berak sortzen dute errealitatea.

Azterketa honen diseinuak aukera ematen du, parte-hartzaileen bizipen, pertzepzio eta interpretazioetan oinarrituta, ikergai dugun gizarte-esparruari buruz testuinguruan jarritako informazioa lortzeko.

Hipotesien, ikuspegien eta metodoei buruz

hausnartzeak eta horiekiko jarrera malgua izateak ekidin egiten dute unibertsaltzat jotako ideiak edo pentsamenduak eta ezagutza onargarriak inposatzea eta erreproduzitzea. Aitzitik, periferiak dira ezagutza-ekoizle nagusiak.

Gizarte-fenomeno eta kategoriak hartu-eman sozialen bidez sortzen diren eta, ondorioz, etengabe aldatzen ari diren heinean, ezin dugu behin betikotzat jo ikerketan azaldutako errealitatea. Azkenik, kontuan hartu behar dugu metodologia horrek ikertzaileak elkarlanean aritzera eramaten dituela eta, ondorioz, ikertzaileak ere bere ezagutza aktiboki eta etengabe zabaltzen duela. Aldi berean, bere jarrerak ere eragiten du ikerketa-prozesuan.

PROZEDURAK

Proposatutako helburuei erantzun ahal izateko, lau prozedura erabili ditugu datuak bildu eta kontrastatzeko:

1. Etengabe elkarlanean aritzea AMHER – SOS Arrazakeriarekin (migratuen integrazioarako eta xenofobiaren eta arrazakeriaren aurka Hernanin eta Hernanitik lan egiten duen elkarte), Hiruki Larroxa (ikuspegi transfeminista eta interseksional batetik LGTBI+ kolektiboaren arloan lan egiten duen kooperatiba), Gehitu (Euskal Herriko lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen elkarte) eta Mugen Gaietik (Garapenerako GKE) elkarrekin.

- ▷ Terminologia, ikuspegi orokorra, elkarrizketen gidoia eta txostenaren zirriborroa kontrastatzea.
- ▷ Elkarrizketatzeko pertsona eta kolektiboak identifikatzea eta haiekin harremanetan jartzea.

2. Gipuzkoako LGTBI+ kolektiboaren eta jatorri latinoamerikarreko biztanleen errealitateari buruzko bigarren mailako informazioa biltzea:

- ▷ Berdindu: arreta-zerbitzuaren arduradunarekin eta ikastetxeetarako zerbitzuen tekniko batekin biltzea.
- ▷ Hiruki Larroxa Kooperatibak berariaz azterketarako honako gai hauei buruz egindako ikerketa:
 - ▷ LGTBI+ kolektiboaren eskubideak eta nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko lege-esparrua.
 - ▷ Gipuzkoako egoera: zerbitzuak, programak, erasoak eta laguntza,

erakundeak.

- ▷ Komunitatearen erronka posibleak.

- ▷ Erabereanen, Ertzaintzaren, Berdinduren eta Zurrumurruen Aurkako Sarearen azken txostenak.
- ▷ *Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa. Sexu-eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak* (Ikuspegi) txostena.
- ▷ 2021 Barometroa. Jatorri atzerritarra duten biztanleen inguruko pertzepzioak eta jarrerak (Ikuspegi).

3. Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko pertsonen bakarkako eta taldeko elkarrizketak egitea. Jatorri latinoamerikarreko biztanleak adierazpenak Latinoamerikan jaiotako pertsonak eta beste leku batean jaiotako baina jatorri latinoamerikarra dutenak barne hartzen ditu. Azterketako parte-hartzaileak Latinoamerikan jaiotako dira, era askotako migrazio-prozesuak egin dituzte eta gaur egun Gipuzkoan bizi dira, nahiz administrazio-egoera erregularrean edo irregularrean.

Azterketari dagokionez, jatorri latinoamerikarrekoak ez diren bi pertsona sartu ditugu, Euskadin jaiotako eta Gipuzkoan bizi arren, euren bizitzaren zati handiena Latinoamerikan igarotutakoak.

Bakarkako zein taldeko elkarrizketetan parte hartu duten batzuk elkarrekin kideak dira; hain zuzen, AMHER-SOS Arrazakeria eta Esperanza Latina elkartearen kideei egin dizkiegu taldeko elkarrizketetako bi.

Parte-hartzaileen profilek islatzen dute, neurri batean, Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko biztanleen errealitatea:

gehienak emakumeak dira, bai familia berriro biltzeko prozesuaren ondorioz heldu diren nerabeak, baita lanera etorri diren nerabe edo heldu gazteak ere. Nahiz eta horietako askok ikasketa profesionalak eta/edo goi-mailakoak eduki, zaintzaren eta zerbitzuen esparruetan egiten dute lan. Gehiengo Donostian bizi da. Herrialde desberdinetako pertsonak parte hartu zezaten nahi genuen, Euskadira iristean adin desberdina zutenek, bertan denbora-tarte desberdinez egon direnek, adingabeen ardura dutenek eta ez dutenek, sinestunek eta sinesgabeek. Sexu- eta genero-identitate eta adierazpen ez normatiboak duten bost pertsonak hartu dute parte.

Azkenik, azpimarratu nahiko genuke taldeko elkarrizketetan AMHER elkartearekin lotutako bi emakumek parte hartu dutela. Haiek izan dira azterketan parte hartu duten bertako pertsona zisheteronormatibo bakarrak. Bertako gisa kontatu ditugu.

4. Tokiko LGBTI+ kolektiboekin lotutako genero-disidenteei taldeko elkarrizketak egitea. Azterketaren ardatza jatorri latinoamerikarrek pertsonak LGBTI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioak ikertzea den arren, garrantzitsua iruditu zaigu identifikatzea ea LGBTI+ kolektiboko pertsonak jarrera jakinak bizi edo sentitu dituzten jatorri latinoamerikarrek pertsonen aldetik.

Hauek dira parte hartu duten elkarteak:

- ▷ Ehgam (Euskal Herriko sexu askapenerako mugimendua)
- ▷ Gehituko gazte taldea
- ▷ Loratuz Lotu (Trans helduentzako elkartea)
- ▷ Orio Harro (Orioko LGBTIQ+ taldea)

Elkarte horietako kide bat jatorri latinoamerikarrek da eta gainerakoak, berriz, bertakoak. Pertsona homosexualek, bisexualek eta trans*ek hartu dute parte.

Elkarrizketa guztiak sakonak izan dira eta horietan gidoi erdiegituratu bat erabili dugu, azterketa honekin batera doana. Aski malguak izan gara galderak egiteari eta haien ordenari dagokionez. Horri esker, parte hartzaileek askatasunez kontatu dizkigute euren bizipenak, gai gehiago mahaigaineratu dituzte eta, nolabait, haiek izan dira elkarrizketa gidatu dutenak. Taldeko elkarrizketak, batez ere jatorri latinoamerikarrek biztanleek jarduten duten elkarteei egindakoak, tailer gisakoak izan dira eta parte hartzaileei gehien interesatzen zitzaizkien gaietan jarri dugu arreta.

Elkarrizketak aurrez aurre egin ditugu, bai ikertzailearen lantokian, baita elkarlanean aritu eta parte hartu duten erakundeen espazioetan ere. 50 minutu eta bi ordu bitarteko iraupena izan dute eta 2022ko ekaina eta iraila bitarte egin ditugu. Elkarrizketa guztiak grabatu ditugu parte hartzaileen baimenarekin. Bestalde, jasotako informazioaren analisisian izenak espresuki eta banaka aipatzen ez diren arren, eskertzan euren izena jartzeko baimena eskatu diegu parte-hartzaileei, jakintzaren sorkuntzari egin dioten ekarpena aitortzeko.

Laburbilduz, 52 pertsonak hartu dute parte azterketan:

- ▶ Informazioa kontrastatu eta biltzeko bileretan, zortzik (jatorri latinoamerikarrek hiruk)
- ▶ Elkarrizketetan, 43k (jatorri latinoamerikarrek 29k):
 - ▷ Taldeko zazpi elkarrizketetan:
 - ▷ Jatorri latinoamerikarrek bik, kide diren elkarteen bidez
 - ▷ Jatorri latinoamerikarrek gazte batek

- ▷ Tokiko lau LGTBI+ elkartek
- ▷ Jatorri latinoamerikarreko pertsonen banakako 11 elkarrizketetan:
 - ▷ LGTBI+ kolektiboko hiruk
 - ▷ Zortzi pertsona zisheteronormatibok

ELKARRIZKETETAKO PARTE-HARTZAILEEN PROFILAK

*Migratzerakoan zuten adinaren, Gipuzkoan igarotako denboraren eta jatorriko herrialdearen aldagaiak alde batera utzita, jatorri latinoamerikarreko pertsonen eta bertakoen arabera sailkatu ditugu datuak.

TAULA (4): parte-hartzaileen profilak, genero-identitatearen arabera.

	JATORRI LATINOAMERIKARREKOAK	BER-TAKOAK	GUZTIRA
Ez bitarra	0	2	2
Emakume zisa	23	7	30
Gizon zisa	6	3	9
Emakume transa	0	0	0
Gizon transa	0	2	2
	29	14	43


TAULA (5): parte-hartzaileen profilak, sexu-orientazioaren arabera.

	JATORRI LATINOAMERIKARREKOAK	BER-TAKOAK	GUZTIRA
Lesbiana	2	4	6
Gaya	1	0	1
Homosexuala (gizona)	1	1	2
Marikoia	0	2	2
Bisexuala	2	4	6
Androssexuala	0	1	1
Ez dakit	0	1	1
Ezagutza-prozesuan	1	0	1
Heteromalgua	1	0	1
Heterosexuala	21	1	22
	29	14	43


*Hemen adierazitako kategoriak dira elkarrizketatuek euren burua definitzeko erabiltzen dituztenak. Hala ere, aipatu behar dugu, jatorri latinoamerikarreko pertsona heterosexualetako bostek ez dutela hala direla adierazi: «emakumea, besterik gabe, normala», «emakumea, gizon edo emakume izate horretan», «mutil batekin ezkonduko emakumea», «mutila», «emakumea» direla adierazi dute. Halaber, beste batek «oraingoz heterossexuala» dela adierazi du.

Azpimarratu behar dugu pertsona homosexual eta bisexualen arteko mugak ez dira horren garbiak. Honela definitu dute euren burua: «batzuetan bisexuala den lesbiana, baina harreman garrantzitsuak beti emakumeekin izan dituen», «gizon homosexuala, bisexual ez praktikatzailea», «bikotekide lesbiana duen emakume bisexuala».


1. GRAFIKOA. Parte-hartzaileen adina.




2. GRAFIKOA. Parte-hartzaileen profila, ikasketen arabera..



3. GRAFIKOA. Parte-hartzaileen profila, lan-egoeraren arabera.




4. GRAFIKOA. Parte-hartzaileen profila, elkarreetako parte-hartzearen arabera⁹.




⁹ Elkarreetan parte hartzen duten bertakoen kopurua altua da LGBTI+ entitateekin lotutako pertsonen lagina hartu dugulako.


5. GRAFIKOA. Jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen profila, Gipuzkoan igarotako denboraren arabera.




6. GRAFIKOA. Jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen profilak, Gipuzkoara iritsi zirenean zuten adinaren arabera..




7. GRAFIKOA. *Jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen profila, jatorrizko herrialdearen arabera.*



8. GRAFIKOA. *Parte-hartzaileen profila, bizilekuaren arabera.*



9. GRAFIKOA. Kristautasunean/katolizismoan sinesten duten parte-hartzaileen profilak.



MUGAK

Jakin badakigu aurkezten ari garen azterketa honek muga batzuk dituela.

- ▶ Ikertzaileak: subjektibotasuna eta zilegitasuna. Pertsona orok dauka bere ikuspuntua harremantzeari eta mundua ulertzeko moduari dagokionez. Ildo horretatik, ikertzaileek ere euren ikusmoldea aplikatzen dute behaketak eta azterketak egiterakoan, ondorioak ateratzerakoan eta gomendioak proposatzerakoan. Ikusmoldeok pribilegio eta zapalkuntzetatik, bizi-ibilbidetik eta (des)jikasitakotik abiatuta eraikitzen dira. Sorginlore elkarteak pedagogia feministetan eta kulturartekotasunean oinarritzen du bere lana eta ikuspegi parte-hartzaile bat erabiltzen du kolektibotasunetik eraikitzeko. Ildo horretatik, nahiz eta ikertzaile nagusia hainbat inguru geografiko eta kulturaletan bizi izan den eta bere burua bertako eta Latinoamerikako herri-mugimendu eta feministetatik abiatuta kolektiboki eraiki duen, pertsona heterosexuala da, ez arrazializatua eta migrazioa kokaleku pribilegiatu batetik bizi izan duena. Beharrezkoa iruditu zaigu euren lana aztergai ditugun gaietan ardatzen duten erakundeekin elkarlanean aritzea eta informazioa haiekin kontrastatzea.
- ▶ Parte-hartzaile kopurua: ordezkagarritasuna, aniztasuna eta orokortzeak. Azterketak kualitatiboki lantzen du gaia eta, horretarako, banakako zein taldeko elkarrizketa kopuru jakin batean oinarritzen da. Zentzu horretan, ezin ditugu lekukotzak orokortu ezta estrapolatu ere, haiek aztertu besterik. Parte-hartzaileei dagokienez:
 - ▷ Lehen aipatu bezala, nahiz eta adinaren, jatorrizko herrialdearen/

eskualdearen, migrazio-prozesuaren eta sexu- eta genero-identitatearen inguruko alderdiak orokortzen saiatu, argi dago ez dela posible bertako LGBTI+ pertsonen edo Gipuzkoan bizi diren pertsona latinoamerikarren askotariko profilak eta baldintzak barne hartzea. Alderdi batzuetan jarri dugu arreta, pentsatu baitugu mintzagai dugun gaiaren inguruan bereziki eragin zezaketela. Lekukotasunetan ere alderdi batzuk nabarmendu ditugu beste batzuen gainetik.

- ▷ Elkarrekin eta/edo talde antolatuei lotutako pertsonen eman diegu lehentasuna, bai LGBTI+ kolektiboko pertsonen kasuan, bai jatorri latinoamerikarrekoen kasuan. Bigarren talde hori emakumez osatuta dago gehienbat.
- ▷ Elkarrizketatutako jatorri latinoamerikarrek pertsona gehienak heterosexuala definitzen dira eta ikuspegi nahiko irekia dute sexu- eta genero-aniztasunarekiko. Atzeritar talde batek elkarrizketarik ez egitea erabaki zuen, gaiak kideen artean polemika sortzen zuelako eta haien lehentasunik ez zuelako. Hainbat arrazoi direla medio, ezin izan dugu LGBTI+ kolektiboko hiru pertsona latinoamerikarrek elkarrizketarik egin.

Datuak aztertzeko marko kontzeptuala

Azterketaren sorrera, plangintza, garapena eta analisia honako ikuspegi hauetan oinarritzen dira:

Interseksionalitatea

Interseksionalitatea feminismitik sortutako ikuspegi bat da; zehazki, AEBko emakume arrazializatuek sortu zuten euren bizipenetatik abiatuta, fenomeno arazo gisa ikusten hasi zirelako. Kategoria sozialak nola gurutzatzen eta eratzen diren eta interseksio horiek zapalkuntzekin eta pribilegioekin lotutako bizipen jakinetan nola eragiten duten aztertzeko eta ulertzeko tresna bat da. Kategoria horietan ezaugarri eta egoera pertsonalak, testuinguruaren elementu estrukturalak eta sistemaren zapalkuntza-ardatzak barne hartzen dira.

- ▶ Kolektiboak talde homogeenak direlako ideia bazterten du.
- ▶ Azaltzen du nola izan daitezkeen bakoitzaren subjektibotasuna eta lekua aldi berean pribilegio- eta zapalkuntza-egoeren ondorio.
- ▶ Zalantzan jartzen du ohikotzat edo normaltzat hartzen dugun errealitatea.
- ▶ Botere-harremanak aztertzen laguntzen du.
- ▶ Eraldaketaarako elkartasun-aliantzak identifikatzen eta eratzen lagun dezake.

Kulturartekotasuna

Kulturarteko ikuspegiaren helburua politikoa da, gizartearen kultur aniztasunetik (ez soilik etnizitateari eta/edo jatorri-aniztasunari dagokionez) abiatuta sintesi kultural berri bat garatzeko helburua duena, lurralde eta testuinguru sozioekonomiko berari lotutako gu bat sortzekoa, non alderdi guztiak islatuta sentituko diren, diskriminaziorik gabe eta elkarrekiko mendekotasunaren jakitun.

Horregatik, prozesu dinamiko eta amaitu gabeko gisa planteatzen da, honako hiru printzipio hauetan oinarritzen dena:

- ▶ Aniztasuna ez da ikuspegi bat, errealitate bat baizik; ez da pertsona desberdin bat, gizarte osoa baizik. Gu guztioi lotuta dago, ez da gainerako pertsonak, arautik kanpo daudenek, besteek, arrotzek edo atzerritarrek –eta, ondorioz, gure balioak, ohiturak, identitateak eta antzekoak galtzearen edo murriztearen arduradun egiten ditugunek– daukaten zerbait.
- ▶ Desberdintasunak ahalik eta modu positibo eta baketsuenean negoziatzea, pertsonen, taldekideen eta taldeen arteko elkarrizketan, mugimenduan, hartu-emanen eta interrelazioetan oinarrituta eta kode eta esperientzia partekatuen sorkuntzatik abiatuta.
- ▶ Kulturaren, diskurtsoaren eta teoriaren alderdiak alderdi material eta praktikoekin

lotzea, elkarrizketa zein elkarbizitza egiaz horizontalak eta bidezkoak izan daitezten. Politikak modu parte-hartzailean definitzea, baliabideak banatzea, aukerak sortzea, identifikatutako arazoei irtenbide bateratu bat ematea, eskubideak erabiltzeko aukera bermatzea, etab.

Transfeminismoa eta feminismo dekoloniala

Gaur egungo botere-harremanak bidegabeak eta sistema ekonomikoaren mendekoak dira. Gorputzen, subjektibotasunen eta herrien hierarkietan oinarritzen dira eta, aldi berean, haiek erreproduzitzen dituzte. Botere-harreman horietan implizituak dira arrazakeria, matxismoa eta LGTBI+fobia eta paper garrantzitsua betetzen dute hierarkizazio horren parametro gisa. Ildo horretatik, transfeminismoaren eta feminismo dekolonialaren ikuspegiak aukera ematen dute gaur egungo erronkak modu egokian eta osotasunez ulertzeko eta lantzeko.

- ▶ Erakusten dute zisheteroaraua eta kolonialitatea bezalako zapalkuntzek ez dietela soilik kolektibo jakin batzuei soilik eragiten, baizik eta, matxismoa eta horri lotutakoen antzera, estrukturalak direla eta gizartearen alderdi guztietan eragiten dutela; besteak beste, harremantzeko eta antolatzekeo dinamiketan, bizi-proiektuen forman, sexualitatean, ahotsen, jakintzaren eta espiritualtasunaren balioespenean, bakoitzaren eta taldeko muga eta arduren onarpenean, etab.
- ▶ Modu paraleloan egiten ziren diskurtso eta pedagogia kritikoak eta borrokkak lotzen dituzte. Horretarako, analisiari konplexutasuna ematen diote, gorputzak erakusten eta subjektuak berrikusten dituzte, desberdintasunen jatorria azpimarratzen dute eta arrazen, generoen

eta zisheteroarauaren testuinguruan jarritako eraikuntzaren balioa eta zisheteroarauak hegemoniari, pribilegioei eta diskriminazioari ematen dion zilegitasuna nabarmentzen dute.

- ▶ Indar eraldatzailea areagotzen dute eta disidentziak sustatzen dituzte eta aukera ematen dute elkarrekin imajinatzeko, esploratzeko eta ikasteko eta ekitatea eta indarkeriarik gabeko bizimodu bat eraikitzekeo politika, estetika, adierazpen, gorpuztasun, komunitate, ekonomia, komunikazio eta sexualitateak sortzeko.

Elkarrizketen azterketaren emaitzak

1. Ezagutza orokorra

Abiapuntu gisa, eta erantzunak beheko blokeetan banatu ahal izateko, beharrezkoa iruditu zaigu parte-hartzaileei LGBTI+ terminoaren inguruan galdetzea, baita azterketa honetan gurutzatzen diren eta gure bizitza itxuratzen duten heteroarau eta kolonialtasun terminoen inguruan ere. Maila teorikoan zein bizipen-mailan duten ezagutzaz galdetu diegu. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditu zaigu, halaber, parte-hartzaileen sare afektiboetan eta harreman-sareetan LGBTI+ kolektiboko, jatorri latinoamerikarreko eta bertako pertsonarik dagoen zehaztea.

—

LGTBI+

Jatorri latinoamerikarreko 12 pertsonak eta bertako 12k dakite terminoak zer esan nahi duen eta zein kolektibori egiten dien erreferentzia. Bertako bi pertsona zisheteronormatiboek eta jatorri latinoamerikarreko 17k ezagutzen dute terminoa eta siglaren letra batzuen esanahia, baina Q eta I letrekin nahastu egiten dira eta ez dakite ziur zer esan nahi duten. Kolektibo ezezagunena pertsona intersexualena da. Termino ulergaitzenak ez bitartasuna, queer eta

genero malgua dira. Ez dute ulertzen + ikurrak zer adierazten duen. Genero-identitate eta sexu-orientazioaren arteko desberdintasuna ere ez da argia.

- «**Oso konplexua da**», «zertarako hainbeste etiketa?», «kategoria gehiegi daude», «**termino berria da, baina betidanik egon da gizartean**».

—

HETEROARAU

Gipuzkoako LGBTI+ kolektiboaren erakundeekin lotutako 12 pertsonen ezagutzen dute kontzeptua eta haien egunerokotasunean eragiten duela adierazi dute. Jatorri latinoamerikarreko pertsonetako bostek ere ezagutzen dute («normaltasun heteropatriarkala»). zazpi pertsonen ez dute terminoa ezagutzen, baina, behin azalduta, badakite zer den: «normala dela uste dutena», «txikitatik sinetsarazten digutena, heteroak izan behar dugula, basikoen antzera». 12 pertsona horietatik zortzik adierazi dute heteroarauak eragiten diela eta lauk, ordea, ezetz. Azpimarratu nahi dugu heteroarauak eragiten ez diela adierazi dutenen % 75 gizonak direla: «ez dit eragiten, ez dut hala pentsatzen eta ez dut presio gisa ikusten», «ez dut uste, aita

izan zen josten irakatsi zidana», «arauak bost axola dit».

Heteroarauak egunerokoan eragiten diela adierazi duten jatorri latinoamerikarreko zortzi emakumeek –bai LGTBI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek– honako lekukotza hauek partekatu dituzte gurekin:

- ▶ «Neure gain hartu ditut haurren, emozioen kudeaketaren eta antolaketaren ardura. Ageriko alderdi zehatzagoak erraz banatzen ditugu bikotekideak eta nik; ikusten ez diren horiek, berriz, ez hainbeste, baina kontzientzia hartzen ari naiz pixkanaka».
- ▶ «**Haurrak hezterako orduan rolen eskema jakin bat dago.** Nik neuk ere ikusten ditut nigan harritzen nauten jarrerak: semeak negar egiten duenean, ausarta izateko eskatzen diot, maskulinitateari lotuta; alaba behar bezala esertzen ez denean, esaten diot neskek ez dutela hori egiten. Ikusi eta zuzendu egiten dut».
- ▶ «Kezkagarriagoa iruditzen zait **eskoletan jasotzen dutena.** 13 urteko semeak esaten dit marikoi deitzea dela okerrena. Eta alaba gazteagoari, ordea, esaten diote mutil-/neska-lagunak generoaren arabera izan behar duela».
- ▶ «Erabat eragiten dit. Ikuspegi zabala daukat eta ezin ditut jasan emakume, sexu ahul, arrosa eta halako gisa identifikatu nahi nauten etiketak. Betaurreko moreak jantzi ditut, lehendik ere soinean neramatzan...».
- ▶ «Bizi-proiektuan eragiten dit orain: 32 urte ditut eta dena dago **bikotekidea, etxea eta seme-alabak** edukitzeari bideratuta. Lagun gehienak horretan daude eta gehienek bikotekide heterosexuala dute».

Jatorri latinoamerikarreko pertsonekin

egindako taldeko elkarrizketetan ez diegu kontzeptuari buruz zuzenean galdetu. Taldeko eta banakako elkarrizketan aipatu dute heteroarauak jatorriko herrialdeko gizon eta emakumeen despareko bizitzetan eta trans* pertsonen inguruko imajinarioan eragiten duela:

- ▶ «**Aitak hala inposatzen zuen.** Bakoitzak bere postua, rola eta zereginak zituen familian».
- ▶ «Oso zaila zen emakumea izanda elektrizitate-teknikari gisa lan egitea; enpresek ez zaituzte lanerako hartzen, uste dute ez duzula ongi egingo».
- ▶ «**Frustrazio politikoa** da. Gobernuz aldatuta ere, ez da ezer aldatzen».
- ▶ «Nire familia atzeratua eta pobrea da, landatarra. **Ezkondu arte birjina izan behar genuen eta hori guztia... nekagarria da.**».
- ▶ «Koinata hil zenean, bere semeak negar egiteari uzteko agindu zion nire anaiari, gizona zela...».
- ▶ «**Han emakumea gizonarena da,** berak agindutakoa egiten duzu. Etengabe ari dira “ea aitak zer iritzi duen”, “ea senarrari zer iruditzen zaion”...».
- ▶ «Sexismoa bizi izan nuen, emakumeek egin ohi dutena egiten nuelako. Semea zaindu, etxeaz arduratu... **Bikotekideari esaten zioten ez zela behar bezain emakume,** ez ninduela zaintzen, berak agintzen zuela».
- ▶ «Nire herrialdean emakumeak ugalketalanak egiten ditu eta etxean gelditu behar du; **ilea mozten baduzu, iraultzaile edo lesbianatzat hartzen zaituzte.**».
- ▶ «Familiak pentsatuko duenarekiko beldurra da, aitak batez ere. Ez ditu piercing-ak eta tatuajeak atsegin eta

LGTBI+ kolektibokoa zarela esaten badiozu... ohorea galtzea bezalako da, muga gainditzea, eta bota egiten zaituzte».

- ▶ «Izeba bat, lehenik lesbiana zena eta gero transa, haurdun geratzera eta ama izatera behartu zuten».
- ▶ «Han baztertu egiten dira lesbiana ematen duen emakumeak. Zaila da lana aurkitzea; piercing-ik edo tatuajerik baduzu, ez zaituzte onartzen. Ile motza baduzu eta makillajerik erabiltzen ez baduzu, ez zara femeninoa, eta **lesbiana eta delitugiletzat jotzen zaituzte**».
- ▶ «Nire herrialdea oso matxista da. LGTBI+ kolektiboko jendeak ezin du nahieran bizi. Esango nuke haien kontrako indarkeria gehiago dagoela emakumeen aurkakoa baino».
- ▶ «Leku askotan (LGTBI+ kolektibokoa izatea) **gaixotasuntzat daukate** oraindik».
- ▶ «Hango trans pertsonak arriskutsuak dira. Lapurretak egiten dituzte, auzo jakinetan ibiltzen dira...».
- ▶ «Trans pertsonak **perbertitu eta marjinal gisa ikusten dira**».

Sexu-orientazioa eta sexu- eta genero-identitatea adierazteko aukeraren atalean sakonduko dugu bizipen horietan.

- ▶ «Heteroa naizela auresuposatzen dute. Nerabezaroan gaizki ikusita dago heterosexuala ez izatea. Behin eta berriz errepikatu behar duzu eta badirudi hori egitera behartuta zaudela jendeari beste aukera batzuk daudela ikusarazteko».

Sexu-orientazioa eta sexu- eta genero-identitatea adierazteko aukeraren atalean sakonduko dugu bizipen horietan.

Diskurtsoaren Gakoak: LGTBI+ eta Heteroaraua

- LGTBI+ terminoa ezagutzen dute orokorki.
- *Intersexualitatea, queer eta ez bitarra* terminoak ez dituzte ezagutzen eta nahastu egiten dituzte.
- Ulertzen eta aitortzen dute heteroarauak egunerokotasunean duen papera. Gizon hetero sexualen kasuan, gutxiagok.
- Jatorri latinoamerikarreko pertsonak argi ikusten dute genero-erolek eta estereotipoek haien jatorrizko herrialdeetan duten pisua.
- Jatorri latinoamerikarreko pertsonen jatorrizko herrialdeetako imajinarioak dio femininotzat hartutako genero-adierazpena jarraitzen ez duten emakumeak lesbianak eta/edo iraultzaileak direla eta trans pertsonak, berriz, delitugileak eta perbertituak direla.

—

KOLONIALITATEA

Bertako LGTBI+ pertsonen erdiak ezagutzen du terminoa («duela urte batzuk indar handiz sartu zen diskurtso hori gure ingurunean»); beste erdiak, berriz, ez. Haien egunerokotasunari eragiten ote dion galdetzean, batzuek uste dute ez duela eragin material zuzenik. Beste batzuen iritziz, haien kulturaren errotutako oinarriak dira eta inkontzienteki funtzionatu ohi dute. Hiru pertsonak nabarmendu dute

beharrezkoa dela zurtasunetik eraikitako pribilegioa, izaera eta harremanak aztertzea, baita zein neurritan baztertzen duen euskal nazionalismoaren narratibak alderdi kolonial eta inperialista. «Edonon zara zuri, zurekin daramazu. Errealitate ukazina da; batzuek besteek baino kontzientzia-maila altuagoa dute». **«Ez zara horretaz ohartzen pertsona arrazializatu batek zerbait idazten duen arte. Orduan identifikatzen duzu; zurtasunetik».**

Gure ingurunean ikusezintasuna areagotzen duten espazio bereizi batzuk daudela hauteman dugu: emakume arrazializatuak zaintzarekin lotutako arloetan, gizonak lanean (banaketan, kargan...), **«baina gero ez ditut ikusten, ez dakit non harremantzen diren, non sozializatzen duten... Trenean bakarrik ikusten ditut, atentzio handia ematen dit».** «Herrian ez ditugu ikusten; badakigu hor daudela, baina eskola publikora joatean ohartu nintzen mundu paralelo bat zela; irla txiki batera nindoala iruditzen zitzaidan».

Jatorri latinoamerikarreko pertsonetako seik ezagutzen dute kontzeptua. Gainerakoek ulertzen dute, behin azalduta. Nahiz eta batzuek esan ez diela eragiten –«axola ez zaielako» edo normalizatu egin omen dutelako–, elkarrizketetan denek eman dizkigute bizipen arrazista eta xenofoboan adibideak:

GAITZESPENA

- ▶ «Tratu berezia jasotzen dugu pisuak alokatzean, lanean...»
- ▶ «Lanean, paziente batek esan zidan ez zuela nik zaintzerik nahi eta, orduan, joan egin nintzen».
- ▶ «Boluntariotzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan ere entzuten dira diskurtso oso arrazista eta itsusiak».
- ▶ «Hemengo jendeak uste du

latinoamerikarrak biolentoagoak direla eta, beltzaranak badira, are gehiago; irain eta mespretxu asko jasaten ditugu, gauzarik okerreana bagina bezala tratatzen gaituzte».

- ▶ «Lehen Munduko herrialde batera etortzea eta atzerritarrak gure herrialdera turismoa egitera joatea ez dira gauza bera».
- ▶ «Araua haustearekin lotutako jarrera batzuk ulertezinak dira: nik egiten badut, “hori da hori azal lodia”; hemengoek egitea, berriz, ongi ikusia dago. Laguntzarik jasotzen badut, “kanpotarrek soilik erabiltzen dituzte, aprobetxatu egiten dira”».
- ▶ «Zerbitzari gisa egiten dut lan eta egiten dizkidaden txantxek ez didate graziaz egiten. “Burutik behera maionesa botatzen baduzu agian zurituko zara”. Halako komentarioak egiteak ez luke posible izan behar».

JABETZA ETA PURUTASUNA

- ▶ «Lankide batek esan ohi dit: “gure herrialdera migratzen duzuenak...”. Nik erantzuten diot herrialdea ez dela berea».
- ▶ «Iritsi nintzenean gehiago begiratzen nindutela iruditzen zitzaidan, kanpo sentitzen nintzen; gaur egun ez ditut begirada horiek ikusten edo, hemen funtzionatzen duten moduan aritzen naizenez, ez naiz nabarmentzen».
- ▶ «Hau esaten didate: “zuek bezalakoa da, zuen herrialde horietakoa”».
- ▶ «*Sudaka* deituz iraindu naute. Euskaldunentzat purutasuna garrantzitsua da; “gutxi gara bertakoak”».
- ▶ «Orain ohartu naiz baietz, konturatzen hasi naiz hemen hazi naizenez mendebaldeko ohiturak hartu ditudala. Ez

dakit zehazki zertan eragin didan, baina gauza batzuk alde batera utzi ditut onar nintzaten. Txantxez jabetzen hasi naiz, jatorriari buruzko galderez, euskara hitz egiteak eragiten duen harri duraz...».

- ▶ Tabernan beti ikusten naute kanpotar gisa. Gaur egun, *panchitoa* naizela esaten dut aldarri gisa».
- ▶ «Epaitu egiten zaituzte: “ez zara hemengoa”. Gutaz hitz egiten dute, baina...».
- ▶ «Europak inklusioaren aldeko diskurtso bat dauka. Zer da gizarte-inklusioa? Zu zeu zara, zarena izateko askatasuna duzu... Europako praktika eta jarrerak beste kontu bat dira».
- ▶ «Gureak ez diren etiketak oso erraz jartzen ditugu».
- ▶ «Bertako LGTBI+ pertsona batek ere halako zerbait adierazi du: “kritikatu egiten ditugu integratu nahi ez dutelakoan, baina, ematen al diegu horretarako aukerarik?”».

JAKINTZAREN BALIOA

- ▶ «Ikasterakoan ere, esaten duzunak ez du baliorik beste epistemologia batzuetatik bazatoz».
- ▶ «Arlo akademikoan eragiten dit, ez dituzte nire ikasketak balioesten».
- ▶ «Pertsona arrazializatua izateagatik jarrera paternalistak jasaten nituen unibertsitatean; bertikaltasunetik hitz egiten zidaten: “zuk esperientzia gogorak bizi izan dituzu; ni ondo nago, eskua luzatuko dizut laguntzeko”. “Venezuelakoa? *Arropa eta janaria nola lortzen zenituen?*” Ikasketa-maila ona duzula frogatu behar duzunez, euskaraz gauza pare bat esan eta, “*ai, euskaraz dakizu!*” esaten dizute. Ikuskizunarekin amaitu nahi duzu, ez

dagokizu inor entretenitzea».

- ▶ «Modu positiboan ere esaten dizute: “*kontxo, latinoaz zara eta euskaraz dakizu! Ezinezkoa dirudi!*”».
- ▶ «Kuotak betetzeko edo argazkirako erabiltzen zaituztela ematen du. Horregatik, parte hartzen dudanean ahalegin handiagoa egiten dut argi uzteko kanpotarra izatea ez dela ni hor egoteko arrazoia eta nik ere pentsatzeko gaitasuna dudala».
- ▶ «Komunikatzeko beharrezkoa da kode desberdinak hautematea eta pertsona eta herri bakoitzak gauzak nola ulertzen dituen jakitea, gaizki-ulertuak ekiditeko».

BERDINTASUNAREN ISPILATZEA

- ▶ «Gizarte hau horren modernoa eta irekia bada eta gu, ordea, horren primitiboak, zergatik jasaten ditugu genero-bidegabekeria eta -inposaketak egunerokoan? Lan bila joan eta, edozein trebetasun edukita ere, “emakume latinoamerikarrak zertara datoz?” Etxeak garbitzera, eta gizonak, berriz, kargatzera. Generoaren auzia ez da ongi jorratzen ari. Teoria ugariren inguruan hitz egiten da, baina geuk bizi egiten ditugu halako egoerak. Zein teoriez ari gara? Emakumerolaren arabera bideratzen gaituzte, ez paperak edukitzeagatik: gizon eta emakumeen rola arrazializatuta daude».
- ▶ «Migratzaileek kultura matxistagoak ekartzen dituztelako aurreiritzia dago. Ez dut uste bertan dagoena baino gehiago ekartzen dugunik. Denok gara matxistak, orokorrean, nahiz eta Gipuzkoan biztanleen eta instituzioaren aldetik errespetuz begiratzen zaion LGTBI+ kolektiboari eta aurrerapausoak eman diren. Aski kultura aurreratua da

ingurukoekin alderatuta, baita Madrilekin ere. Koloniatik (herrialde eskuindar, patriarkal eta matxista) datozenek estereotipo matxistak ekartzen dituzte, gizarte hartatik datozelako. Ez da AEB baino matxistagoa. Kanadan marka guztiek bereizten dituzte nesken eta mutilen pixoihalak...».

- ▶ Bertako LGBTI+ pertsona batzuek ere horren inguruan hausnartu dute:
 - ▷ «Gizarte irekiagoa daukagu, baina baita dikotomia eta muturreko iritzi gehiago ere. Aniztasunak gora egin ahala, erreakzioek eta beldurrak ere gora egiten dute. Eta orduan, pertsona migranteak hartzen dira erruduntzat: “ez da nire errua, haiena baizik”. Inoiz ez diozu errua zure buruari botatzen. Europarrek kolonizatu eta kultura kristaua utzi zuten, haien kulturak deus ere balio ez duela esan zieten eta orain, lanera datozenean ere, haiek dira gaiztoak? Kopeta behar da!».
 - ▷ «Hemen pentsatzen/ulertzen dena ere aski berdintsua da. Erreferentek falta dira. 80ko hamarkadan hasi ziren pertsonaia famatuak –lehenik, gayak– armairutik ateratzen. Ez zitzairen erraza egin: pederastia-akusazioak, sorgin-ehiza... Lelokeria da pentsatzea migrazioa dela hemen berdintasun falta egotearen arrazoa. Azaletik, badirudi askatasuna eta aukerak daudela, baina ez dugu bizipenetan sakontzen».
 - ▷ «Diskurtso matxista eta LGBTI+fobikoaren jatorria kanpotarren jartzen saiatzen gara eta ez da egia».

Jatorri latinoamerikarreko pertsona

zisheteronormatibo batzuen lekukotzek mahaigainean jartzen dituzte migrazio-prozesuen arrazoiak eta balantzea, kontzientziatik eta arrazoibidetik abiatuta:

- ▶ «Herrialde guztietan giza eskubideak errespetatuko balira, ez lirateke hainbeste migrazio-mugimendu egongo. Zergatik lekualdatu? Egoera burokratiko horiek bizitzeko? Baina mundua ez da bidezkoa».
- ▶ «Handik atera diren pertsonak ahaldundu egin dira. Atera dira! Migrazio-prozesua egiten ausartu dira!».
- ▶ «Hemen egotea ere ondo dago, neurri batean. Familia gainetik kentzea, urrutitik ikustea, ikasketei etekina ateratzea... Merezki duela iruditzen zait».
- ▶ «Matxismoak ito egiten ninduen; handik irtetea askatzailea izan zen».
- ▶ «Bakoitza garena izan gaitezkeen gizarte batean bizi nahi dut».

Diskurtsoaren Gakoak: Kolonialtasuna

- Kolonialtasunaren kontzeptua erdizka ezagutzen dute.
- Beharrezkoa da euskal biztanleen artean zurtasunetik eraikitako sistema-mundua modu kontzientean eta etengabe aztertzea.
- Jatorri latinoamerikarreko pertsonen arrazismoarekin eta xenofobiarekin lotutako esperientzia gogorak bizi dituzte: arbuioa (lanaren eta etxebizitzaren arloetan, biolentoak izateagatik eta zerbitzuez aprobetxatzeagatik egiten dituzten txantxetan...),

betiko kanpotarra izatea, aintzat hartzen ez diren ezagutzak, paternalismoa.

- **Berdintasunaren ispilatzea: genero-rolak arrazializatzen dira lan-banaketaren bidez eta diskurtso matxista eta LGTBI+fobikoa atzerritarren berezko diskurtsoa delako ideia zabaltzeko ahalegina egiten da.**

AFEKTIBITATE- ETA HARREMAN-SAREAK:

Elkarrizketatutako pertsonen harreman-sareei dagokionez, honako datu hauek bildu ditugu:

TAULA (6): lan-inguruneetako pertsonen jatorria eta LGTBI+ pertsonen presentzia.

	Jatorri latinoamerikarra*	Bertakoa	Guztira
Harreman-inguruneetako jatorri-aniztasunari dagokionez			
Batez ere jatorri latinoamerikarrek	4	0	4
Batez ere bertakoak	2	8	10
Mistoa edo jatorri askotarikoa	12	6	18
Guztira	18	14	32
Harreman-inguruneetako sexu-aniztasunari dagokionez			
LGTBI+ pertsonak bai	21	12	33
LGTBI+ pertsonarik ez	8	2	10
Guztira	29	14	43

*Jatorri latinoamerikarrek pertsonen taldeko elkarrizketetan ez genien egin harreman-ingurune mistoei edo ingurune batez ere latinoamerikarrei buruzko galdera; beraz, emaitza 18 da 29 beharrean.

Ikus dezakegu jatorri latinoamerikarrek pertsona gehien inguruneak mistoak direla jatorriari dagokionez. Izan ere, «lagunartekoak eta herrikoak dira», «haurren ikastetxearen bidez», «lanagatik», «gehiengo bertakoa da, baina noizean behin hona etortzen diren herrikideekin ere elkartzen naiz»...

Haien harreman-ingurunea batez ere migrantez osatuta dagoela adierazi dutenen % 75 emakume gazteak dira, familia berriro elkartzearen ondorioz bigarren hezkuntza ikastera etorri direnak. Ikastetxean ikaskideak atzerritarrak izaten dituzte gehienbat. Datu horrek kontrastatu egiten du nagusiki bertako pertsonen osatutako harreman-ingurunea duen jatorri latinoamerikarrek pertsona baten kasuarekin. Duela 20 urte heldu zen eta atzerritar gehiagorik ez zegoen ikastetxe batean ikasi zuen haur hezkuntza. Bistakoa denez, Gipuzkoako migrazioaren egoera eta hezkuntza-sistemaren jarrera aldatu egin da denbora-tarte horretan.

Bertako pertsonen erantzunen kasuan, bertako biztanleen % 42,8k adierazi du euren harreman-inguruneak mistoak edo jatorri askotarikokoak direla. Informazio hori ez dator bat Neurtu 2021 txosteneko datuekin; izan ere, datuon arabera, euskal biztanleen % 83k ditu jatorri atzerritarrek ezagunak eta lagunak. Baietz adierazi dutenek arlo horretan aktibo dauden elkarrekin jarduten dute eta/edo gertuko jarrera proaktiboa dute migrazio-prozesuak egin dituzten pertsonetik. Kuadrilla mistoak dituenik ere bada. Batzuek adierazi dute atzerritar gehiagorekin harremanetan zirela hiri handiagoetan bizi zirenean eta haiekiko harremana ere gertukoagoa zela. Gainerakoek

adierazi dute honela harremantzen direla atzeritar jatorriko pertsonekin: «bezeroren baten bidez», «lan egiten dudan ikastetxean», «amonaren zaintzailea».

LGTBI+ kolektiboko pertsonetikiko harremanari dagokienez, datuak bat datoz Neurtu-ren txostenean jasotakoarekin (lesbiana, gaya edo bisexuala den ezagun edo lagunik izatearen inguruko indizea): % 76,1. Pertsona trans eta intersexualekin gertuko harremanik duten berriaz galdetu ez diegunez, ezin dugu berretsi zifra txosteneko indizeekin bat datozen (trans pertsonetikiko gertutasuna edo laguntasuna: % 23,4; intersexualekikoa: % 7,2).

Jatorri latinoamerikarreko pertsonekin izandako elkarrizketetan ikusi dugu haiekin harremantzen diren LGTBI+ kolektiboko pertsonak latinoamerikarrak direla gehienbat, ez bertakoak. Besteak beste, hau adierazi dute: «nire lagun baten ahizpa transa da, nire lagunak gayak dira», «izeba zahar lesbiana bat», «pisukide bat gizon sentitzen da eta hala adierazten da, neska-laguna dauka», «nire semearen ikaskide batek bi ama ditu», «bikote homosexual ezagun asko», «ahizpa lesbiana bat», «orain ahizpa dudana anaia, hemen aldatu zuen izena», «emakumez jantzi nahi zuen iloba bat, orain aske da AEBetan», «12 lehengusu, denak gayak!», «nire pisukidea gaya da», «gelan trans pertsona pare bat dugu», «nire iloba neska da dagoeneko, baina han ezin izan du legalki aldaketarik egin», «nire alabaren izeba bat betidanik da lesbiana».

Pertsona intersexualei dagokionez, erabateko ezjakintasuna dago eta inork ez du aipatu intersexuala den inoren gertukoa denik. Intersexualitatearen muturreko ikusezintasun hori ohiko kontua da. Gipuzkoako LGTBI+ pertsonen errealitateari buruzko diagnostikoan (2018), adibidez, ezin izan zuten pertsona intersexualik elkarrizketatu.

Bertako parte-hartzaileen kasuan, ez dugu ahaztu behar % 85,7 LGTBI+ kolektiboko kide direla. Ondorioz, haien afektibitate- eta harreman-sareak ere LGTBI+ pertsonen osatuta daude. Dena dela, % 58k soilik ezagutzen du kolektiboko kide den atzeritarren bat.

Bestalde, parte hartu duten jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsonen % 50k adierazi du haien harreman-sarea ez dagoela kolektiboari lotuta: «nire inguruan ez dut inor ezagutzen», «nire ingurua heteroa da nagusiki», «han bai, baina hemengo ingurunean ez».

Diskurtsoaren Gakoak: afektibitate- eta harreman-sareak

- Jatorri latinoamerikarreko pertsonen inguruneak mistoak dira nagusiki jatorriari dagokionez. Familia berriro elkartzeko prozesuetan daudenen eta bigarren hezkuntza ikasten ari direnen kasuan, berriz, ez mistoak.
- Bertako LGTBI+ pertsonen inguruneak ez-mistoak dira nagusiki jatorriari dagokionez.
- Parte-hartzaileen gehiengoak LGTBI+ pertsonak ditu bere harreman-sarean. Jatorri latinoamerikarrekoek, berriz, nagusiki familietan.
- Bertako eta jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsonen artean ez dago harreman handirik.

LABURBILDUZ, oro har esan dezakegu kontzientzia-maila nahiko altua dagoela heteroarauak egunerokotasunean duen eraginari –besteak beste, rolei, desberdinkeria-egoerei eta aukeren mugei– dagokionez. LGTBI+ pertsonetikiko harreman-maila ere altua da, homosexualetikoa batez ere. Trans* pertsonen kasuan gutxiago. Gipuzkoako LGTBI+ kolektiboko erakundeekin lotutako pertsonen harreman handiagoa dute; ez, ordea, jatorri atzeritarreko LGTBI+ pertsonekin.

Jatorri latinoamerikarreko pertsonen eta bertakoen arteko gertutasun- eta harreman-mailari dagokionean, lehenengoek ahalegin handiagoak egiten dituzte harremantzeko, nahiz eta jarrera arrazista ugari bizi behar dituzten. Bertako parte-hartzaileen kasuan, batzuek adierazi dute beharrezkoa dela pribilegioak, narratibak eta jarrerak etengabe aztertzea.

Jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsonen bi kontzeptuok eragiten diete, maila handiago edo txikiagoan inguruko pertsonen balioen eta gehien nabarmentzen zaien alderdiaren arabera –hots, azalaren kolorea eta/edo azentuaren edo genero-adierazpena edo sexu-orientazio askatasunez adieraztearen arabera–.

2. Eskubideak

—

LEGEDIA

Orokorrean, ezagutza-maila baxua dago LGTBI+ pertsonen eskubideak adierazten eta jasotzen dituen legediaren inguruan.

Jatorri latinoamerikarreko pertsonen ez dute ezagutzen EAEko legedi espezifikoa eta horietako bostek (horietako bi LGTBI+ kolektibokoak) izan dute nolabait estatu mailan eztabaidatzen ari diren legearen berri: «iskanbila sortu dela entzun dut»,

«abangoardista dela diote», «eztabaidak sortzen ari dira», «trantsizio-prozesuari buruzkoa dela uste dut; test psikologikoa nola egiten duten, prozedura nolakoa den...».

Bertako LGTBI+ pertsonen ere, nahiz eta elkarteetan bidez arlo politiko eta sozialean aktiboki parte hartu, ez daukate legediarekiko konfiantza eta interes handirik. % 41k ezagutzen du 2012ko Euskadiko legea eta, estatu mailako legearen berri eduki arren, ez dute xehetasunez ezagutzen.

- ▶ «Badakigu trans pertsonen nola eragiten dien, gainerakoari ez diogu arretarik jarri; haurdunaldiarekin eta despatologizazioarekin lotutako aurrerapausoak ekarriko litzuke, psikiatrarengana joan eta gaixo ez gaudela frogatu behar ez izateko».
- ▶ «Ez da nahikoa; ez bitarrak ez ditu aipatzen eta intersexualak ere, gainetik bakarrik».
- ▶ «Badakigu legea sortzen ari direla eta ezagutzen ditugu eztabaidaren nondik norakoak; badakigu, adibidez, trans pertsonen euren identitatearen arabera izendatzeko aukera ematen diela, diagnostikorik gabe».
- ▶ «Badakigu Gehitu ekarpenak egiten ari zaiela lege-eztabaidei».
- ▶ «Trans legerari esker, haurdun egon ez den amak ez du haurra adopzioan hartu beharko ezkondata egon gabe ere».
- ▶ «Lege-kontuak aspergarriak eta astunak dira... Politikariak ezer ez esaten entzutea, horren urruti daude... Ez dit atentziorik ematen eta ez nago jakinaren gainean, ez baitit eragiten. Baina, dagoen legedia eta dauden alderdi politikoak kontuan izanda, garrantzitsua iruditzen zait legea aurrera ateratzea».
- ▶ «Legeekin zuhurtasunez jokatzeko dute, bai paperean daudenean, baita aplikatzen direnean ere».

- ▶ «Legeari urrutitik begiraten diot: oinarritzko kontuak arautzen dituzte, baina tranpa bat ere badira».

Diskurtsoaren Gakoak: Legeak

- Orokorrean, ezagutza-maila baxua dago LGBTI+ pertsonen eskubideak adierazten eta jasotzen dituen legediaren inguruan.
- Bertako LGBTI+ pertsonak ere ez daukate legediarekiko konfiantza eta interes handirik.

GAUR EGUN DAUDEN ESKUBIDEAK ETA EGON BEHARKO LIRATEKEENAK

LGTBI+ pertsonen eskubideei dagokienez, jatorri latinoamerikarreko pertsonen erdiak ez daki berariazko eskubiderik daukatenik. Horietako batek «uste du baietz, badauzkatela», bik uste dute «gainerakoon eskubide berdinak eduki beharko lituzketela, ez gehiago, ez gutxiago», izan ere, «pertsonek guztiak berdinak gara»; hiruk ez dakite zein eskubide dauzkaten, baina badakite eduki badauzkatela. Hamar pertsonak (horietako hiru LGBTI+ kolektibokoak) eskubide batzuk zerrendatu dituzte:

- ▶ «Ama izatea» («barneratuta neukan, berriki ohartu naiz lortutako eskubide bat dela»).
- ▶ «Adoptatzea».
- ▶ «Ezkontzea».
- ▶ «Generoa eta izena aldatzea eta zeure izenez deitzea».

- ▶ «Osasun-sisteman hormonatzen hastea». «Gizarte-segurantzak sexu-aldaketa ordaintzea».
- ▶ «Haurtzarotik eraldaketa-prozesuarekin hastea». Era berean, aurrerapausotzat ikusten dute «trans haurrek euren burua definitu, erabaki eta hormonak hartu behar ez izatea».
- ▶ «Nor izan nahi duzun aukeratzeko eskubidea; izatea aukeratzeko duzunagatik tratatu txarrik ez jasateko eskubidea».

Emateke dauden aurrerapausoen inguruan galdetuta, honako hausnarketa interesgarri hau egin du jatorri latinoamerikarreko LGBTI+ pertsona batek: «badakit oraindik gauzak daudela lortzeke, baina ez dut inoiz horren inguruan hausnartu. Bizitza normala eduki dut eta orain arte ez dit inola ere eragin, ez naiz ohartu».

Horrez gain, trans* pertsonen eskubideen inguruan ere hausnartu dute. Zalantzan jartzen dute formalki onartutako bi sexuetakoa batekin identifikatzeko beharra eta uste dute ez dela oraindik legerik egin eztabaida soziala horren aurreratuta ez dagoelako. Bestalde, zalantza adierazi dute lesbiana bikoteen ezkontza-eskubideen (zaintza, amatasun-baimenak...) inguruan, baita diskurtso arrazista eta heteronormatiboek jaiotza-tasaren inguruko eztabaidetan duten rolari buruz ere.

Bertako LGBTI+ pertsonak ere ezagutzen dituzte oinarritzko alderdiak: «zarena izan zaitezke, ez zaituzte atxilotzen, legeak babesten zaitu, ezkondu zaitezke, osasun-zerbitzu publikoak haurdun geratzen laguntzen dizute eta osasun-sistema publikoan egin dezakezu trantsizio-prozesua...». Ikuspegi kritikoa dute eztabaidatzeko dauden gaien inguruan:

- ▶ **Arautu eta desarautu edo bestela arautu beharreko alderdien** inguruko eztabaiden egokitasuna: adibidez, emakume

lesbianen amatasunari dagokionez, zergatik ezkondu behar dira biak ama gisa agertzeko? Zergatik ez ordeztu ezkontzeak eta izatezko bikote bihurtzeak ematen dituen eskubideak askotariko familia-ereduak (auto)definitzeko aukerarekin? Egunerokotasunean eta alderdi praktikoan (erregistroak, administrazio-eskubidea, bekak, atzerritarrei buruzko legea...) dauden korapiloak aztertzeraz eramango gintuzke, legezko aitortpena izateak ez baikaitu denok automatikoki berdin bihurtzen.

- ▶ Sexu-orientazio edo orientazio erromantiko disidenteetatik haratago, **pertsona trans* eta ez bitarren errealitateei** dagokienez, arautzeak baino aukera gisa aitortzeak, haien inguruan hausnartzeak eta ikusgaitasuna emateak dauka lehentasuna, hortik abiatuta gainerako pertsonen eskubide berdinak izan ditzaten. Patologizaziorik, hormonaziorik eta emakume edo gizon gisa definitzeko beharrik gabe.
- ▶ **Pertsona intersexualen inguruko legedia**, mutilatu ez ditzaten eta jaiotakoan haien ordeztu erabaki ahal ez dezaten, euren burua eta genitaltasuna nahieran garatu ahal izateko (biologikoki, sozialki eta psikologikoki).

Diskurtsoaren Gakoak: Eskubideak

- Jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen erdiak baino apur bat gehiagok ez daki **LGTBI+ pertsonen berriazko eskubideak dituztenik. Batzuek badauzkatela suposatzen dute eta beste batzuek, berriz, gainerakoen eskubide berdinak eduki behar dituztela.**

→ Jatorri latinoamerikarreko gainerako pertsonen eta bertako **LGTBI+ pertsonen hainbat eskubide aipatu eta hausnarketa kritiko batzuk egin dituzte: errealitate transei, ez bitarrei eta intersexualen buruzko legedia, (des)arautu beharreko alderdiak eta ikuspegia, jaiotze-tasari buruzko eztabaida diskurtso heteronormatibo eta arrazisten eraginpean.**

→ Ez dute interesik lege-kontuetan aspergarriak iruditzen zaizkielako, baina eguneroko praktikei eta eskubideei eragiten dieten heinean, zorrotzago begiratzen diete.

ESKUBIDEAK ERABILTZEKO ZAILTASUN-MAILA DESBERDINAK

Azterketako parte-hartzaile batzuek, bai jatorri latinoamerikarrekoek, bai bertakoek, zalantzan jarri dute legeen garrantzia; izan ere, protokoloak eta prozedurak (iraupenak, sarbideak, eskakizunek, etab.) falta dira eta osasun-zerbitzuetako langileak sentsibilizatu beharra dago legeok inplementatu ahal izateko.

- ▶ «**Alde handia dago legeak egotearen eta horiek erabili ahal izatearen artean. Pertsona migranteok badakigu zenbat kostatzen duen.**»
- ▶ «Ez kexatzeko esaten digute, hemen dena oso aurreratuta dagoela. Legez nahiko babestuta gaude, baina ikuspegi lesbikoa ez da txertatu medikuntza-sisteman.»
- ▶ «Eskubideengatik baino, inguruneak eta osasun-arloko langileek egiten duten presioagatik da.»

Askotariko profilak dituzten parte-hartzaileen artean ere nolabaiteko adostasuna dago eskubideak erabiltzeko zailtasunik handiena duen kolektiboari dagokionez. Orokorrean uste dute pertsona homosexualek zailtasun gutxiago dituztela euren eskubideak erabiltzeko trans pertsonekin alderatuta. Ildo horretatik, honako hau adierazi dute jatorri latinoamerikarreko pertsonak:

- ▶ «Transa izanda, suposatzen dut zailagoa dela eskubideok erabiltzea gaya izanda baino.»
- ▶ «Bi bikote ezagutzen ditut, bata gayena eta bestea lesbianena, eta, nik dakidanez, ez dago desberdintasunik.»
- ▶ «Uste dut transek zailtasun handiagoak dituztela. Emakumez jantzitako gizonak gaizki ikusita daude (ausardia behar

da erreakzioei jaramonik ez egiteko). Pentsatzen dut lan-munduan ere arazoak izango dituztela»

- ▶ «Lan-arloan arazo eta traba gehiago izan ditzaketela uste dut, pertsonaren arabera. Antzematen bada (gizon afeminatua, trans pertsonak) zailagoa izango da besteentzat baino (emakumeengan ez da antzematen).

Modu osagarrian, bisexualen (gai korapilatsua) eta intersexualen egoera azpimarratu dute bertako LGBTI+ pertsonak. Gogora dezagun jatorri latinoamerikarreko pertsona gehienek ez zutela intersexualen kontzeptua eta errealitatea ezagutzen; beraz, hemen ez dituzte aipatu pertsona intersexualek euren eskubideak erabiltzeko dituzten zailtasunak.

Bestalde, azpimarratu dute emakumea eta pertsona arrazializatua izateak beti eragiten dituela zapalkuntza eta diskriminazio handiagoa. Zentzu horretan, LGBTI+ pertsona migratu eta/edo arrazializatuak ez dute egin sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako legeen inguruko aipamenik eta, ondorioz, atzerritarrei buruzko legearen esparruari heldzea besterik ez zaigu geratu. Pertsona ez bitarren kasuan ere, badaude inoiz eztabaidatzen edo gurutzatzen ez diren oinarrizko eskubide eta oztupoak.

- ▶ «Migrante izateagatik eskubide faltak eragin handiagoa du LGBTI+ izateagatik baino; **garrantzitsuena paperak lortzea da.**»
- ▶ «Iruditzen zait arrazializatuak izateagatik jasaten dugunaren osagarri dela: ia ezinezkoa da pisu bat alokatzea, erroldatzeko eskatzean gaizki tratatzen gaituzte (nik senarrari eskatzen diot joateko, hemengoa da eta), bankuetan ere tratu txarra ematen dizute titularra izanda ere...»
- ▶ «Gizartean diskriminatzaileak diren

kausak gehitzen zaizkio».

Bestalde, neurri apalagoan, eskubide espezifikoak erabiltzea oztopatzen duten beste bi alderdi aipatu dituzte:

- ▶ Adina: zehazki, adineko LGTBI+ pertsonen ikusezintasunari dagokionez. «Gaur egun asko hitz egiten da kaleko erasoen aurkako babesari buruz. Baina, zahar etxeetako erasoekin zer? Badirudi zahartu ahala LGTBI+ izateari uzten diozula».
- ▶ Dirua: «LGTBI+ pertsona pobrea edo aberatsa izateak eragina dauka eskubideak erabili ahal izateko orduan».

Diskurtsoaren gakoak: Eskubideen erabilera

- Zalantzan jartzen dute legeek zenbaterainoko garrantzia duten, ondoren haiek aplikatzeko protokolorik edo prozedurarik ezartzen ez bada eta administrazio publikoko langileak sentsibilizatzen ez badira.
- Nolabaiteko adostasuna dago eskubideak erabiltzeko zailtasun handiena duten kolektiboen inguruan: pertsona homosexualentzat errazagoa da eta transentzat, berriz, zailagoa. Gainera, bertako LGTBI+ pertsonak azpimarratu dute bisexualei eta, batez ere, intersexualei arreta handiagoa eskaini beharko litzaiekeela.
- Sexu- eta genero-aniztasunari buruzko legeetan ez da egiten LGTBI+ pertsona migrante edo arrazializatuen inguruko

aipamenik. Horrek garbi erakusten du badaudela oinarritzko eskubideak eta eztabaidatzen –eta, are gutxiago, gainditzen– diren oztopok.

MIGRAZIOA ETA/EDO ASILOA

Azterketako parte-hartzaile gehienek, bai jatorri latinoamerikarrekoe, bai bertakoe, badakite badagoela sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen ondorioz nazioarteko babesa eskatzeko aukera. Izan ere, kasuren bat gertutik bizi izan dute gehienek (askotariko jatorritako pertsonenak eta aldeko zein kontrako ebazpendunak) edo halako egoerak jasotzen eta kudeatzen dituzten erakundeetan lan egiten duen norbait ezagutzen dute.

- ▶ «Mutil bat ezagutzen dugu, aktibista izateagatik eta bere sexu-orientazioagatik jazartzen dutena. Asilo eske etorri zen eta ez diote eman».
- ▶ «Hori lortzeko arrazoi nahikoa izan liteke; hango herrialdeak oso itxiak dira, mutil afeminatuek sekulako bullying-a jasaten dute eskoletan...».
- ▶ «Bai, badakit gertatzen dela eta lankideren baten kasua ere ezagutzen dut, baina ez dugu asiloa eskatzeko arrazoiak garbi hitz egiten».

Gaia ezagutzen ez zuten jatorri latinoamerikarrekoe pertsonak badakite herrialde batzuetan errepresio handiagoa dagoela eta, beraz, ulertzen dute asiloa jasotzeko aukera jatorrizko herrialdearen araberakoa izatea.

- ▶ «Baietz esango nuke, jatorrizko herrialdearen arabera».
- ▶ «Ez dut inor ezagutzen, baina uste dut

herrialde batzuetan ohikoa dela».

- ▶ «Ez dut uste inoren aurka egiteko arrazoia denik... Pertsona normal gisa ikusten ditut, baina, noski, bizi diren herrialdearen arabera...».
- ▶ «Ez zait iruditzen, ez baita akats bat edo hondatzen zaituen zerbait... Halakoa zara, besterik gabe. Debekatuta dagoen herrialdeen kasuan, ulertzen dut, arriskuan zaude eta; gainerakoetan, ordea, ez».

Askotariko profiletako parte-hartzaileek ezagutzen dute neurri handi batean horregatik migratu duen norbait. Halaber, ikusi dugu *sexilioaren* kontzeptua hainbat mailatan gertatzen dela, bai ozeanoaren alde batetik bestera, bai landa-eremutik hirira ere.

- ▶ «Gertutik ezagutzen ditugu askatasun handiagoz bizitzeko migratu duten pertsonak, Estatuko edo EAEko herri txiki batetik hirira lekualdatzen direnak. Desegin egin behar dugu hemen denok askatasunez bizi gaitzkeelako ideia. Garai batean ohikoagoa zen, baina oraindik ere badago hiri handiagoetara joaten denik, ezagut ez dezaten, ikasketak egiteko aitzakiarekin... Batzuk jakitun dira zergatik alde egiten duten, beste batzuk ez. Eta gero adingabeak daude, oraindik alde egin ezin dutenak».
- ▶ «Gu baino zaharragoak zirenek alde egin zuten herritik; baten bat geratu zen. Gure belaunaldikoren bat ere joan zen; ikastera joan eta, noski, gaztaroan euren ikuspegia irekitzen dute eta euren burua ezagutzen hasten dira... Zerekin identifikatzen zaren esan behar duzu, nor atsegin duzun... Eta horretarako presio gutxiago dago... Herriak oso tradizionalak dira oraindik».
- ▶ «Nire pisukidea 20 urterekin heldu zen eta bere kabuz egin zuen alde, baina asiloa eskatu gabe migratu zuen. Hondurastik

etorri zen eta lanean ari da. Beste mutil gay batzuk bizitza berri bat eraikitzeke etortzen dira. Batzuek haurrak dituzte han, lesbianak izanda ere. Hemen nahi duzuna izan zaitezke; hango bikoteak, ordea, heterosexualak dira. Mutilak ez dira elkarrekin ikusten. Nire herriko emakume bikote bat itzultzen bada, berriro hasten dira txutxu-mutxuka, ea Espainian ezkondu ote diren...».

- ▶ «Askok ez dute ezagutzen. Askok migratzen dute arrazoi horregatik, baina ez dute asilorik eskatzen; pixkanaka lortzen dituzte paperak. Gehienak bakarrik daude. Herrialdeko egoeraren eta homofobiaren ondorioz migratzen dute: muxuka aritzea zaila da, baita harreman ireki bat edukitzea ere... Lagun bati txistua bota zioten aurpegian, festa batean jo egin zuten, eta ezin izan zuen gehiago jasan. Bi prozesu dira: migrazioa bera eta zure identitatean sakontzea.
- ▶ «Herrikoa naiz eta han erlijioak garrantzi handia du. Ez nintzateke inoiz armairutik aterako, behin hemen egonda esango nuke. Askok migratu dute horregatik».

Parte-hartzailetako bati asilo politikoa eman dio espainiar Estatuak.

- ▶ «Ez neukan migratzeko asmorik; han dirua eta lana nituen, baina gu bezalakoak (transformistak) ez gaituzte nahi eta asko sufritzen dugu. Oraindik amesgaitzoak izaten ditut. Heldu nintzanean ez neukan familiarik, ezta lagunik, dirurik, lanik edo baimenik ere. Atzerritarren bulegokoak esan zidan hemen hobeto egongo nintzela eta zorte ona opa zidan. Orain paperak izapidetu ditut, lanean finkatuta egoteagatik».

Diskurtsoaren gakoak: asiloa, sexilioa

- Parte-hartzaileek ezagutzen edo ulertzen dute sexu-orientazioa eta sexu- eta genero-identitatearen ondorioz babes internazionala eskatzeko aukera.
- Ulertzen dute sexilioaren kontzeptuak ozeanoaren alde batetik besterako migrazioa zein landa-eremutik hirirakoa barne hartzen dituela.

LABURBILDUZ, parte-hartzaile ia guztiek – LGBTI+ kolektibokoak direnek zein ez direnek, jatorri latinoamerikarrekoek eta bertakoek – dakite LGBTI+ pertsonen oinarriko eskubideak dituztela EAEn. Era berean, maila pertsonalean edo kolektiboan eragiten dieten alderdiak kenduta, ez diete lege-eztabaidei arreta handirik jartzen. Bereziki LGBTI+ pertsonen uste dute heteroaraua gainditzeko zeregina ez dagoela legegintzari lotuta, baizik eta imajinarioari, jarrerari eta jokabideei, gizarte osoari eta osasunaren, hezkuntzaren eta administrazio publikoaren arloko langileei.

Geure burua autodeterminatzeko eta identifikatzeko, eskubideak arautzeko eta araupetzeko eta zigor-kodea zabaltzeko beharraren inguruko eztabaidak LGBTI+ kolektiboarekin eta sexu-disidentziekin lotuta daude, baina gertuko gaiak dira atzerritar jatorriko pertsonentzat ere. Zergatik ez aztertu zein neurritan babesten eta hobetzen dituzten legegintza-arloan emandako aurrerapausoek pertsona baztertuen eta ikusezinen egoera eta bizi-aukerak? Zergatik ez zuzen begiratu zapalkuntzak sostengatzen dituzten arrazoiei? Zergatik ez aberastu eredu sozialak aniztasunak eskaintzen dituen agertokien bidez?

3. Adierazpena

Atal honetan hainbat alderdi landuko ditugu: sexu- eta genero-aniztasunari dagokionez, ikusgaitasun handiagoa al dago gaur egun? Gaiaz gehiago hitz egiten al da? Nola eta zergatik? Ildo horretatik, jatorri latinoamerikarreko pertsonak uste dute LGTBI+ kolektiboak Gipuzkoan askatasunez adierazteko aukera duela? Zer iritzi dute? Eta jatorri latinoamerikarreko eta bertako LGTBI+ pertsonen kasuan, nolakoa da haien esperientzia? Uste dute egunerokoan euren burua askatasunez adierazteko aukera dutela? Denek al dute horretarako aukera? Zer erreakzio eragiten du? Jatorri latinoamerikarreko pertsonen kasuan, zerk du eragina?. Eta azkenik, gure inguruko pertsona adingabe batek identitatearen edo orientazioaren inguruko zalantzak adieraziko balizkigu, nola erantzungo genioke?

IKUSGAITASUNA KULTURA- ETA KOMUNIKAZIO- PRODUKTUETAN

Orokorrean, LGTBI+ kolektiboaren errealitateak normaltzeko eta estereotipoak apurtzeko aurrerapauso handiak eman dira abesti, film, telesail, komunikabide, iragarki eta abarretan, baina zalantza handiak daude kolektiboari ikusgaitasun handiagoa emateko ahalegin horren atzean dauden arrazoen inguruan.

Jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsona batzuek honako hau adierazi dute:

- ▶ «LGTBI+ pertsonak protagonista dituzten gero eta film gehiago daude plataforma handietan. Telesail berrietan, batez ere, naturaltasun handiz jorratzen

dute gaia. Zaharragoetan, berriz, estereotipo gehiago dago: lesbiana - tomboy/mari-mutila, gay - afeminatua. Bisexualen inguruan, berriz, ez dago estereotiporik, ez dute gaia ezagutzen...».

- ▶ «Azken urteotan aldaketa bat egon dela uste dut. 90ko eta 2000ko hamarkadetan hasi ziren agertzen gizon gayak, luma edukitzearen eta afeminatua izatearen estereotipoari lotuta, noski. Gizon zuri gayak ziren merkatu-hobi. Gaur egun, telesail gehiago dago emakume lesbien inguruan; ez soilik rol maskulinokoena, baizik eta, **era guztietako emakumeenak**. Jantzera maskulinoko lesbien gain, agian lesbianatza hartuko ez genituzkeenak ere agertzen dira eta, horri esker, apurto egiten dira estereotipoak eta sexu-orientazioa estilo-eredu jakin bati lotuta dagoelako ideia».
- ▶ «Lehen iluna zen (ikusgaitasuna emateko modua), gaur egun hobeto ikusia dago».
- ▶ «Moda jarraitzen dutela iruditzen zait. Alde batetik, maizago agertzen dira, baina ez oso modu askatzailean, rola errepikatzen jarraitzen dute eta. Bikote homosexualek ere rol maskulino eta femeninoak errepikatzen dituzte. Edo, gay bat dago, baina marikoiaren estereotipoa jarraitzen du. Telesail batzuk hobeak dira. Findu egin behar dituzte. Eraldaketa baino merkatu-hobi gehiago».
- ▶ «Gaur egungo telesail, abeslari eta komunitateko tiktoker ezagunek atek irekitzen dituzte. LGTBI+ ez direnek ere bai, alde agertzen direlako. **Diruagatik eta arrakastagatik egiten duten arren, atek irekitzen dituzte eta LGTBI+ komunitatearekiko konfiantza zabaltzen dute**, normalizatu egiten dute».

Bertako LGTBI+ pertsonak ñabarduraren bat edo beste gehitu dute: «Pixkanaka aldatzen ari

da egoera; euskal telesailetan ere islatzen dituzte gizartearen jorratzen diren gaiak. Plataforma handiek nahi dutena egiten dute, ikusleriaren arabera. Baina eraldaketa erreala lortzeko ez da nahikoa Disney-k lesbianen muxu bat erakustearekin edo telesailetan sexu-praktikak agertzearekin. Horretarako, heterosexuala ez den familia baten historia normaldu beharko lukete, adibidez».

Jatorri latinoamerikarreko pertsona zisheteronoromatiboek ere iritzi berdintsua dute:

- ▶ «Merkatua dagoelako dauka geroz eta presentzia handiagoa, **ez aniztasuna normaldu nahi dutelako, baizik eta mediatikoa eta komertziala delako.** Adibidez, testuingururik eman gabe homosexualak muxu ematearena, nola ezagutu ziren aipatu ere egin gabe... Zalaparta sortzeko edo ondo geratzeko egiten dute. Bazter guztietan dago: telesailetan, marrazki bizidunetan... Ez dago prototipo bakar bat, protagonistak eta pertsonaia arruntak daude. Baina, askotan afeminatuak izaten dira, ez dira inoiz heroiak akzio-filmetan, ez dute mundua salbatzen. Ekoiztetxe txikietan agian bai, beste helburu bat eduki dezakete, baina ekoiztetxe handiek bistaratze, diru eta ikusgaitasun gehiago nahi dituzte. Ez dute gizarte gisa ditugun arazoak azaleratzeko egiten»
- ▶ «Mugimendu dezente dagoela iruditzen zait, baina ez dira protagonista gisa agertzen. Argentinan badaude telebista-saioak dituzten transexualak eta, oso ongi; normal».
- ▶ «Ez dut telesail askorik ikusten, baina uste dut azkenaldian gauzak aldatzen ari direla. Aurrerapausoak ematen ari gara pixkanaka, baina kasu askotan, egoeraren zati goreak erakusten dute. Transexualitatea

ez dago normalizatuta filmetan».

- ▶ «Programa batzuetan irekiak dira; hau da, edozer esan dezakezu, politikoki okerra bada ere. Ez dira lotsatzen, ez dago aurreiritzirik, normaldu egiten dute halakoak esatea irain arrazista edo homofoboa izan gabe eta inor mindu gabe. **Diruaz aparte, ez dut uste beste helbururik dutenik.** Entretenigarria da. Elkarrizketa horiek ez lirateke programa arruntetan egingo eta bistaratze gehiago lortzen dituzte».
- ▶ «Gogoan eduki behar dugu komunikabideek LGTBI+ kolektiboaren inguruko pertzepzioen eraikuntzan eduki duten eta daukaten **ardura**».

Diskurtsoaren gakoak: Ikusgaitasuna kultura-eta komunikazio-produktuetan

- Orokorrean, ikusi dugu zenbait aurrerapauso eman direla abesti, film, telesail, komunikabide, iragarki eta abarretan LGTBI+ errealitateak normaltzeko eta estereotipoak apurtzeko: askotariko emakumeak, protagonista diren LGTBI+ pertsonak... Dena den, inoiz ez dute heroia-aren papera betetzen eta ez dira familia ez-heterosexualak normaltzen.
- Hala ere, parte-hartzaileak zalantzati agertu dira kolektiboari presentzia handiagoa emateko arazoien inguruan: dirua eta merkaturia.

GAIAREN PRESENTZIA ELKARRIZKETETAN

Aurreko atalean jasotako iritzien ildotik, orokorrean gaiari buruz gehiago hitz egiten delako irudipena daukate parte-hartzaileek. Hala ere, LGTBI+ pertsona guztiek ez dute hori begi onez ikusten. Gaiak garrantzia gehiago lortu izanak eragiten dituen emozioak eta erreakzioak kudeatzeko beharra mahaigaineratu dute, baita gorakada horrek atzean daukana zalantzan jartzekoa ere. Azken finean, nori egiten dio mesede?

Bestalde, ez dago argi LGTBI+ pertsona gehiago dagoen. Aitzitik, euren burua askatasun handiagoz adierazteko askatasun handiagoa dutela uste dute (hurrengo atalean sakonduko dugu horretan). Edonola ere, aldaketa hori argiago ikusten da gazteen artean eta desirarekin lotura handiagoa du genero-identitatearekin baino.

Jatorri latinoamerikarreko pertsona askok, bai LGTBI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, alde handiagoa ikusten dute haien jatorrizko herrialdearen eta uneko bizilekuaren artean, Gipuzkoako duela urte batzuetako egoeraren eta gaur egungoaren artean baino. Hala ere, pertsona horietako batzuk aspaldi ez dela etorri ziren Gipuzkoara, eta beraz, ez dira gai LGTBI+ kolektiboak bertan izandako eraldaketa hautemateko eta duela hamarkada bat edo bi zegoen egoera ezagutzeko.

Jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsonak hau adierazi dute:

- ▶ «Normala iruditzen zait (normaltzea), banekien gertatuko zela, garaiak aldatu egiten dira. Lehen emakumeek ezin zuten gidari izan eta gaur egun, ordea, bai. Onuragarria da jende askorentzat».
- ▶ «Ez zait iruditzen gaur egun armairutik

jende gehiago ateratzen denik, ez behintzat nire adinekoren kasuan (30 urte ingurukoak). Gazteek askatasun gehiagorekin bizi dutela ikusten dut, bidea egina daukatela; orain honekin nabil, gero beste harekin. Hizkuntzari dagokionez ere normaldu da gaia, komunitatean eta familian ere entzuten dira «**tira, tira, edo gustatzen zaiona!**» eta halakoak.

- ▶ «Garai batean tabu zen; gaur egun, berriz, armairutik ateratzen den eta direnaz ohartzen den jende gehiago dago. Talde batean neskak gustatzen zaizkizula aipatzen baduzu, besterik gabe, ez da aparteko erreakziorik espero, **ez horregatik pozterik eta zorionterik, ezta atsekabetzerik ere. Normaltatz daukagu**». (19 eta 20 urte bitarteko neskak)
- ▶ «Gorakada bat egon da, **muturren aurrean daukagulako**. Eta kapitalismo inguratuta dago, bandera bazter guztietan dago (gasolindegian, supermerkatuan...), sare sozialetan logotipoa aldatzen dute. Eta, jendeak galdetzen du, «zergatik egon behar dute nire muturren aurrean?» Eta, zergatik ez? Gizonak talde txikitik bildu behar ditugu, ez jipoitu, ez talde handian. Hausnartu egin behar dute. Konfortzozonatik ateratzeko eta komunikatzeko erronka jo behar diegu. Dibertigarria da ikustea nola ez ziren ohartzen LGTBI+ errealitateekiko zuten gertutasunaz: lagunartean hitz egiten ez duenaz, atzerrira joan den aniaz... Iruzkina homofoboak egiteari uzten diote, desberdin begiratzen dizute».
- ▶ «**Pinkwashing**-aren mezuak lesbianen eta gayen arteko love is love horri soilik egiten dio erreferentzia, ez du gainerakoa barne hartzen (queer, asexuala...). Izan gaya edo lesbiana, baina egokiro (makillatuta, ongi jantzita, deigarria izan gabe, balkoian

bandera jarri gabe, lan txukun batekin...). Harremanak zer diren definitzen dute; sexua garrantzitsua da. Ziurtzat jotzen dute denok alderdi berdinak hartzen ditugula kontuan eta sexua beti dela funtsezkoa; ez dute jende asexuala kontuan hartzen. Eta, nola egin dezakegu pedagogia jende zisarekin, kolektiboak berak ere gauzak argi ez baditu?»

- ▶ «Eta beste kontua heterosexualen harrotasun eguna ospatzearena da. Asko gustatzen zait argudio hori. Lehen Munduko gizon zis hetero zuri bat bazara, ez zaizu ezer gertatuko, mundua zeure neurrira eginda dago eta. Zure buruari gauzak gehitu ahala, Danteren infernuko zirkuluetan barna jaisten joango zara (emakumea edo pertsona arrazializatu zarelako, exotizatu egiten zaituztelako...) Baina, heterossexuala izateagatik hil egin zaitzakete, ala? Arriskuan zaudela sentitzen zara? Egiten duzu apurtzailea den ezer? Ez? Bada, orduan, ez zara aterako. Eskemak apurtu behar ditugu; ez justifikatu, baizik eta, ulertu badagoela inoiz ezer zalantzan jarri ez duenik. **Orain haien txanda da, zalantzan jartzen ditugu eta gaiak eragin egiten die. Ezagutzen ez zuten informazio hori guztia barneratu behar dute,** testuingurua ezagutu... Barruan pilota bat daukatela dirudi, alde batetik bestera erreboteka, ea zer apurtzen duen...».

Bertako LGTBI+ pertsonen ikusgaitasun handiago hori aitortzen eta zalantzan jartzen dute:

- ▶ «Garaia arabera, (gehiago hitz egiten da) **data jakin batzuen inguruan edo zerbait gertatzen denean; gero, berriro, deus ere ez.** Ez nau kezkatzen. Pandemia, klima krisia... Guztiak du lehenasun handiagoa agendan. Baina, gure nerabezaroarekin alderatuta, gaiak

ikusgaitasun handiagoa du. Garai hartan inork ez zuen pentsatzen homossexuala izan zitezkeenik; gehienez ere, mari-mutila. Gaur egun, ordea, normalago ikusten dugu hauta hori. Nire garaian lotsa handia zegoen, ez genuen nahi inork ezer jakiterik...».

- ▶ «**Asko gustatzen zait jendeak gaiak geroz eta gehiago hitz egitea,** jendea ezjakintasunetik bere iritzia ematen entzutea, pertsona zisheteroek gaia mahaigaineratzea, arrazoia dudala dakiten arren, kontra egitea. Batzuetan ez daukat eztabaidatzeko gogorik eta esaten diet beste egun batean geratu gaitzekeela kafe bat hartzeko edo nire iritzia idatziz bidaliko diedala».
- ▶ «Eztabaida positibo gehiago dago, eraikitzen ari gara, hausnartzen; **pertsona jakin batzuekin ez dut gaiak hitz egiten** batzuetan, iruditzen zait ez dela nire borroka. Ingurune zis tradizioaletan ez du merezi. Nondik hasi behar dut? Ikuspegi zurruna daukate».
- ▶ «Ez zait iruditzen positiboa denik. **Identitateen aldizkari** bat bezalakoa da, sentsazionalista; hura irakurtzen duen jendeak ez daki ezer gaiaren inguruan eta, beraz, ez du ezer ulertzen. Sexua eta generoa nahasten dituzte. Zer lortzen da? Moda? Zalaparta handia. Estereotipoak ere indartzen ditu. Kontaketa zintzorik gabe, ez dago eztabaida zintzorik. Egia esan, ez dute gaiak hitz egin nahi...».
- ▶ «**Gorakadak beldurra eragiten du** eta, gainera, gorakada hori egon arren, gazte asko ez dira pausoa ematera ausartzen».
- ▶ «**Ikusgaitasuna lortzeko prozesuan gezurrak nahastu dira.** “Irakurri dut/ ikusi dut...” dio jendeak. Bai, baina, non? Ongi dago kasu gehiago azaleratzea, baina, gaizki eginez gero, ondorio txarrak izan ditzake. Badirudi transa izateko

modu bakarra dagoela, hau da, prozesu osoa eginda eta gizon edo emakumearen irudi estereotipatura egokituta. Ez ditugu dauden aukera guztiak ikusten, jarraitu beharreko bidexka bakar bat baizik. Bestela ez dira transak. Barbie bat edo gizon-gizon bat izatera heldu behar dira. Pertsona bisexualak bizitsu gisa hartzen dira edo bizitzako aro bat dela esan ohi zaie, dena gustatzen zaiela, promiskuoak direla... Eta, zergatik ez da gai hori beste adin batzuetan jorratzen? Adibidez, demisexualitatea ohikoagoa izan daiteke adineko pertsonen artean. Asko hitz egiten da eta terminoak ezagunak dira, baina jendeak ez ditu ulertzen».

- ▶ «Belaunaldien arteko kontua da, **belaunaldi baten ezinegona komertzializatzen da eta sexuarekin lotzen**. Baina, ezinegon horrek ez dauka sexu-generoarekin zerikusirik, baizik eta langabeziarekin, ezegonkortasunarekin, gerrarekin eta abarrekin. Haien portaera instrumentalizatzen da eta, aniztasunaren eta askatasunaren ereduzat hartu ordez, ideia horiek esleitzen zaizkie».
- ▶ «Baina parkeetan, eskolan, institutuan... irainik okerrena eta ohikoena "azkena gaya/lesbiana" da. Etxean entzuten dute, ez telesailetan».
- ▶ «Gaiari buruz beste leku batetik hitz egiten da. Kultura-produktu asko daude (liburuak, telesailak, filmak) eta nahiz eta horiek hamar produktu garrantzitsuenen artean ez egon, gaia ez da ukatzen, ez da hain bitxia. Arauan sartzen ari da, denok dakigu existitzen dela. Bizitzea errazago bihurtu da eta **lehen pentsaezinak ziren hainbat gauza onartzen dira** gaur egun. Gauza sinbolikoak gertatu dira eta horrek gauza asko ulertarazten eta onartzen laguntzen du, erasoak jasateko arriskurik gabe. Testuingurua desberdina da. Orain genero-identitateaz hitz egiten da gutxien.

Gehiago bai, baina, logika kapitalistaren kontrol-tresna berri bat ote da? Kasuistika, hitzak eta kodeak aldatu dira: lehen prozesu bat egin behar zen zeure burua marikoi gisa izendatzeko; gaur egun, transexualekin gertatzen da. LGTB izan zaitezke eta arauaren barruan egon, baina, zein preziotan? Hori askatzailea al da? Non geratu dira komunitatea eta gune askatzaileak? Aurrerapausoak eman ditugu, baina, **aldaketa sakonak dira?** Kontzeptuen aldaketa-ziklo berri bat gertatu daiteke eta kanoi-bazka bihur gaitzakete berriro».

Jatorri latinoamerikarreko pertsona zisheteronormatiboak bat datoz gaia normalizatzeko eta/edo hura ikusarazteko prozesua modu mailakatuan egin beharrarekin. Halaber, ados daude prozesuaren mugei dagokienez:

- ▶ «Bai, **gehiago hitz egiten da, normaltasun handiagoz**».
- ▶ «Orain normaldu egiten da, belaunaldi berrien surf ikastaroetan 2 edo 3 pertsona transexual daude ikastetxe edo taldeko; lehen bat bera ere ez».
- ▶ «Aurrerapausoak eman dira. Institutuan pertsona transexual bat dago. Atera zenean, duela 9 urte, zaila izan zen, korapilatsua. Giroa bare dago orain».
- ▶ «Nerabeak beste modu batera ari dira hazten, ikusten duten guztiagatik (musika eta bideoak). Informazio asko jasotzen dute eta osasun mentalekin lotutako kasuak, LGTBI+ komunitatea, ezagutzen dituzte. Aukera sorta handia dute eta probatzen hasten dira. Dena galdu izanaren sentimendua zabaldu da; haien etorkizuna ez da batere argia, Ukrainan gerran daude, gasolinaren, coca cola lataren eta ogitarkekoaren prezioek gora egin dute... **Ezjakintasun giro horrek nahasmendua sortzen du**. Aukera gehiegi

daude eta jomuga garbirik ez».

- ▶ «Gehiago hitz egiten da, inguruko jende gehiagok garbi adierazten du nola definitzen duten euren burua, **badirudi aukera gehiago daudela**. Generorik ez egotea nahiko nuke, pertsonak bakarrik. Orientazioa eta desira sexuala bereizita egongo lirateke. Gorputzak femenino edo maskulino gisa ez irakurtzea nahiko nuke, emakumea edo gizona izateko aukera gehiago egotea edo kontzeptuok desagertzea. Nire borroka pertsonalean ez dit lasaitasunik ematen sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko mugimendu horrek guztiak. Izan ere, **geure burua kode bitarren arabera definitzen jarraitu behar dugu**».

Diskurtsoaren gakoak: gaiaren presentzia elkarrizketetan

- Orokorrean, gaiaz gehiago hitz egiten delako sentsazioa dago; jada ez da imajinaezina.
- Jatorri latinoamerikarreko pertsona askok, bai LGTBI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, uste dute bertako komunikazioan normalduta dagoen gai bat dela, baina muga batzuk ere ikusten dituzte.
- Gaiak ikusgaitasun handiagoa du gazteen artean eta haien ikuspegia ere zabalagoa da. Lotuago dago desirarekin genero-identitatearekin baino.
- Bertako eta jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsona guztiek ez dute aldaketa hau modu positiboan bizi: zer dago gorakada honen atzean? Nola kudeatu ditzakegu sortzen diren erreakzioak? Aldaketa behar bezain sakona da? Zenbat desinformazio eta manipulazio dago? Identitateen katalogo bat da? Data jakin batzuk bakarrik dira?

SEXU-ORIENTAZIOAREN, SEXU- ETA GENERO- IDENTITATEAREN ETA AFEKTIBITATEAREN ADIERAZPENA

Jatorri latinoamerikarreko pertsona guztiek, bai LGTBI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, adierazi dute –ñabardura batzuekin– LGTBI+ pertsonen euren burua modu irekian eta askatasunez adierazteko aukera dutela Gipuzkoan. Bertan denbora gehiago daramatenek mugak argiago ikusten dituzte. Halaber, uste dute haien jatorrizko herrialdearekiko alde handia dagoela. Parte-hartzaile batzuek ez dute hemen ikasitakoa naturalizat eta ontzat jotzen, baina positiboa dela uste dute eta normaldu egin dute, errespetuan eta askatasunean oinarritutako gizartearen parte dela iruditzen zaielako eta balioon arabera bizi nahi dutelako. 13 parte-hartzailek migratu ondoren aldatu dute sexu- eta genero-aniztasunarekiko ikuspegia; 14k lehendik jartzen zituzten zalantzan matxismoa eta/edo heteroaraua. 2 parte-hartzaile ez daude ados.

- ▶ «Hemen ez dago aurreiritzirik. Bakoitzak nahierara adieraz dezake bere burua, ez da deigarria egiten. **Gizarteak babesten ditu**, normalizatuta dago; inork ez luke haien inguruko iritzia eman beharko. Kolektiboko erakundeek indar handia daukate eta ez lukete ezkutuan egon beharko. Gure herrialdeetan ez dira azken unera arte armairutik ateratzen eta harritu egiten zara: “ez nekien!”».
- ▶ «**Hemen kalean lasai ibiltzen dira** eta inork ez ditu begiratzen edo iraintzen; hemen errespetatu egiten dituzte».
- ▶ «Nire herrialdean “marikoi!” oihukatzen zuten kalean. Hemen gona soinean eta makillatuta ibiltzearena, ile luzea

edukitzearena... Batzuek begiratzen dute. Gaur egun neskekin ibiltzen den mutil gazte afeminatu asko ikusten dut; batzuk hala jaio ziren (lanean ikusten dut, haurrengan), beste batzuk nerabezaroran garatzen dira, aukera gisa ikusten dute sare sozialetan, komunikabideetan, festa-giroan... Agian lehen ere hala ziren, baina **orain argi esan dezakete**».

- ▶ «Nik ere ez dut arazorik jendea ikusteko, gaiaz entzuteko; **ongi iruditzen zait eskoletan gaia lantzea**, haurrak txikitatik ikasten eta onartzen joan daitezen. Igerilekura joaten dira, aldageletan elkar errespetatzen ikastera. Mutiko batek gona darama, baina ez da ezer gertatzen».
- ▶ «**Hemen, pozik**. Han, takoi arrosak soinean eta bizarrarekin ibiliz gero, keinuak egiten zizkizuten, gaizki begiratu... Jendea begira zeneukan, promiskuotzat gintuzten».
- ▶ «Badirudi lan-esparruan eta esparru pertsonalean **askatasunez adierazten dutela euren burua**, ez dut uste epaituak sentitzen direnik».
- ▶ «Mutil gay gehiago ikusi dut Donostian».
- ▶ «Pertzepzio-aldaketa ez da migrazio-prozesuarekin batera gertatzen, askotariko familia-ereduena lehendik ere mahaigainean zegoen. Irakur ezazue, adibidez, Jaime Bayly-ren Los amigos que perdí (galdu nituen lagunak). **Positiboki eragiten dit hemen askatasuna dagoela ikusteak**, ohitu egin naiz».
- ▶ «**Hemen askatasun handiagoz bizi gara, baina ez nau harritzen**; senarra eta alaba bat dauzkate, baina ikuspegi zabala daukat. Amak irakatsi zidan legezkoa heterosexuala izatea dela, baina genero bereko pertsonen erakartzen bazaituzte, bada, kito».

- ▶ «Hezkuntza- eta gizarte-esparruetan emakumezko irakasleen bikote eta guraso bakarreko familia dezente ikusten ditut, baita lesbianak diren ezagunak ere. Gizonak, gutxi».
- ▶ «Aurrerapausoak eman dira: lagun gayak dituzten mutilak eta horren inguruko arazorik ez dutenak; lehen desberdina zen, mutilak beldur ziren (gaytzat joko ote zituzten), neskekin bakarrik ibiltzen ziren. **Gaur egun besteen iritziak ez du axola**».
- ▶ «Hemen **onartuago dago nire herrialdean baino**. Han orain ari dira besteek esango dutenarena eta ingurukoak epaitzearena alde batera uzten; pertsona trans ezagun asko dago gaur egun eta jendeak maite ditu, erreferente eta eredu gisa hartzen dituzte, normala da».
- ▶ «Hemen askatasun handia dago, **ongi ikusiak gara**; sexu-identitate desberdina izanik ere, maite eta miresten zaituzte. Ez dut inoiz sentitu gaya izateagatik diskriminatu edo gaizki begiratu nautenik. Hori da herrialdeaz atsegin dudana, berdintasuna da garrantzitsuena. Lanean badakite zer naizen eta ez didate inoiz begirunea galdu. Badakite bikotekidea dudala eta ez dago arazorik».
- ▶ «LGTBI+ kolektiboarena aspaldiko kontua da eta ezin da ezkutatu. Inor mintzen ez duzun bitartean, utz zaitzateला bakean».

Egoerak alderatuta emaitza positiboa den arren, muga batzuk ere azpimarratu dituzte:

- ▶ «Lan bila ari zarenean bisexuala edo asexuala zarela esan ezin baduzu, ezin daukazu askatasunez zarena izateko aukerarik».
- ▶ «LGTBI+ inguruneak bilatzen ditut edo, behintzat, **taberna normatibo eta zaharkitu bat ez den lekuren bat...**

Festako ingurune mistoetan ez daukat nire burua adierazteko arazorik. Ez naiz latinoamerikarren saltokietan ibiltzen eta hor ez nuke nire burua adieraziko, ez beldurragatik, baizik eta errespetuagatik. Lotsatu egingo nintzateke eta ez nintzateke ongi sentituko; jatorriari leialtasuna zor diodalako edo, kontu handiagoz ibiliko nintzateke».

- ▶ «**Sozializazio-prozesuan, eskolan, haien askatasuna murrizten dute pixkanaka**: nahi izanda ere, mutilak ez du arropa arrosa edo gona jantziko, ezin duelako; neskak ere ezin du mutilentzako bainujantzia jarri. Alaba zaharrenak esaten dit ez ditudala haurrak ulertzen. “Ez utzi hori egiten, arazoak izango dituzte eta”».
- ▶ «Orokorrean, nire burua askatasunez adierazi dezaket. Familian, bai. Lanean ez dut horren argi adierazten. Zergatik ezin dut nire bizitzari eta bikotekideei buruz hitz egin? Ez nago ziur ulertuko ez dutela uste dudana edo ez dudana nahi hori nire aurka egiteko erabiltzerik. Lankide marikoi batek esan zidan, “Zer gertatzen zaigu lanean? **Armadura jantzi behar al dugu?**”».
- ▶ «Hemengo gizartea irekiagoa da; homofobia egon badagoen arren, ez da han bezainbestekoa. Komentarioak egiten dizkizute, bai, baina **hangoarekin alderatuta, txikikeriak dira**».
- ▶ «Uste dut hemen gure burua askatasunez adierazi dezakegula (agian ez dut egoera behar bezain beste ezagutzen, Donostialdea bakarrik). Adineko jendea trenean ikusi dut protesta egiten: “Nola egin dezakezue hori haurren aurrean?”. **Ez han bezainbeste**, baina badira kasuak».
- ▶ «Uste dut helduak gai direla, baina nire senarrak dio bere lagun bat Bartzelonara joan zela hemengo presioa ez jasateagatik.

Nire seme-alabek diotenaren arabera, gazteen artean onartuago dago transa izatea gaya baino».

- ▶ «Hemengo LGTBI+ pertsonak badute euren burua adierazteko aukera, baina aurreiritziak daude oraindik ere: jendeak ez du ongi ikusten luma edukitzea, bi neskek elkar musu ematea, nahierara janztea... Ongi dago, **baina ez daitezela gertura**. Zergatik ematen du atentzioa? Zergatik axola digu norbait lodia izateak edo era jakin batera janzteak?».
- ▶ «Lantokiaren arabera. Adibidez, tabernan ongi ikusia dago adierazteko modu berezi bat izatea, iragazkirik gabea. Auzoan, berriz, **epaitu egiten zaituzte gizon izatera ez mugatzeagatik, gizon gisa ez janzteagatik eta gizonen gauzak ez egiteagatik**».

Halaber, kontrako iritzi batzuk ere jaso ditugu:

- ▶ «Nire gurasoak irekiagoak dira; ni, ordea, logikoagoa: sexuz aldatu nahi badute, benetan egin dezatela; jaio, jaiotzen dira eta beraz, erregula dezatela. Nahi dutena egin dezatela, baina utz diezaiotela berriketan aritzeari».
- ▶ «**Ulertzen dut, baina ez naiz iritzi horretakoa**. Askatasuna eta libertinajea ez dira gauza bera. Ez nau modernitateak eraiki. Zer ematen dio gure arimari etika eta printzipioak galtzeak? Herrialde oso aberatsek galdu dituzte dagoeneko eta, orain, zure burua suntsitzeko tresnak eskaintzen dizkizute».
- ▶ «Herrialde honetan **normaltzat jotzen da, baina ez dago ondo**; gaur egun ez zaigu axola halako bikoteak ikusteak... Zer esan diezaikegu, bada!».

Bertako LGTBI+ pertsonak adierazi dute inguruak eta bakoitzaren ahalduntzeak eragin handia dutela identitatea, orientazioa eta

afektibitatea modu irekian eta askatasunez adierazteak izan dezakeen harreran eta jasotzen duten babesean. Halaber, zispasing-ak eta kide zaren kolektiboak ere eragiten dutela aipatu dute. Jatorri latinoamerikarreko pertsonak ere ikusten dute lehengo eta gaur egungo egoeren arteko aldea eta adierazi dute azken 5-10 urtetan aurrerapausoak eman direla.

- ▶ «Nerabezaroan/gaztaroan zailtasun handiak izan genituen. Gaur egun, lan-esparruan ez dugu beti aipatzen. Inguruaren arabera egiten dugu. Lankide gay baten inguruko komentarioak edo txantxak entzuten baditut, ez diet esaten. Ez dut esateko beharrik sentitzen, baina, badakit gainerakoek haurrak edo bikotekideak dituztela. Nolabait, **gustatuko ez zaidan erantzun bat jasoko dudala aurreikusten dut...** Gero, agian, erreakzioa ez litzateke horren gogorra izango».
- ▶ «**Lanean janzkera-kodea daukagu**. Ez digu inork esan, baina bakarrik ateratzen zaizu, ikusi egiten duzu (gizon gisa irakurtzen bazaituzte, ez margotu azazkalak edo begiko marra; neska gisa irakurtzen bazaituzte, berriz, ez erabili makillaje koloretsuegia edo ez adierazi oso era maskulinoan). Estutasuna eragiten dizu. Kargu hartuko al didate? Modu jakin batean jantzi nahiko nuke, baina badaezpada...».
- ▶ «**Bai, maitasun-keinuak erreprimitzen ditut**».
- ▶ «Lasai hitz egiten dut nire bizitzaz, emazteaz, oporrez... Norbaitek “zure senarra” esaten badit, “ez, nire emaztea” esaten diot eta kito. Batzuetan neutroa erabiltzen dut, “nire bikotekidea”. Askotariko estrategiak erabili behar dira eta ez gure burua zigortu».
- ▶ «Askatasunez bizi izan dut hasieratik,

- baina berandu zen dagoeneko. Aitak esan zidan ados zegoela, baina ez nezala lanean ezer esan. Edonola ere, berrikuntza-enpresa bat zenez eta hirian zegoenez, ez zen ezer gertatu, berdin zitzaien».
- ▶ «**Zispassing**-a baduzu, errazagoa da: trans emakumea bazara eta emakume itxura baduzu, ados; ez bitarra bazara eta emakume itxura baduzu ere, ongi. Gizon edo emakume gisa sailkatu zaitzaketen bitartean, berdin zaie queer-a, transa edo bisexuala zaren. Baina noski, emakumetzat hartzea beti da okerragoa».
 - ▶ «Nerabeentzat/gazteentzat errazagoa da euren burua adieraztea, aurreko belaunaldiak bidea erein eta goldatu zutelako. Lan handia egin zuten eta, horri esker, orientazioa eta adierazpena agerian jartzeko askatasun handiagoa dago gaur egun. Sare sozialak ikaragarriak dira, neurri batean, baina saretzeko ere balio dute (etxean edo inguruan sarerik izan ezean), **erreferenteak** daudela ikus dezakezu eta zu bezalako jende gehiago dagoela».
 - ▶ «**Gaztea izanda errazagoa da**, baina 70 urteko gay bikoteak ere ezagutzen ditugu. Senideen babesa jasotzeak –edo behintzat, haiekin arazorik ez izateak– asko laguntzen du. Batzuk emakumeekin ezkondu ziren lehenik, eta gero banandu. Beste batzuk hasieratik bizi dira haien modura».
 - ▶ «Herriaren arabera. Batzuetan lan handia egin dute eta babestuta sentitzen gara. Gainera, passing-a daukagu, ez da nabaritzen mutil transak garenik eta horrek askatasuna ematen digu, ez baita inor ohartzen. Luma daukatenak gehiago nabarmentzen dira; ez bitarrak ere bai. Edonola ere, beldurra eduki, badauzkagu. Ez dago herri edo hiritar perfekturik».
 - ▶ «**Gure inguruneetan bai**, ezagutzen gaituzte, itxura maskulinoa dugu, onargarria; ez da nabaritzen. Bizitza normatiboa daukagu (bikotekidea, lanpostu ona eta balioetsia, adierazpen esajeraturik ez, zuriak gara). Ahoa itxita mantentzen eta trabarik egiten ez dugun bitartean, ez da ezer gertatzen».
 - ▶ «Lehen modu oso normatiboan jantzen nintzen, ez nuen nahi lesbianen ondoan jar nintzaten. Arreta maskulinoa nireganatzen saiatzen nintzen, ez nuen nahi inork seinalatzerik, janzkera hiperfeminizatua nuen; kolektibokoa nintzen, baina ez nuen adierazten».
 - ▶ «**Genero-adierazpen ez normatiboak molestatu egiten du**. Kontziente izan behar zara mugitzen zaren moduaz, egin dezakezunaz, jendeak irakurtzen zaituen moduaz eta lanean ematen dizun zilegitasunaz. Eta, gero, “tira, halakoak ez dira gertatzen! Herria eta zure adineko jendea espazio seguru gisa sentitzen ez badituzu, zure kontua da”».
 - ▶ «Ez bitarrak zigortu egiten dira eta presioa egiten zaie, ez dutelako jarraitu nahi bikotekide monogamo eta egonkor bat edukitzearen bide hori. LGTBI+ kolektiboko gainerakoen egoera baino are zailagoa da. Hormonak hartzeko trabak jartzen dizkiete baliozkoak diren bi generoetako bat aukeratu ezean».
 - ▶ Bertakobiamakumezisheteronormatiboek bat datoz adineko heldu gisa duten ikuspegiak bat datoz: «Mutilek herritik joan behar izan dute urte askoan. Lesbianena kolektibo indartsu eta onartua da, baina denek ez dute modu berean bizi izan. Lesbiana bikote heldu batzuek argi adierazten dute eta beste batzuek, ordea, ez. Batzuk berandu atera dira armairutik. Transentzat zailagoa izan da, haien historia dute, jipoitu egin dituzte. **Beste**

garai batzuk ziren. Gaur egun ikuspegia asko zabaldu da».

Jatorri latinoamerikarreko pertsonak ere, bereziki LGTBI+ kolektibokoek, ikusten dute genero-adierazpen ez normatiboak neurri handiagoan edo txikiagoan onartzen direla faktore horien arabera. Matxismoaren ondorioz gaitzespen gehien jasotzen dutenak gizonak edo emakumeak ote diren galdetzean, iritzi kontrajarriak eman dizkigute. Arrazializazioaren faktorea ere askotan jarri dute zalantzan: arrazismoa LGTBI+fobiari gehitzen zaio? Passing gutxiago edukitzeak diskriminazio gehiago jasatea dakar? Pribilegioaren ardatza dirua izateak gainerako zapalkuntza ardatzak desegiten ditu?

- ▶ «**Emakumeak desabantaila-egoeran daude beti.** Gehiago aztertzen eta kritikatzten gaituzte. “Zakil on batekin lesbiana izateari utziko zenioke” eta halako komentarioak. Gayek denbora gehiago daramate aintzatespena lortzeko borrokan eta onarpen handiagoa dute. Nabaritzen den edo ez, errazagoa edo zailagoa da».
- ▶ «**Gazteak nahierara** adieraz daitezke, baina **helduak ez hainbeste.** Bi neskek musu ematen badute, beti begiratuko dituzte; batzuk nazkagatik, beste batzuk jakin-minagatik. Ez dugu onarpenik behar, baina jendeak gaizki sentiaraz zaitzake. Ingurunea zein den –herria, auzoa, betiko kafetegia–, ezagutzen bazaituzte, ez zaituzte gaizki ikusten».
- ▶ «Transgeneroen egoera da zailena, adierazpen gutxiesgarrienak haiek jasotzen dituzte».
- ▶ «Egoerak berdina izan beharko luke LGTBI+ komunitate osoarentzat. Sigla guztiak ditu eta denak ospatu beharko genituzke. Baina, **transentzat are zailagoa** dela uste dut; gayen eta lesbianen gaia gehiago jorratzen da, baina transei

arraroak izango balira bezala begiratzen diete. Batzuek muturrera eramaten dute, janzteko duten moduarekin ematen du atentzioa eman nahi dutela, gauza asko haiek eragiten dituztela... Jendeak ez luke hala erreakzionatu beharko, jakina, baina makillatzen eta janzten diren moduak atentzioa ematen du eta jendeak ezin du hori barruan gorde. Orain emakumea naiz eta behar baino emakumeago izango naiz. Gizon transengan gutxiago nabaritzen da. Lesbianek morboa eragiten dute gizonengan (“biekin egongo banintz, zer egingo ote lukete nirekin...”) eta onartu egiten dira».

- ▶ «**Mutilak gehiago gutxietsi ohi dira** neskak baino. Zenbat antzematen den kontu. Bi neska bizilagun ditu eta ez zaie bat ere nabaritzen, orrazkeragatik eta ibiltzeko moduagatik neskak dira, normalak. Mutil batzuk ere ez dira *afeminatuak*».
- ▶ «Gizonekiko gutxiespen handiagoa dago, Latinoamerikan bizi dugun matxismoagatik. Lesbianekiko, berriz, morboa dago, ez hainbeste gutxiespen. Ikusi egin nahi dute».
- ▶ «Unibertsitatean ez dago arazorik, geure burua lasaitasun osoz aurkezten dugu bisexualak garela esanez. Arazorik gabe hitz egiten dugu gure harremanez. Mutil bikote gutxiago ikusten da; bisexual eta lesbiana gehiago. Queer-ek eta transek ere onarpen gutxiago dute».
- ▶ «Transa izanda askoz ere errazagoa da alde batetik bestera eramaten bazaituzte eta zure buruari etiketa bat jartzen badiozu. Egoera zailagoa da **ez bitarrena**, genero malgua dutenena...».
- ▶ «Gaya bazara, gona janzten baduzu eta hanketan ileak badituzu, atentzio handiagoa ematen du; ezin zaitut ezein

laukitan sartu. Antzematzen bada, baina aberatsa bazara, pribilegio gehiago izango dituzu. Horrek badauka glamour eta onargarritasun ukitu bat. Beste faktore batzuek ere eragiten dute, adibidez, latinoamerikarra izateak. “Nork esan dizu hona etortzeko”, “itzuli zure herrialdera” eta halakoak entzuten jarraitzen duzu.

Orain nire genero-adierazpenak atentzio handiagoa ematen du latinoamerikarra izateak baino».

- ▶ «Pertsona arrazializatua izanda, beldurra ematen du LGTBI+ zarela argi esateak, **bestelako diskriminazioei gehi dakiekeelako, baita zure komunitateak berak diskriminatzeak ere».**
- ▶ «Orokorrean, hona heltzen garen guztiok ditugu zailtasunak. Pixkanaka joan behar dugu, paperak egiten... Denok ditugu bizipen gogorak. Iruditzen zait gehiago sufritzen dugula diskriminazioagatik, LGTBI+ izateagatik baino».
- ▶ «Uste dut **hemen gutxiespen handiagoa jasaten dugula beltzaranak izateagatik LGTBI+ izateagatik baino**. Azala ezin da ezkutatu, edonor etor dakizuke eta eragotzi. “Hara, hemengoei lana kentzera datorkigun beste sudaka bat” eta halakoak.
- ▶ «LGTBI+ kolektibokoa den migranteak alde guztietatik astintzen dituzte: are gehiago transa bazara, paperik ez baduzu... **LGTBI+ aktibismoaren barruko diskriminazio arrazista eta klasistari** buruz eztabaidatu beharko genuke».
- ▶ «Lesbianak okerrago, emakumeak izateagatik diskriminatzeaz gain (horrek denoi eragiten digu), arrazializatuak izateagatik ere diskriminatzen baitituzte».
- ▶ «Ez dit asko eragiten, ez migrantea izateagatik (azal nahiko zurikoa naiz), ezta lesbiana izateagatik ere (ez da

antzematzen, non eta neska eskutik heltzen edo musukatzen ez badut), baina lehenak gehiago gogaitzen nau. Lagun ilunago bat daukat, afro ilea du eta arropa deigarriak eramaten ditu, eta harekin okerrago da. Hiri beretik datoz eta desberdin bizi dute; **emakume latinoamerikarra nor den dioten estereotipoak dira».**

- ▶ «**Adinak, klaseak eta diru-sarrerek, migrazioak: horiek guztiak dute eragina**. Geroz eta diru gehiago izan, adierazteko are askatasun handiagoa. Pobreen lan-esparruetan zailagoa da. Norberak sentitzen duen zerbait da: pertsona dirudunek autonomia kultural eta ekonomiko handiagoa dute haien sexu-orientazioa ulertu eta adierazteko. Beste esparru batzuetan, nagusiaren eta inguruaren ikuspegiaren arabera, arrisku handiagoan daude eta, bizirauteko ikuspegi horren mende badaude, euren burua mugatzen dute. Adinean aurrera, inperatiboagoa da lan-esparruan eta mugatu egiten dute haien adierazpena. Gazteek onarpen handiagoa dute eskolan, instituzioak babes handiagoa eskaintzen du. Migrante izateak elementu bat gehiago gehitzen du, are gehiago transgeneroa izanda, prostituzioarekin lotzen baita».
- ▶ «Diruak du eragin handien. **Diruduna zarenean, tratua desberdina da**, nahierara adieraz zaitezke, boterea daukazulako. Nahi duzunaz hitz egin dezakezu, entzun egingo zaituzte eta».
- ▶ «Eskubideak klasearen arabekoak ere badira. **LGTBI+ latinoamerikar dirudunak dibertigarriak dira** festetan. Gonbidatzen badituzu, ongi geratuko zara, exotikoak dira. Gizartea hipokrita da».

Diskurtsoaren gakoak: **sexu-orientazioaren, sexu-eta genero- identitatearen eta afektibitatearen adierazpena**

- Jatorri latinoamerikarreko pertsona guztiek, bai LGTBI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, adierazi dute –ñabardura batzuekin– LGTBI+ pertsonak euren burua modu irekian eta askatasunez adierazteko aukera dutela Gipuzkoan. Bertan denbora gehiago daramatenek mugak argiago ikusten dituzte. Halaber, uste dute haien jatorrizko herrialdearekiko alde handia dagoela.
- Parte-hartzaile batzuek ez dute hemen ikasitakoa naturaltzat eta ontzat jotzen, baina positiboa dela uste dute eta normaldu egin dute, errespetuan eta askatasunean oinarritutako gizartearen parte dela iruditzen zaielako eta balioon arabera bizi nahi dutelako. Gutxi gorabehera parte-hartzaileen erdiak adierazi du sexu- eta genero-aniztasunarekiko ikuspegi aldaketa migratu ondoren gertatu dela. Gipuzkoara heldu eta onartzen dituztela ikusten dute eta horrek lasaitu egiten ditu; tabu gisa ikusteari uzten diote, baita senideei dagokienez ere. Parte-hartzaileen beste erdiak adierazi du lehendik ere zalantzan jartzen zituztela matxismoa eta/edo heteroaraua. Bi parte-hartzaile ez daude ados.
- Bertako LGTBI+ pertsonak adierazi dute inguruak eta bakoitzaren ahalduak eragin handia dutela identitatea, orientazioa eta afektibitatea modu irekian eta askatasunez adierazteak izan dezakeen harreran eta jasotzen duten babesean. Halaber, zispasingak eta dagokizun kolektiboak ere eragiten dutela aipatu dute.
- Bai jatorri latinoamerikarreko pertsonak, bai bertakoek adierazi dute adineko LGTBI+ pertsonak eta pertsona ez bitarrek zailtasun handiagoak dituztela euren burua modu argi, aske eta seguruan adierazteko.
- Jatorri latinoamerikarreko pertsonak, batez ere LGTBI+ kolektibokoek, gaineratu dute arrazismoak eta klasismoak ere nabarmenki eragiten dutela haien esperientzietan. Bertako LGTBI+ pertsona gehienek ez dituzte elementuok haien esperientzien edo azterketa orokorraren baldintzatzaile gisa identifikatu.
- Jatorri latinoamerikarreko eta bertako LGTBI+ pertsonen artean harreman eskasa dagoenez, ezjakintasun handi samarra dago bertako LGTBI+ pertsonak jasandakoaren eta egindako ibilbidearen inguruan. Ildo horretatik, Gipuzkoan denbora asko daramaten jatorri latinoamerikarreko LGTBI+

pertsonak eta/edo nerabezaroan heldu zirenek ezagutzen dituzte ondoen bi errealitateak.

ERREAKZIOAK

Bertako zein jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ kolektiboko parte-hartzaileen eta haien ahaideen kontakizunen arabera, honako sentimendu eta pentsamendu hauek sortzen dituzte gizartean LGTBI+ kolektiboaren errealitateek: jakin-mina, morboa, ustezko promiskuitatea, beldurra, nazka eta babesa.

Hurrengo lerroetan, jatorri latinoamerikarreko pertsonen lekukotzak bildu ditugu:

- ▶ «Uste dute **sexu-harremanak** edukitzen dituztela **etengabe**. Ez dizute esaten bekataria zarenik eta deabruak eramango zaituenik, baizik eta zaindu egin behar dugula. Uste dute denok daukatela hiesa».
- ▶ «Familia batzuk lasaiago daude hemen daudelako eta ez han. Izan ere, han gehiago sufrutuko lukete, seinalatu egingo lituzkete. Esaten dietena **haiek babesteko** da, haien ongizateagatik. Ez da soilik latinoamerikarrekin gertatzen, hemendik ere bota egiten dituzte, familia-eredu perfektua nahi dutelako. Ezagutzen dut identitateari buruz senideei ezer esan ez dien bertako jendea ere; asko ikusiak izan arren, ezkonduko direlako itxaropena dute».
- ▶ «Orain izugarritzko festa egon da, baita nire herrialdean ere. Pertsona heterosexual asko eta sigla guztietakoak ere bai. **Ikusgaitasun horrek kontrako erreakzioak ere sortzen ditu**, atentzioa ematen du eta pertsona batzuk mehatxatuta sentitzen dira: mundua galbidean dago, kontrola galtzen ari da.

Erreakzio arriskutsua izan daiteke».

- ▶ «**Jakin-mina, gaitzespena eta ikusmina** sortzen ditu: nola geratu da? Gizonek emakume transak pasatzen ikusten dituztenean asko gertatzen da».
- ▶ «DBHn, bazegoen *luma* zeukan ikasle bat. Neskekin harreman ona zuen eta bere buruaz femeninoan hitz egiten zuen. Mutilak ez zitzaizkion gerturatzen, **jendeak beste harreman mota bat zuela pentsatuko ote zuen beldur**».
- ▶ «Egun batean, makillatutako mutil afeminatu bat sartu zen aldagelan, bere burua neska gisa identifikatzen zuena. **Neska batzuk deseroso sentitu ziren hura janzten ikustean**. Zakildun gorputzak ez dira emakume gisa irakurtzen. Badago jendea uste duena mutil batzuk gay plantak egiten dituztela nesken taldean sartzeko, haien konfiantza lortzeko eta, ondoren, gehiago ikusi ahal izateko. Gaur egun ohikoagoa da nesken edo mutilen aldean aldatzea eta, haien gustua edo desira edozein izanik ere, eta unisex komunak egotea».
- ▶ «Trabestien inguruko **morbo** handia dago eta *heterokurioso* asko, hau da, gay eta transekin probatu nahi duten gizon heteroak».

Bertako LGTBI+ pertsonen lekukotzek ere bizipen horien ildotik doaz:

- ▶ «Ez dute inor iraindu nahi, **on ustean egiten dute eta ezjakintasunetik**, errealitateaz jabetzeko beldurrez: norena da haurra? Nor da aita? Noren antza du?».
- ▶ «Beste **batzuek toleranteak direla argi uzteko beharra dute**: “lehengusua ere gaya da”, “nik ere badut lagun beltz bat”, “bizilagun bat lesbiana da”...».
- ▶ «**Askotariko begiradak** daude: egiten ari zarena oker dagoela adierazten dutenak,

- maitagarriak zaretela diotenak, jakin-minezkoak... Guztiak dira deserosoak».
- ▶ «**Ez dituzte harreman afektiboak ongi ulertzen**, ez dira gai irudikatzen lesbiana bikoteak serioak eta funtzionalak direla... Bertakoekin eta atzerritarrekin gertatzen da».
 - ▶ «Maitasunik eta afektibitate gabe harremanak irudikatzen dituzte; beti promiskuitatea».
 - ▶ «**Lesbianekin fantasiak irudikatzen dituzte**. Mintzen duten broma ugari daude, “hori zakil bero bat probatu ez duzulako da” eta antzekoak. Denborarekin erantzuten ikasten duzu. Gaztea zarenean izutu egiten zara. Adinak, sareak, inguruak, izaerak... Denak eragiten du halakoen aurrean zerbait esateko edo erantzuteko gaitasunean».
 - ▶ «**Molestatu egiten die emakume kirolariak espazio maskulinoak hartzeak, are gehiago, emakumeak lesbianak badira**».
 - ▶ «Festa-giroan, lesbianak helburu gisa ikusten dira eta gayek, berriz, nazka ematen dute. Gainera, edan badute, bestela galdetuko ez lituzketen gauzak galdetzen dituzte».
 - ▶ «**Gizartea kutsatzeko beldur** dira (lehenik gay bihurtzeko eta, orain, baita trans ere). Halako lagunik baduzu, ideiak kutsatuko dizkizute, moda bat, prozesu erraz bat izango balitz bezala... Berria denaren, aukera-sorta zabalaren, ezezagunaren beldur dira eta horrek gutxiespena eragiten du: “gaya naiz eta ez dut onartu nahi edo ez naiz eta ez dut inoiz izan nahi”. Babestea eragiten duen beldurra, familia».
 - ▶ «Kasu batzuetan **miretsi egiten gaituzte**: “a zer ausardia!”. Molestatu egiten dit etengabe erreferente gisa jartzeak, “begira hori, armairutik atera da eta normal bizi da”, “zuek ahal baduzue, nik zergatik ez” eta halakoak. Askatzailea da gizarte osoarentzat».
 - ▶ «Mutil ginenean ezagutu gintuzten lagunak, transak garelako jakiten dutenean, **ez dakite gu nola izendatu edo guri nola zuzendu**, mintzeko asmorik ez badute ere. Nola nahasten dira? Ulertu dezaket txikitan neska bezala ezagutu gaituztenen kasuan, baina...».
 - ▶ «**Errespetua gora eta behera** darabilte, baina txistea botatzen dute: “begira horko hori nola doan jantzita” ».
 - ▶ «Gimnasioan, hemengo mutil batek pisu gehiago altxa ezin, eta lagunak “marikoitzar” deitu du. Ondoan dagoen gay latinoamerikar batek, entzungailuak kendu eta “zer?” erantzun die. Besteak lotsatu egin dira».
 - ▶ «Txutxu-mutxu gutxiago egoten da bizitza arrunta daukazula ikusten dutenean, drogarik gabekoa, gaueko girotik urrun... Dena nahasten dute, trabestiak, transformerrak... **Exotikoa dirudi**, ohikoa da. “Begira, hau da...”. Aurkezpenetan ere gertatzen da, “hau xx da, nire lagun transa”».
 - ▶ «Etengabe ari gara militatzen, entziklopedia ibiltariak bezalakoak gara. Askok galdetzen dizute, ezjakintasuna dago; batez ere jakin-mina eta morboa; parranda-giroan gertatzen da, lan-arloa ez da horretarako testuinguru egokia. Ez bitarra bazara, estereotipoak apurtzen dituzu zalantza sortzeko eta inork zarena auresuposatu ahal ez izateko, baina horrek pisu handia du eta **arriskuan jartzen duzu zure burua**. Ez aipatu izana egotzen zaie, “jakiteko eskubidea daukat”... Ligatu aurretik, gero sorpresarik egon ez dadin, edo lanean (“arraioa, askotan esan dizut”, “hori barrabilak”

eta ez dauzkazu). **Heteroaraian dagoen jendeak uste du jakitea exijitu dezaketela**, zure intimitatean sar daitezkeela. **Estereotipoak mantentzen badituzte ere kritikatzan dituzte**: “gizon transa zara eta gizona ematen duzu” (bizarragatik, arropa motagatik...). Emakumeen kasuan (makillatu egiten dira), normatibotasunarekin bat etortzeagatik eta bizitza lasaia izateagatik, rola haien errua izango balira bezala; baina, bizarra badugu eta soinekoak janzten baditugu edo gizonak gustatzen bazaizkigu... “Zergatik egin zara trans?” Dena jartzen dute zalantzan!».

Halako sentimendu eta pentsamenduak nagusiki nork eduki eta adierazi ohi dituen identifikatzen saiatu gara eta erantzuna kezagarria da: gizonek. Hein handi batean bertako gizonek, gazte zein helduek. Azpimarratu behar dugu bertako LGBTI+ pertsonenez dituztela jatorri latinoamerikarrek gizonak modu esanguratsuan aipatu. Jatorri latinoamerikarrek LGBTI+ pertsona batzuk bakarrik adierazi dute haien herrialdeko pertsonen -gizonen- bereziki gaitzesten dituztela sentitzen dutela. Bestetik, bertako LGBTI+ pertsonen soilik adierazi dute feminismoak berak LGBTI+ kolektiboak transfeminismoarekiko eta ez bitartasunarekiko erreakzio kritikoak dituztela.

Hurrengo lerroetan jatorri latinoamerikarrek LGBTI+ pertsonen lekukotzak bildu ditugu:

- ▶ «Adinekoek gehienbat, **50 urte baino gehiagoko bertako pertsonen, jasoak izanik ere**, bolleraren eta marikoiaren inguruko komentarioak egiten dituzte, “ziur ase ez zintuztelako zarela bollera”. Helduak LGBTI+ pertsona asko joaten diren diskoteka batera joaten badira, egoera ikusi eta alde egiten dute, beldurtuta».

- ▶ «Gizarte osoagandik, batez ere **50 urte baino gehiagoko gizonengandik**».
- ▶ «Kritikatzen dutenak **gizonak** dira, ez emakumeak».
- ▶ «60 urteko bertako gizonak dira gehien gaitzesten gaituztenak. Adierazpenak (marikoi) eta gaya izateari buruzko txisteak egiten dituzte. Zifren arabera, gazteen artean ere areagotzen ari dira halako jarrerak. Ez dut arrazoia ulertzen, nire inguruan ez dut hori ikusten. **Gutxien diskriminatzen dutenak 30-50 urte bitartekoak**».
- ▶ «Gizonen lizunkeriak eta morboz begiratzen gaituzte, gauzez batez ere. Biolentzia da. Kanean, erosketak egitera goazenean elkarri eskutik heltzen badiogu, adineko jendeak komentarioak egiten ditu eta ahapeka hitz egiten du. **Beti hemengoek**. Ez dut inoiz sentitu kanpoko inork hala begiratu nauenik».
- ▶ «Bertakoek ikuspegi itxia edukitzen jarraitzen dute, barre egiten dute eta harritu egiten dira. **Nire herrialde bereko jendeak diskriminatu** nau. Hemen egon arren, pentsaera zikina dute beti. Gauza itsusiak esan dizkiote, bere adineko mutilek batez ere. Ez die haien matxismoagatik jaramonik egingo, ez du haiek esaten diotelako egingo».
- ▶ «**Latinoamerikarren artean argiago adierazten dute haien iritzia** eta modu oldarkorragoan, adina edozein izanda ere. Erosoago sentitzen dira latinoamerikarra zarela ikusten dutenean; badirudi haien iritzia emateko eskubide gehiago dutela. Guk latinoamerikarregan jartzen dugu arreta, inguruan gehiago dauzkagulako (eskoletan, diskoteketan...), **baina mutil hetero euskaldunek beti esaten dizute zerbait, bai LGBTI+ izateagatik, bai latinoamerikarra izateagatik**, ez

dutelako onartzen kuadrillako bati neska latinoamerikar bat gustatzea edo mutil latinoamerikar bisexualik egotea».

- ▶ «Jende askok egin dizkit komentarioak. Deserosoenak **jatorri prekarioko pertsonak** izan dira, etiketa falta dutenak, emakume oso feminizatuak eta gizon oso maskulinizatuak; badakit mezua nondik datorren eta edukazior erantzuten diet. Ez da jatorri latinoamerikarra dutelako, baizik eta balioetan hezi ez dituztelako. Sistema patriarkalaren biktima diren herrialdeak dira».

Jatorri latinoamerikarreko pertsona zisheteronormatiboek hau adierazi dute:

- ▶ «Gazteak gaia normalizat hartuta hazi dira, betidanik egon da mahaigainean eta ez zaie arraroa iruditu; uste dut belaunaldi honek gorroto gutxiago duela, ez diete ingurukoei jaramonik egiten, bakoitzak egin dezala nahi duena. LGTBI+ bazara, bada, zorionak. Hala ere, **badago onartzen ez duen gazteen ehuneko txiki bat**, hezi den inguruaren arabera, baina ez da esaten dutena bezain larria».
- ▶ «Mundu honetan denetik dago; batzuei molestatu egiten die, helduei, agian; gazteei berdin zaie, ez dute ezer esaten. Nire aldetik, bakoitza zorionsu bizi dadila nahi duen moduan».

Bertako LGTBI+ pertsonen lekukotzak ere partekatu nahi dizkizuegu:

- ▶ «**Alfa ar euskaldunengandik gehienbat**, iraintzeko. Emakumeek, ordea, lotsatik esaten dituzte, ulertu gabe. **Kanpotarrengandik gutxi eta noizean behin**».
- ▶ «Gipuzkoa sakoneko herri txikietan ez dira horren toleranteak. Badago inoiz LGTBI+ pertsonarik ikusi ez duen jendea. Adingabe bat gurekin jarri zen

harremanetan, etxetik bota zutelako».

- ▶ «Gehienbat gizon **zisheterosexual zuri normatiboengandik**. Badaude pertsona transexualak edo ez normatiboak diskriminatzen dituzten **gizonkote zis gayak** ere. **Feminismo transbartzertzaileak** eta transmisoginoak ere rol horiek betikitzen ditu, ez baitu zis izate horretatik kanpoko ezer ikusten; lesbianak edo heterosexualak izatera mugatzen da; ez du zertan onartu, utz diezaiola jendeari bakean bizitzen. Kanpotarrengandik baino gehiago, kolektiboko kideengandik edo kolektiboak transfeminismoaren kontra».
- ▶ «**Gehienbat bertakoengandik**: emakumeek begiradak eta keinuak botatzen dizkizute eta ahapeka hitz egiten dute; gizonak, ordea, agiraka egiten dizute. 50 eta 70 urte bitartekoengandik eta nerabe abertzaleengandik. Magrebeko pertsonengandik ere bai. Latinoamerikarrengandik ez, edo agian ez dut antzeman. **Bigarrenik, nire belaunaldiko jendearengandik (gazteak), orain Voxekoak direla esaten dutenen horiengandik**».
- ▶ «Bigarren hezkuntzan, **landa-eremu sakon** eta oso zisheterosexualean, erresistentzia handia zegoen. Pertsona migranteekin, orokorrean, oso ondo».
- ▶ «Pertsona gogaikarri horiek ez dira talde jakin batekoak, maila guztietan gertatzen da. Ezin da sailkatu zein izan daitekeen transfoboa, halakoak toki guztietan daude».
- ▶ «**Adinkideak eta gertuko pertsonak** izan dira gehienbat: ikaskideak, lankideak, parranda-giroko jendea. Eraso fisikoen edo ahozko erasoen kasuan, beti gizonak. Maila baxuagoan, emakumeak ere bai: komentarioak, sexu bereko

bikotekidearekin zaudenean nola jokatu ez jakitea...».

- ▶ «Halakoak 40 urte inguruko gizonek esaten dituzte tabernan, garagardo baten bueltan. Baina 20 eta 30 urte inguruko lagunak artean ere entzun izan ditut komentarioak».
- ▶ «**Gertukoengandik** batez ere, baita ezezagunengandik ere. **Beti gizonengandik**».
- ▶ «**Gazteengandik eta gizon kuadrillengandik**».
- ▶ «Haurdunaldian, gizonengandik aparte, emakumeengandik ere bai».
- ▶ «Kalean ez dut nabaritu **persona arrazializatuak jarrera LGTBfobikoagoak dituztenik, ezta gutxiago ere**. Gizon eta emakumeen artean, aitzitik, alde handiagoa ikusten dut: gizonengandik gehiago».
- ▶ «Lan-ingurunean pertsona arrazializatuak, helduak, familiadunak, sinestunak eta ikasketa-maila baxukoak daude, besteak beste. Nire estereotipoez ohartu naiz, **ustenuen matxistak eta aurreiritziz beteak izango zirela, baina, ezta inondik ere**; zu limurtzen saiatzen dira, marikoi gisa irakurtzen zaituzte, arazorik gabe...».
- ▶ «Adineko jendeagandik astakeriak entzun ditut, bai Euskal Herrikoengandik, bai espainiar Estatukoengandik, bai kanpokoengandik; **bertakoek harrokeria handixeagoz egiten dituzte komentario matxista eta LGTBfobikoak**».
- ▶ «**Inguruko pertsona arrazializatuak kideago sentitzen ditut**. Adibidez, lagun batek emakume arrazializatu izateagatikoz zaurgarritasuna sentitzen du; bere ama izan zen herrira heldu zen lehenetariko latinoamerikarra eta, ondorioz, enpatia sentitzen du diskriminazioarekiko».
- ▶ «Ez dugu pertsona migranteengandik diskriminazio berezirik jasan. Are gehiago,

hemengo jendeak zerbait esaten dizu edo gaizki begiratzen zaitu. LGBTI+ pertsonak latinoamerikarrak izan daitezke. LGBTI+ komunitatea ez dago hemen bakarrik. Gehiago esango dut: hemengo neska trans gehienak latinoamerikarrak dira».

Ikusi dugun moduan, parte-hartzaileek adierazi dute batez ere bertako gizonak direla sexu- eta genero-aniztasunaren kontrako jarrera eduki ohi dutenak. Hala ere, jarrerok izatearen arrazoiak ez ditugu azaldu erasoan atalera heldu arte. Aitzitik, parte-hartzaileei LGBTI+ errealitateak ez onartzeko arrazoen inguruan galdetu diegunean, jatorri latinoamerikarreko pertsona gehienek, bai LGBTI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, haien komunitatearen arrazoietan jarri dute arreta. Erljioa eta familia dira arrazoi nagusiak (% 80), biak matxismoan murgilduak. Neurri handi batean, elementuok jatorrizko herrialdeetan, migrazio-prozesuetan eta helburuko herrialdean duten garapenean baldintzatzen dituzte, bai etika eta balioak osatzeko eta haien identitateak eta normaltasuna eraikitzeke orduan, baita sostengu materialean ere. Jatorri latinoamerikarreko pertsona batzuen kasuan, eurekin ekartzen duten zerbait da erlijioa, baita hemen babesa lortzeko erabiltzen duten tresna bat ere. Erljioaren babes horrek badu lotura klasearekin eta harrera-ereduarekin.

ELIZAK:

- ▶ «Nire inguruan, familia katoliko kontserbadoreak ez zuen onartzen alaba lesbiana izatea, are gutxiago bikotekidearekin etortzea. Familia zabalak hitz egiteari edo bisitan joateari utziko lioke. Latinoamerikatik datozen pertsonak euren erlijioa ekartzen dute hona eta laguntza-taldeak antolatzen dituzten askotariko elizekin bat egiten dute (besteak beste, lana edo gela bilatzen laguntzen dute; **erreferente eta sare dira**). Herri txikia denez, kontrol sozial handia dago, denek

dakite non dauden. Ama gisa, baliteke seme-alabek dituzten aukeren inguruko iritzi desberdina izatea, baina babesten dituen elizak ez du onartzen... Klase baxuarekin gertatzen da gehienbat, hau da, zaintza- eta garbiketa-lanak egiten dituztenekin. Bestela, bikote mistoek edo bestelako lanak egiten dituztenek askatasun handiagoa dute, beste era batera antolatzen dira eta maizago joaten dira Donostiara edo Gasteizera».

- ▶ «Katolizismoa ahultzen ari da eta eliza ebanjelikoak, berriz, indartzen. Sare-egitura bat dute. Harrera-lanak egiten dituzte, besteak beste, lana, pisua, elikadurari eta paperei buruzko informazioa eskainiz. Elizetatik zetozen eta hemen, halako lanen ondorioz, gehiago parte-hartzen dute. Eliztarrekiko kontrol- eta zaintza-egitura bat ere badute; joaten ez badira, deitu egiten diete, galdetu... Hemengo eliza ebanjelikoa AEBetatik dator eta homosexualitatea gaixotasuntzat daukate (pobrezia ere bai) eta hori deabruaren arrastoa da, Satan barruan sartu zaizulako seinale. Eliza katolikoan, OPUSek kritikatu egiten du, baina, orokorrean, ez dute gaixotasun gisa ikusten».
- ▶ «Erljioak pisu handia izaten jarraitzen du: hona heltzean ebanjelikoak dira eta eliza horietan sartzen dira; bizitzeko modu bat da, lagundu egiten diete. Katolizismoak ez die ezer eskaintzen, ez du nahi gerturatzerik ere».

FAMILIA ETA BALIOAK:

- ▶ «Han familia eta balioak oinarri garrantzitsua dira oraindik eta orain dena jarri dute hankaz gora. Oso gogorra da hori onartzea. Patriarkatuaren kontra borrokatzearena bai, baina hau beste gauza bat da».

- ▶ «Bilobaren osaba bat gaya da eta ahizpak ez du nahi ilobak harekin harremanik edukitzerik, kutsatu egingo diolakoan. Ez dizkiot ahizpari balioak aldatuko, baina azaldu diot ez dela kutsakorra, ez dela birus bat. Batzuk hala jaiotzen direla, eta nahi duenak egin dezakeela».
- ▶ «Batzuk kexu dira, eskolan sexu-aniztasunari buruz irakasten dietelako, doktrinatu egingo dituztelako. Ez du axola non eta zenbat denboran bizi diren; okerragoa dela esango nuke, mehatxatuta sentitzen dira eta».
- ▶ «Erljioa garrantzitsua da familian eta haientzat. Bekatu egiten dutela barnerarazi diete, oker daudela, *desbiatuak* direla. Lagun baten kasuan, familiak uko egin dio. Beste baten kasuan, ordea, onartu egin dute, baina berak errudun sentitzen jarraitzen du, ez baitago ziur Jaungoikoarekin nahi besteko harremana izaten jarraitu dezakeen. Hemen bekatuaren/aniztasunaren inguruko erradikalizazio handiagoa dagoela iruditzen zait; presio gutxiago ere bai, jende gutxiago dago eta».
- ▶ «Hango pertsona gehienak kristauak edo katolikoak dira, baina erlijioak berak ez die uzten beste pertsonak maitasunez ikusten. Biblia gizonaz eta emakumeaz ari bada, ez diezu hala definitzen ez direnei begi onez begiratzen».
- ▶ «Erljioa garrantzitsua da; belaunaldi belaunaldi transmititu da eta gizona/emakumea soilik daudela dio. Hortik ateratzeak eta fededuna izaten jarraitzeak gatazka sor lezake».

- ▶ «Erljioak dio familia heterosexuala dela bide egokia. Bibliak dio bi gizon elkartzea bekatua dela. Baina, hala jaio bagara? Zer erru daukagu? Ez dut nik erabaki. Emaztea eta seme-alabak eduki nahi nituzkeen,

baina ezin da. Hala ere, ez dut nire fedearen inguruko gatazkarik, oso sinestuna naiz. Erljioa baino, uste dut han matxismo handia dagoela eta pentsamendu horrekin hezten dira. Diskriminazio handia dago».

FAMILIA ZABALA:

- ▶ «Hango familia zabalarekiko nolabaiteko **dolu bat pasa dut**, uste dut ez dagoela esateko gauza handirik; distantzia hartu dut, haien balioekin bat ez datorren bizimodu bat daukat eta».
- ▶ «Hemen pixkanaka, hango testuingurutik etorrita kostatu zitzaidan: “nola hartuko du amak? Hango familiak ez nau maiteko eta arraro begiratuko nau, ez naiz gauzak ongi egiten ari...”».
- ▶ «Familia nuklearrak bai, onartu nau; familia zabala han dago eta zati horrekin ez daukat harremanik, oso kontserbadoreak dira eta. Amak ere ez die ezer aipatu».
- ▶ «Amarekin bai, baina gaia hor gera dadila, familia nuklearrean; ez hemengoarekin, ez hangoarekin, nire burua eta ama babesteko (ni gaizki hezi izanagatik); familiak honen berri daukanean, amak begi onez ikusteari uzten dio; ez dit uzten anaiari azazkalak margotzen, presioak eragin egiten dio».
- ▶ «Aitona-amonei ere esango nieke. Gainerakoei ez, noski; ez du merezi, denak han bizi dira, ez du axola».

HEZKUNTZA:

- ▶ «Erljioarekin edo hezkuntzarekin izan dezake lotura: soineko zuria, igande goizaldean elizara joatea, familia-taldeak, izan behar duzuna... **Amonekin edo adineko izebekin hezi izanak eragina du, tradizionalagoak dira. Hemen, ordea, gehienek alde batera uzten dute erlijioa.** Gure amek denbora luzea daramate hemen,

ikuspegi zabalagoa dute. Sinestunak izaten jarraitzen dute, baina beste era batera».

- ▶ «Jatorri latinoamerikarreko jende askok ez du ongi ikusten, asko erabiltzen dituzte “hori marikoikeria!”; “amak alaba bat nahi duelako izango ote? ez dut uste semeak hori eskatu duenik...” eta halakoak. Nire ustez, beste genero batekin identifikatzen bazara, txikitatik jakingo duzu eta eskatu egingo duzu. Jendea bortitza da oraindik. Matxismoak du eragin handiena ikuspegi horretan; hona etortzean, beste gauza batzuk ikasten ditugu, irakurtzen eta telebista ikusten dugu... Han egongo banintz, baliteke oraindik ere ikuspegi itxiago izatea; han matxismoak ez ninduen molestatzen. Lanean hasi nintzenean, harritu egiten ninduen nagusiak lagunekin bidaiatzen zuenean haurra uzteak. Orain, nik ere joan nahiko nuke, eta gizonak hau esaten dit: horretarako ez eduki haurrik hurrengoan. Gehiago ireki dadin nahi dut. **Batzuengan zergatik ez da aldaketa hori gertatzen? Jatorriagatik, heziketagatik, hazi zaituzten moduagatik... Ez daukat argi».**
- ▶ «Hemen daramaten denborak ez du eraginik, batzuek 20 urte daramatzate eta badirudi atzo jaitsi zirela hegazkinetik. Euskaldunak zurrinak dira, kanpora atera behar dute eta berriro itzuli. Haien balioak ulertzen dituzte, baina ez dute haratago dagoena errespetatzen. Erljioak ere eragiten du; jende askorentzat harremantzeko tresna da, baina ebanjelistak aniztasunaren kontra daude eta ikuspegi itxia dute gizona eta emakumea izateak esan nahi duenarekiko».
- ▶ «Hango gurasoek haiek hezi zituzten erara hezten dituzte haurrak».
- ▶ «Nirekin lan egiten duen emakumezko zerbitzari latinoamerikar batek esaten du errespetatzen duela, baina ez dagoela alde.

Hau da, berak ez lukeela egingo. Denbora gutxi darama eta ikuspegi itxia du; heldutan iritsi zen, 22 urterekin. Ez dut uste landa-eremutik edo hiritik etortzeak eragiten duenik, baizik eta **zuzenean lanera edo ikastera etortzeak**».

- ▶ «**Ikuspegia irekitzeari dagokionez, eragin handiagoa dauka hona etortzean daukazu adinak, hemen daramazu denborak baino:** zenbat eta gazteagotan etorri, errazagoa egingo zaizu, pisu gutxiago duzulako eta eskolan informazioa ematen dizutelako. Eta gero, norekin elkartzeko zaren: ikuspegi itxi bera duen jendearekin elkartzeko bazara, ez zara aldatuko. Han, gaztea zarenerako, tabuek pisu handia dute dagoeneko. 9 urteko neskek hilekoa izatea tabua da; etxea garbitu eta otorduak prestatu behar dituzte. Mutilak kalean egon daitezke eta nahi dutena egin dezakete. Neskak etxean edo eskolan egoten dira eta jaso egiten zaituzte, bahituko, bortxatuko, hilko zaituztelako beldurragatik. Neskak ez dituzte osaba edo lehengusuekin ere bakarrik uzten. Hango neska gazte asko giltzapetuta daukate eta hemen gauzak probatzen hasten dira; hamaika muga izatetik, bat ere ez edukitzera igarotzen dira. Galtzeko arriskua dago. Hemengoari “Sodoma eta Gomorra” deitzen diote. **Mutilena desberdina da: etortzen direnean matxistak dira eta ez dira aldatzen**, hala hezi zirelako eta ongi doakielako; informazio gutxi zuten, agian, baina nahi zutena egiten zuten. Hemen ere hala egiten jarraitzen dute, baina horrek arazo gehiago ekartzen dizkie, hemengo legedia zorrotzagoa baita eta ezin baitute han egiten zuten guztia egin. Matxistak eta LGTBI+fobikoak izaten jarraitzen dute eta, ondorioz, ez dute begi onez ikusten emakumeok etxean geratu nahi ez izatea edo lesbianak edo bisexualak izatea;

esaten dute “galdu, matxinatu” egin direla, “etsigarria” dela, “ardi beltza” garelara».

- ▶ «Batzuek elizekin bat egiteko erabakia hartzen dute, harreraren alderdi material eta praktikoekin laguntzen dietelako, nahiz eta esaten duten guztiaren alde ez egon eta haien seme-alabak desberdin hezi».

Neurri askoz ere txikiagoan, baina bertako LGTBI+ pertsonak ere adierazi dute erlijioak eta familiak ere badaudela nolabaiteko pisu sozial bat:

- ▶ «Uste dut hemen ere badaudela tabuak eta erlijioak garrantzi handia duela, familia-ereduak du boterea».
- ▶ «Uste dut aitari zailagoa egingo zitzaiola onartzea, baina amari kostatu zitzaien gehien».
- ▶ «Familiari: “zer daramazu soinean, zer jantzi duzu, zergatik jokatzeko duzu horrela...?”»
- ▶ «Gaur egun ere, badirudi ezkonduz gero onargarriagoa dela. Ezkontzen ez bazara, ematen du oraindik ere zuzentzeko denbora dagoela edo pasatuko zaizula, edo lagun bat besterik ez dela...».
- ▶ «Erljioa garrantzitsua da niretzat eta senideentzat. Ikuspuntua aldatzea lortu nuen: Jaungoikoa maitasuna bada, zergatik izango dira besteak baliotsuagoak harentzat?».
- ▶ «Sinesteko era asko dago; ez dira gauza bera fedea eta doktrinamendua, aurreiritziak jasotzea, infernura goazela pentsatzea... Kultura kristaua izaten jarraitzen dugu».
- ▶ «Mariaren irudia, emakume perfektua, zaintzailea, atsegina, gertuko, garbia (zikindu gabe haurdundua, hots, sexurik gabe), ama... Eta Maria Magdalena, puta izateagatik barkamena eskatzeko

berrerosten dena... Hori dena lotuta dago generoaren eraikuntzarekin eta oso barneratuta dago gizarte gipuzkoarrean».

Erljioari eta familiari buruzko lekukotasunak eta LGTBI+ pertsonen adierazpen aske eta irekia alderatzen baditugu, ikus dezakegu ez dagoela jatorri latinoamerikarreko pertsonen aztergaiarekiko duten iritzia definitzen duen elementu bakar bat; haien iritzia ere ez da homogenea. Tradizioa garrantzitsua da, hona heltzeko moduak eta uneak eragina dute, helmuga aukeratu egiten da, migrazio-prozesuaren helburuari lehentasuna ematen zaio eta harrera-ereduak baldintzatu egiten du:

- ▶ «Harreraren jokia ere hor dago. Ulertu behar dugu ezagutzen ez dugun mundu batean bizi garela, eta **onartua izateko estrategiak bilatzen ditugu**. Gainera, **harrera-prozesuak laguntza bidez funtzionatzeak harremana baldintzatzen du**, gauzak ezkututzen dira edo ongi ikusia dagoena esaten da».
- ▶ «**Eliza ebanjelikoen funtzio soziala** (paperak, pisua, enplegua...) Eusko Jaurlaritzarena baino haratago doa».
- ▶ «Pertsona migranteak desberdinen multzoan sartzen gaituzte eta enpatia-harremanak sor daitezke (adibidez, LGTBI+ pertsonekin). Bestalde, **guk aukeratzten dugu nora joan**, ondoen sentitzen garen lekua hautatzen dugu, aniztasunaren alde gaude eta onartzen dugu, nahiz eta etxe barruan iritzi desberdina izan -hala nola, familian seme gay bat eduki nahi ez izate-; lasaitasuna eta onarpenera begi onez ikusten ditugu... Gizarte honen balioen arabera bizi nahi dugu eta ohitu egiten gara. Ez dut uste hegemoniarekiko desberdintasun-egoeran egoteagatik isilik geratzeko joera dugunik».
- ▶ «Hona etortzen diren pertsona

latinoamerikarrak ohartzen dira immigrazioaren aurkako **diskurtso arrazista eta diskurtso LGTBI+fobikoa lotuta daudela** eta, beraz, haien kontrakoa ere badela. Gainera, helburu batekin etortzen dira eta atzerritarrei buruzko legeak pisu handiagoa du. **Pentsamolde heteronormatiboa eduki arren, bakean uzten dituzte eta aurrera ateratzeko elkarlanean aritzean jartzen dute arreta».**

Diskurtsoaren gakoak: **sexu-orientazioa eta/ edo sexu- edo genero- identitatea askatasunez eta modu irekian adieraztearekiko erreakzioak**

- Bertako eta jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ parte-hartzaileen eta haien gertukoek lekukotzen arabera, LGTBI+ pertsonen errealitateek honako sentimendu eta pentsamendu hauek sortzen dituzte gizartean: jakin-mina, morboa, ustezko promiskuitatea, deserosotasuna, nahasmendua, beldurra eta gaitzespena.
- Bi taldeek aipatu dute ohikoak direla «errespetua bai, baina...» bezalako jarrerak. Hau da, «errespetatzen dut, baina txantxa bat egingo dut, baina haren janzkera kritikatuko dut, baina ez dut lagunartean nahi». Jatorri latinoamerikarreko pertsonen artean, aipagarria da, halaber, «baina etxe barruan ez»

dioen ideia.

- Gaitzespena eta pentsamendu LGBTI+fobikoak nagusiki noren aldetik datozen zehazten saiatzean, erantzuna garbia da: gizon zisak. Neurri handi batean, bertako gizonak, heldu zein gazteak.
- Bertako LGBTI+ pertsonak ez dute adierazi jatorri latinoamerikarreko pertsonen jarrera bereziki aipagarria denik. Jatorri latinoamerikarreko LGBTI+ pertsona batzuek soilik adierazi dute haien herrialdeetako pertsonen – gizonen– aldetiko gaitzespen nabarmena jasan dutela. Halaber, parte-hartzaile batzuek aipatu dute euren burua ikusezin bihurtu dutela haien komunitateetan baztertuak ez sentitzeagatik edo jatorrizko herrialdearekiko leialtasuna gordetzeagatik.
- Bestalde, bertako LGBTI+ pertsonen lekukotzetan soilik identifikatu ditugu feminismoa eta LGBTI+ kolektiboko sektore batzuek transfeminismoarekiko eta ez bitartasunarekiko dituzten jarrera kritikoak.
- Landa-eremuan dauden zailtasunak ere aipatu dituzte. Jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileek haien jatorrizko herrialdeei buruz adierazitakoari jarraikiz, adierazi dute landa-eremua bereziki matxista eta tradizionala dela.
- LGBTI+ errealitateak ez onartzeko arrazoiei dagokienez,

jatorri latinoamerikarreko

- pertsona gehienek, bai LGBTI+ kolektibokoek, bai zisheteronormatiboek, haien komunitateei egiten diete erreferentzia. Horrela, erlijioa/elizak eta familia (familia zabala, balioak, hezkuntza) azpimarratzen dituzte, biak matxismoan murgilduak. Heine handi batean, elementuok haien jatorrizko herrialdeen, migrazio-prozesuen eta helburuko herrialdeetan duten garapenaren oinarri dira, bai etikari eta balioei dagokienez, baita laguntza materialari dagokionez ere. Jatorri latinoamerikarreko pertsona batzuen kasuan, handik ekartzen duten eta hemen babes-egitura bat eskaintzen dien zerbait da erlijioa. Klasearekin lotutako osagai bat ere badago horretan.
- Tradizioa garrantzitsua da, hona heldzeko moduak eta uneak eragina dute, helmuga aukeratu egiten da, migrazio-prozesuaren helburuari lehentasuna ematen zaio eta harrera-ereduak baldintzatu egiten du.

ADINGABEAK

Zalantzak, beldurrak eta bizipenen oroitzapenak areagotu egiten dira gertu ditugun adingabeengan pentsatzean. Erantzun duten guztiak adierazi dute prest daudela nahasmendua edo ziurtasuna adierazten duten horiei babesa emateko. Askok aipatu dute informazioa bilatu beharko luketela babesa eman ahal izateko.

Jatorri latinoamerikarreko pertsona zisheteronormatiboek honako ekarpen hauek egin dituzte:

- ▶ «Orain izendatu egiten da, baina betidanik egon da; lehen, zentzu justiziazale eta moralista batetik; orain, normalizat hartzea dagokigu eta gure adingabeei gertatzen bazaie, gaia lantzeko tresnak edukitzea».
- ▶ «Ama naiz eta onartuko-babestuko- ulertuko nuke, baina ez nuke jakingo zer eta nola esan. “Bai, zure alde nago, baina ez dauzkat erantzun guztiak. Jakin badakit nire alabek naturaltasunez bizi dutela haien inguruan halakoak badaudelako, baina nik, nola biziko nuke?».
- ▶ «Ilobak dauzkat eta agian familiak babestu ez arren, nik babesten ditut, jantzeko, ateratzeko... Erljioak pisu handia dauka, baina, zoriontsu badira, kito».
- ▶ «Adinekooi erreferenteak falta zaizkigu, ez gaituzte gaiaren inguruan hezi. Hauxe esango nioke: “ez dakit, alaba, baina irakatsi egin beharko didazu. Bila ditzagun irtenbideak elkarrekin”. Hortik abiatuta, bitartekoak eskaini eta eraldatu. Gure alabek gure ahultasunak ezagut ditzatela eta haien bizipen, sentimendu eta prozesuengandik amok ere ikas dezagula».
- ▶ «Gu (gazteak) harritu egingo ginatete norbaitek bat-batean esango balu, nola da posible hainbeste denboran ezkutuan eduki izana? Ondoren, babesa. Gaur egun, sexu-orientazioa oso zabala eta azkar aldatzen da, naturaltasun osoz».
- ▶ «Zalantzarik izanez gero, probatu dezakezu. Hori bai, aholkuak jasota, zeren etxean arazorik baduzu edo arazo psikologikoak badituzu, batek daki norekin elkar zaitezkeen. Edo, gaizki datorkizun zerbait probatu dezakezu. **Gurasoei laguntzea dagokigu**, ez soilik seme-alabei zer izan behar duten agintzea».
- ▶ «Haurren hazkuntzarako garrantzitsuak dira laguntza psikologikoa eta giro segurua bat izatea».
- ▶ «Lagun batek arrosa kolorea atsegin duen 7 urteko seme bat dauka. Eskolak ama deitu zuen, trantsizioa egiteko laguntza eta sailak daudela adieraziz. Amak bakean utz zezatela esan zien, **haurrak bere burua pixkanaka ezagutu eta definituko** zuela. Haurtzaroan detektatzen badugu, kolpetik esku-hartu behar dugu?».
- ▶ «**Zur eta lur geratuko nintzateke eta onartzeko denbora beharko nuke, baina ez nuke baztertuko**».
- ▶ «Proba dezatela eta ongi badatorkie, kito. Onartuko genuke, baina ez genuke aholkuak eta laguntza emozionala ematen jakingo. **Informazioa bilatu beharko genuke**, prozesu hori bizi izan duen norbaiti galdetu. Ez genuke latinoamerikarren komunitateko pertsona heldu bat bilatuko; horrek prozesua zaildu ere egin lezake».
- ▶ «Aitak eta nik ez ditugu koloreak-arropa-jostailuak desberdindu, baina adin jakin batetik aurrera, gizarteak joerak markatzen ditu. Ez dakit askotariko familia eta harreman afektiboak daudela errepikatzeak ez ote dituen kontrako

jarrerak areagotu. Alaba zaharrenak esan ohi zuen lagunik onenarekin ezkonduko zela eta amona kexatu egiten zen, lesbiana egingo zelakoan. **LGTB izango balira, poztu egingo nintzateke, horrek esan nahiko lukeelako bi alderdietatik ateratzeko gai izan direla».**

- ▶ «14 urteko nebak ez du jendea sexuaren arabera maite, arimaren arabera baizik; ez dago arazorik».
- ▶ «16 urteko ahizpari esango nioke ongi pentsatzeko, nola dagoen galdetuko nioke, ea ongi sentitzen den, esperientzia txarrik eduki duen eta zerbait pasa bazaio, kontatzeko eskatuko nioke. Zinez hala sentitzen badu, saia dadila, baina **ongi egin dezala: bere burua eta ingurukoak errespetatuz».**
- ▶ «Seme-alabei babesa eskainiko nieke, euren burua ulertzeko eta ezagutzeko laguntza, eta **haientzat eta senideentzat laguntza psikologikoa**, lagun diezaioten, inguruak uler dezan. Txikitatik modu irekian hitz egin diegu sexualitatearen aukera zabalez; heteroak badira edo geroago beste praktikaren bat aukeratzen badute, ez gara ez atsekabetuko, ez poztuko. Ongietorria izan dadila. Direna direla eta egiten dutela egiten dutela, onartu egin behar ditugu, horrek haien bizitza erraztu ere egingo du eta. Ezer ez da bekatu, ez dago gaizki. Gurean ez genuen inoiz erlijio-heziketarik jaso, lehengusuengan ikusi zuten eta, txikitatik hori jaso ondoren, zaila da aldatzea; inguruan gertatzen bazaizu soilik, sufritu egiten duzu eta aldatu egiten zara. **Babestu egingo nituzke gaizki pasatu ez dezaten, baina ez beldurretik, baizik eta autoestimua indartzen lagunduz».**
- ▶ «Haur trans asko dago eta helduoi atentzia ematen digu. Batzuek zalantzan jartzen dugu zergatik harritzen gaituen hainbeste;

beste batzuei, ordea, ez zaie deigarria egiten harridura eta nazka eragiten diela ohartzea. Mutil homosexualak neska-kuadrillak dituzte, neskek babestu egiten dituzte; mutilek, berriz, errespetatu egiten dituzte, baina urrunetik. Neskek onartzen dituzte neska homosexualak; transak ordea, ez hainbeste».

- ▶ «**Alabari edo semeari gertatuko balitzaio, ez nuke berdin ikusiko.** Alaba homosexuala balitz, onartuko nuke. Semearen kasuan, zailagoa egingo litzaidake, senideengandik jasan dezakeen arbuioa dela eta. Indartsua behar da izan gizon homosexuala izateko. Genero-aldaketak larritu egingo ninduke, baina babesa emango nieke. Bikotekideak eta nik babesa eskainiko genieke bide bihurtu horretan, azken finean, helburua positiboa da».
- ▶ «Babesa azalduko nieke, bai alabari, bai semeari. Ez dakit gainerako senideek nola erreazionatuko luketen; hangoei ez genieke aipatu ere egingo. **Ulertzen dut generoz aldatzeak dakarren dolua**, seme/alaba bat izateko ideia barneratu duzu eta denbora pixka bat beharko duzu hori onartzeko. Transexualitatearen gaia traumatikoagoa iruditzen zait sexu-orientazioarena baino. Ingurua irekia bada, ez dago babesteko beharrik».
- ▶ «Zoriontsu izateko esango nioke eta laguntza ematen saiatuko nintzateke, zirika ez dezaten. Ikuspegi irekiagoa dugu, baina zirikatzen jarraitzen dute. Denetik dago, batzuek desberdin ikusten dute oraindik. 10 eta 18 urte arteko tartea da zailena. *Afeminatuak* ez diren mutilek barre egiten dute eta afeminatua den horren inguruko komentarioak egiten dituzte».
- ▶ «Adingabeak beso zabalka hartuko nituzke. Ez nuke ongi jakingo zer

esan, animoak emango nizkioke; **nik bizitakoarekiko beldurragatik**, batez ere. Espero dut presioa sentitzearena, ezkutatu beharrarena eta jendeak barre egitearena ez bizi behar izatea».

Bertako LGTBI+ pertsonen eduki nahi zuketinari eta inguruan beharrezko ikusten dutenari buruzko xehetasunak kontatu dizkigute haien esperientzietan oinarrituta:

- ▶ «**Ez nioke pisu gehiegirik emango; gerturatu eta nire esperientzia kontatuko nieke, nola dauden galdetu. Gai izango nintzateke zalantzak jasotzeko, laguntzeko eta informazio eskaintzeko**».
- ▶ «Orain genero-identitatearekin gertatzen da lehen sexu-orientazioagatik armairutik ateratzearekin gertatzen zena. Ez nuke jakingo non kokatu adingabeekin elkarriketa horiek edukitzeko».
- ▶ «Ez zait iruditzen landa-eremuan bizi den familia zabala prest dagoenik haien senide adingabeen zalantzak argitzeko. Gaiaz hitz egitea tabua da. Ez askatasunik, ez diskurtso-aldaketarik».
- ▶ «Neska batzuk onartzen dituzte, baina ez daude besteen maila berean. Baztertuak izateko arriskua dago, badirudi horretarako baimena dutela. Ez dago askatasun handiagoa, baizik eta bizipenarekiko beste ikuspegi bat».
- ▶ «**Jasan lezaketan diskriminazioaren beldur izango nintzateke**; ahal den neurrian laguntzen saiatuko nintzateke».
- ▶ «**Erlojupeko batean egotearen sentsazioa lasaitzen saiatuko nintzateke**; sei urterekin nor den ez badaki, ez dago arazorik; ez dauka iraungitze-datarik. Gizarteak presio handia egiten du hurrek haien generoa/orientazioa azkar zehatz dezaten. Beldurragatik egiten dute;

ligatzeari, bikotekidea izateko denbora edukitzeari, “bakarrik hilko zara”, ematen du 40 urterekin bizitza antolatuta eduki behar dugula, ezin zarela arautik atera. Zer gertatzen da 40 urterekin transa zarela esaten baduzu? Zer gertatuko da familiarekin?».

- ▶ «Lasai har dezala, galderak egin ditzala. Heltzen joan heinean gauza berrien inguruan hausnartzen hasten zara; hausnar dezala dituen zalantzen inguruan, prozesu bat baita. Berak aukera dezala bere bidea. Beti izango du babesa, baita negar egin edo hunkitzen bada ere. Gainera, identitatea ez da zurruna eta, orientazioa bezala, aldatu egin daiteke. Ez dezala ezbehar bat bezala bizi, ez dezala pentsa habea gainera eroriko zaionik eta bakarrik biziko denik. **Errespetuz bizi dezala, bai bere buruarekiko, bai ingurukoekiko**. Nire gorputza aldatu nahi badut, horren inguruan sakon hausnartu behar dut eta ez gizarteagatik edo familiaren aldeko presioagatik egin: noiz hasiko duzu trantsizioa, noiz egingo dizute ebakuntza?».
- ▶ «Nire burua trans gisa identifikatu nuenean, amak ez zekien inondik ere zer zen. Prozesua bakarrik egiten duzu hasieran eta geroago azaltzen diozu, esan nahi duena argitzen. **Primerakoa izango litzateke haurtzaroan bertan gaiari buruz hitz egiten hasiko balira**. Gaur egun, familia askok badakite haien haurren urrats ez normatiboak izendatzen eta identifikatzen. Ideia batzuk dituzte eta horietatik abia daitezke, badakite egon badagoela, laguntza eta erreferentziak bila ditzaketela».
- ▶ «**Esango nioke dena ongi dagoela, ez dela arraroa**; kontzeptuen inguruko informazioa emango nioke eta daukanari eta behar duenari buruz galdetuko,

zehazki zertan lagun diezaiokedan edo, besterik gabe, husteko beharra badu, entzun egingo nuke; nire esperientzia kontatuko nioke eta hortik aurrera egin dezala bere bidea».

- ▶ «Informazioa elkarrekin bilatuko genuke mugikorrean, Interneten eta liburuetan».
- ▶ «**Ingurukoekin pedagogia egingo nuke**, niri egin zitzaidana baino errazagoa egin dakion. Oraingoan, senideen taldeetara informazioa bidaltzen dut, argi ikus dezatela nola bizi naizen, nola adierazten naizen, norekin ibiltzen naizen. Joan daitezela gauzak onartzen».
- ▶ «Esango nioke ez duela axola, ez nioke esango “tira, lasai, goazen zu bezalakoak ezagutzera”, baizik eta “**eta zer?**”. Gero, babesa eman, entzun, baliabideak-laguntza eskaini».
- ▶ «Transexualitateari dagokionez, ez dut uste gaiak hitz egiteko prest nagoenik, barne-guda bat daukat: bakoitza izenda dadila nahi duen moduan, baina, dagoeneko hormonak hartzea? Gizon edo emakume izan behar da? Eduki dezakete euren burua defintitzeko denbora gehiago? **Norbaitek esango balit transa dela, niretzako bilatu beharko nuke laguntza.** Konplexuagoa da. Ez da orientazioa».

denbora behar dela batzuetan, betiere sufrimendua ekiditeko nahitik abiatuta, prozesuan zehar babesa emanaz, informazioa bilatuz, senideekin pedagogia eginez, erritmoak errespetatzearen garrantzia azpimarratuz eta dramatizatu gabe.

Diskurtsoaren gakoak: Adingabeak

- Parte-hartzaile guztiek adierazi dute lagunduko lieketela sexu-orientazioaren eta sexu- eta genero-identitatearen inguruko zalantzak dituzten gertuko adingabeei, baita gaiarekiko jarrera oso argi bat dutenei ere.
- Adierazi dute onartzeko

LABURBILDUZ, parte-hartzaile guztiak adierazi dute -bai mundu mailan eta Gipuzkoan egondako aldaketengatik, bai jatorrizko eta helburuko herrialdeen arteko aldeengatik- azken 5-10 urtetan areagotu egin direla bai ikusgaitasuna, bai arrazoiei eta eraginari buruzko zalantzak, baita adierazpen-askatasuna ere, nahiz eta kolektiboen artean desadostasunak egon. Edonola ere, batez ere bertako parte-hartzaileek adierazi dute nahikoa muga dagoela oraindik ere eta jatorri latinoamerikarreko pertsonak, berriz, arrazismoa eta klasismoa faktore gakoak direla. Parte-hartzaileek aho batez esan dute bertako gizonak direla gehienbat sentimendu eta pentsamendu LGBTI+fobikoak dauzkatenak eta sexu- eta genero-askatasunaren inguruko jarrera eta komentarioak egiten dituztenak. Halaber, bai bertako LGBTI+ pertsonak, bai jatorri latinoamerikarrekoek gertuko inguruneetako elementu diskriminatzaileak identifikatu dituzte. Jatorri latinoamerikarrekoek adierazi dute erlijioa eta familiaren presioa direla onarpena lortzeko traba nagusiak. Onarpena lortzeko, gainera, errespetuan eta berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizitzeko nahia da gakoa. Ildo horretatik, parte-hartzaile gehienak prest azaldu dira haien ardurapeko adingabeak onartzeko eta sexu-orientazioaren eta sexu- eta genero-identitatearen inguruan eduki ditzaketen zalantzekin edo ziurtasunarekin laguntzeko.

4. Erasoak

«Ez dut jipoirik ikusi, baina asko sentitu ditut».

Europako Parlamentuaren arabera, arrazismoarekin, xenofobiarekin, antisemitismoarekin eta sexismoarekin aldera daiteke LGBTI+fobia eta eremu publiko zein pribatuetan gertatzen da, hainbat formatan: gorrotoa eta diskriminazioa piztea, barregarri uztea eta ahozko indarkeria, indarkeria psikologiko eta fisikoa, jazarpena eta hilketa. Gainera, adierazten du diskriminazio horren arrazoiak ordena publikoaren, erlijio-askatasunaren eta kontzientzia-eragozpenerako eskubidearen atzean ezkatzen direla sarri.

Erasoak hitza entzuten edo irakurtzen dugunean, bakoitzak bere istorioa irudikatzen du jatorrian, bizipenetan eta ikuspegian oinarrituta. Atal honetan, eraso LGBTI+fobikoetan jarriko dugu arreta. Zehatzago esanda, bolumenaren eta salaketen inguruko pertzepzioak aztertuko ditugu, baita parte-hartzaileek ezagutzen, bizi izan edo jasan dituztenak ere. Halaber, jendea halako erasoak egitera daraman arrazoen inguruko pertzepzioak ikertuko ditugu.

ESTALDURA, SALAKETAK

Hasieran, erasoei eta gorroto-delituiei buruz galdetu diegunean, jipoiekin eta kasu mediatikoenekin egin du lotura parte-hartzaileen herenak eta adierazi du ingurukoei edo ezagunei ez zaiela halakorik gertatzen.

Jatorri latinoamerikarreko pertsona batzuk ez dute gorroto-delitu terminoa ezagutzen ere (% 31k ezagutzen du), baina behin azalduta ulertzen dute. LGBTI+ pertsonen inguruan adierazi dute ulertzen dituztela haien diskriminazio-egoerak.

«Indarkeriaren zuhaitzaren adar bat da», esan dute. Taldeko elkarriketetako batean aipatu genien gorroto-delituaren erdia arrazismoarekin lotuta daudela, baina ez zen inor harritu, halako egoera asko bizi izan eta ezagutzen dituzte eta. Delitu horien herena LGTBI+fobikoa zela esatean, ordea, harritu egin ziren; izan ere, «hemen dena onartzen» dela uste zuten eta ez dute ulertzen LGTBI+ pertsonak gutxiestearen arrazoia. «Katolizismo kulturala gizarte espainiarrean oso errotuta dagoelako izango da?».

Bertako LGTB+ pertsona baten iritzi, «**gorroto-diskurtsoak areagotu egin dira. Ez soilik eskuin-muturrekoak, baita ezkerrekoak ere, feminismo trans-baztertzailarekin. Hein handi batean, zilegitasuna ematen die erasoiei**».

Orokorrean, jatorri latinoamerikarreko pertsonen uste dute estaldura handiagoa dagoela eta gehiago salatzen dela:

- ▶ «Sare sozialetan ikusi dut, lehen ezkutuan zegoen. **Orain izendatu egiten da** eta gehiago ikusten da, lehen komunikabideek ez zuten gaiaren berri ematen».
- ▶ «Estaldura handiagoa dago. Mutil gayen kasuak agertzen dira gehienbat, eta biktima eta errukarri gisa tratatzen dituzte. Indar fisikoarekin lotzen da eta, homosexualek emakume-manerak dituztela uste denez, ahulagotzat dauzkate. Hala ikusten da».
- ▶ «Ez dut uste delitu gehiago dagoenik, baizik eta instituzioen aldetiko protokolo gehiago eta **estaldura handiagoa**».
- ▶ «Emakumeen aurkako indarkeriarekin gertatu den bezala, gaur egun salatu egiten da. Lehen jipoiak isilean gordetzen zenituen».
- ▶ «**Paperik gabeko migrantea bazara, ez duzu ezer salatzen**».

Salaketan eta, aldi berean, salaketak jartzeko zailtasunen gorakadari dagokionez, bertako LGTBI+ pertsona batzuek honako hausnarketa hauek helarazi dizkigute:

- ▶ «Inguruan gauza asko entzuten eta ikusten dira eta ez da ezer salatzen, prozesuan zehar gerta daitekeenaren edo ezer ez lortzearen beldur, edo erasotzaileak horren berri izan dezakeelako eta berriz jipoi zaitzakeelako... Elkar jotzera iritsi gaitezke, baina nola lotu dezakezu hori LGTB izatearekin? “Marikoi alaena!” esaten badizute ere, ohiko irain gisa erabiltzen dutelako izan daiteke, baina “indio alaena” edo “trabelo” deitzen badizute, ezaugarri jakin horregatik da. Eta, nola jarri dezakegu salaketa? Nola frogatzen dezakegu kontzertuan oihuka ari zitzazuna dela kanpoan zu jipoitzeko zain zegoena?».
- ▶ «Gaur egun gehiago hitz egiten da gaiaz, gehiago salatzen delako eta, batez ere, kasu gehiago identifikatzen direlako. Baina gehienak ez dira salatzen. Salaketa sozial handiagoa dago judiziala baino. Salaketa publiko bat egin eta herriak manifestazio bat deitzen du. Garrantzitsua da festetan ere puntu moreak ezartzea eta jakitea erasorik badago hara gerturatu zaitezkeela eta egoera salatu dezakezula. Babestu egingo zaituzte, bai poliziarengana joan nahi baduzu, baita jasota utzi edo salaketa publiko egin nahi baduzu ere. Kasua zabaltzeko balio du, **herriko jendea gertatu denaz ohartzeko**, zeren ematen du herrian halakoak ez direla inoiz gertatzen».
- ▶ «Gaur egun kolektiboan jorratzen den gai bat da, baina ez dago iritzi bateraturik. Uste dut deseraikitzen hasi beharko genukeela, ez dadila delitu gisa sailkatu. Gertatuko dena da kondenatuak eta espetxeratuak pertsona migranteak eta pobreak izango direla. Hala gertatu da legedia zorrotza duten herrialdeetan (AEBn, Europa Iparraldean...), zigortzeko botereak halako

profilen gainean daudelako. Orduan, salatu egingo dituzte eta gehiago atxilotuko; beste auzo eta espazio batzuetan ez da gertatuko, bestelako jendea dagoelako. Haiei kalte egingo die eta LGTBI+ kolektiboari ere ez dio batere lagunduko, zigorrek ez baitute egoera hobetzen. Eztabaida eraginkorrakoak eduki beharko genituzke, transfeminismotik ikasiz. **Ez du ezertarako balio erasotzailea atxilotzeak sistemak berdin jarraitzen badu** eta bizitza osoan eta etorkizuneko harreman afektiboetan arriskuan egoten jarraitzen baduzu».

- ▶ «Erasoen inguruko berrietan aipatzen da latinoamerikarrak diren, beltzaranak... Ez da esaten espainiarrak direnik».

Diskurtsoaren gakoak: Eraso LGTBI+fobikoen estaldura eta salaketak

- Jatorri latinoamerikarreko pertsona guztiek ezagutzen dute gorroto-delitu terminoa, edo azkar ulertzen dute haren esanahia. Bertako eraso LGTBI+fobikoen kopurua aipatu diegunean, harridura eta ulertezintasun handiz erantzun dute.
- Parte-hartzaileen herenak jipoiekin eta kasu mediatikoenekin lotzen ditu erasoak eta adierazi du haien ingurukoei edo ezagunei ez zaiela halakorik gertatzen.
- Orokorrean, jatorri latinoamerikarreko pertsonak uste dute kasu gehiago identifikatzen eta salatzen direla eta estaldura handiagoa

dagoela. Bertako LGTBI+ pertsonak ados daude horrekin, baina infrasalaketan fenomenoak ere azpimarratu dute.

EGOERAK

Parte-hartzaileek gaua eta parranda-giroa identifikatu dituzte erasoak gertatzen diren testuinguru nagusi gisa, askotan, drogak eta alkohola tartean. Biktimen artean, gizon homosexualak dira gehienak, baina LGTBI+ kolektiboko talde guztiek pairatzen dituzte. Erasotzailearen profilari dagokionez, berretsi eta azpimarratu egiten dute aurretik aipatutakoa: gizona, bertakoa, heterosexuala. Adin tarteari dagokionez, gazteetatik hasi eta helduetara bitarte. Badirudi ideologia politikoa ez dela esanguratsua.

- ▶ «Eraso fisikoak direnean, hau izan ohi da profila: gizona, 40 urtekoa edo zaharragoa, bertakoa, PP-Vox bozkatzeko duena. Emakumeak ez».
- ▶ «Gazteak, gau giroan, diskoteketan, herriko jaietan».
- ▶ «Gizon euskaldun zuriek izan ohi dituzte erreakzio biolentoak».
- ▶ «Beti gizonak; mutil oso gazteak eta desafiatzaileak».

Jatorri latinoamerikarreko gizonak ere erasotzaile ote diren galdetu diegunean, adierazi dute gutxiespena sentitzeak ez dituela indarkeria erabiltzera erabiltzen -alkohola tartean dagoenean izan ezik-. Gainera, legearen pisuak ere geldiarazi egiten ditu.

- ▶ «Jatorri latinoamerikarreko gertuko lagun batzuk, 30-40 urtekoak, **ez lirateke inor jipoitzera iritsiko**, baina ez dute inguruan marikoirik nahi, ez dituzte gonbidatzen. Denak ez dira horrelakoak, batzuei ez zaie

axola».

- ▶ «Latinoamerikarrak desberdinak dira, itxiagoak, ez dute indarkeria erabiltzen. Hori bai, ez daitezela haiengana gertura; ez dituzte pertsona normaltzat hartzen eta, ondorioz, asko armairuan daude, atera ezinik».
- ▶ «Latinoamerikarren lekuetan ez da LGTB bikoterik sartu ohi, ezta dantzan aritu ere. Mutil *afeminaturik* ere ez. Jende helduagoa joaten da eta edan egiten du eta, onartzen ez dutenez, botilakada bat eman diezazukete. Hala ere, behin, gizon zaharrago bat (45 urtekoa edo) gerturatu zitzaidan eta erne jarri nintzen, uste nuen zirikatu egingo ninduela, baina zoriondu egin ninduen beste neska bati musu emateagatik».
- ▶ «Hemen legeak babesten gaitu, edozergatik jar diezazukete isuna eta horregatik errespetatzen da, ez ordaintzeagatik».

Eman diezaiegun begiratu jatorri latinoamerikarreko pertsonen gau- eta festagirotan bizi izan dituzten eraso komunei:

- ▶ «LGTB lagun talde batekin ateratzen garenean, irainak jasan behar ditugu *luma* nabaritzen zaielako, edo neskei hirukote bat egitea proposatzen diete, **garrasi egin eta jarraitu egiten dituzte** eta korrika egin behar dute alde».
- ▶ «Gaueko lokaletan **ez zaituzte sartzen uzten**; soinean soineko bat badaramazu eta heteroa badirudizu, ederki; emakumez jantzitako mutilak, berriz, ez».
- ▶ «**Tabernetan ibili naizenean** gauza asko ikusi dut, marikoi, jipoitzera ere heldu dira. Gau giroan jendeak pentsatzen duena esateko atrebentzia du, batez ere, gizon zuriek, nahi dutena esateko gogo bizia dute. Eta besteok pentsatzen dute, tartean sartzen banaiz, zer? Eta, sartzen ez

banaiz? Zertan ari naiz?».

- ▶ «Lagun bati nabaritzen zaio lesbiana dela, ilea eta arropagatik, eta diskotekan **ez diote nesken komunera sartzen uzten**».
- ▶ «Egunean zehar ez dago erasorik espazio publikoan. Festetan, **alkohola tartean dagoenean**; 20-40 urteko gizonak, gizon gayen edo transen aurka. Emakumeak eta pertsona migranteek ez dute halakorik egiten».
- ▶ «Trans pertsonen eraso egiten diete haien herrialdeetan eta hona heltzen direnean prostituzioan jarduten dute, bestelako lanetan trantsizioa nabaritzen ez zaien pertsonak soilik onartzen dituztelako, paperak dituztenak eta horietan agertzen den izenarekin bat datozenak. Isilean, **matxoak transengana jotzen dute haien sexualitatea ezagutzeko**; “arraroak garella pentsatzen dugunez, **iraindu egingo ditugu, haien inguruko iritzia eman, jipoitu**”. Iruditzen zaigu bitxitasun hori guretzat adierazten dutela, gu gozarazteko edo molestatzeko... Egozentrikoa da. Hobe da bizi eta bizitzen uztea, ez begiratzea, izaten uztea».
- ▶ «Gau batean, lanetik irten eta mutil euskaldun bat gerturatu zitzaidan. Zigarro bat eskatu eta gaya ote nintzen galdetu zidan. Begira geratu zitzaidan eta **bi ukabilkada jo zizkidan, gogor**. Ondoren, korrika alde egin zuen. Poliziarengana jo nuen, baina ez zuten harrapatu. Asko harritu zidan euskalduna izateak, uste nuen hemen ez zitzaidala inoiz gertatuko, tolerantzia handiagoa zegoela».
- ▶ «Behin, hemen, ez ninduten taberna batean sartzen utzi **gona bat neramalako...** Salaketa bat jar nezake. Badakit gona soinean dudala ibiltzeak atentzioa eman dezakeela, baina oraindik ere halakoak gertatzeak gogaitu egiten nau. Zerbait

gertatzen bazaizu, zure arazoa da; begiratu barnean zer eragin dizun, ni nahi dudan moduan aterako naiz etxetik. Zuk egin ezin baduzu, zuretzat kalte».

Identifikatu ditugun beste egoera batzuk:

- ▶ «**Unibertsitatean** sexualitatearen gaia ateratzen da eta komentario oso matxistak egiten dituzte: “marikoiak direla nabaritzen zaienak jipoitu egingo ditut”, “lesbianei aho barruraino sartuko nieke zakila”».
- ▶ «**Gimnasioan** ere maiz gertatzen da: lagun gay batekiko mespretxuzko keinuak; aldagelan mutil gihartsuak dutxatik irteten dira bera sartzen denean. Batzuetan ezer esan gabe, baina keinuak egiten dituzte, baztertu egiten dute».
- ▶ «Badago **errespetuz jokatzeko ez duenik LGTBI+ komunitatean bertan** ere. Heteroa dela badakizu, utz ezazu bakean, ez ezazu estutu, ez erabili bere konfiantza. Bestela, hetero horri beldurra sartuko zaio, gutxiespena eragingo dio, lagunaren artean hitz egingo du eta esango du denak berdinak direla».
- ▶ «**Pisuko mutilek** “bollera zikina” deitu ninduten eta taldeak erabaki zuen ez zela haiekin landu beharreko zerbait, nik neuk egin behar nuela baizik. Zaurgarri eta oso babesgabe sentitu nintzen... Hori beti jasan beharko al dut?».

Pertsona latinoamerikarrek leku LGTBI+fobikoenen inguruan duten pertzepzioa bat dator Gipuzkoako LGTBI+ errealitatearen diagnostikoaren ondorioekin eta elkarrizketatutako bertako LGTBI+ pertsonen pertzepzioarekin. Gaur eta kalea identifikatu dituzte erasoaren ohiko agertoki gisa:

- ▶ «**Gau giroan** segituan sortzen dira istiluak eta borrokak, mutilen aldetik, batez ere. **Espazio digitaletan** ere indarkeria handia

dago».

- ▶ «Ahozko erasoak jasan izan ditut, festa-giroan “trabelo zikina” deitzen didate. Ziberbullying-a ere jasan dut».
- ▶ «Alkoholak eta drogek ez dute laguntzen, biolentoago bihurtzen gaitu».
- ▶ «Bi lagun gayk aipatu didate herrian eraso egin dietela: gizonak gizonak jipoitzen dituzte, festa-giroan batez ere. **Zerbitzaria bazara** ere bai, ezkontuta dauden gizon heteroek uste dute gay gizon orok larrutan egin nahi duela, edozein gizon gustatzen zaiela eta segituan ekingo diotela, nahiz eta gero gayen kontra egiten duten».
- ▶ «Gauetz inoiz erasoko lizukeela pentsatzen duzun jendeak erasotzen zaitu, abisurik gabe (ez daramate svastikarik edo jakarik...). Bat-batean, molestatu egiten ditu zure presentziak, erokeriak egiteak edo afektibitatea askatasunez adierazteak».
- ▶ «Aukera gehiago dago gizon zuri zis batek erasotzeko (hori diote sentsazioek eta estatistikek). **Gauetz**, mutil taldeak beldurgarri suerta daitezke **kalean**, ahaldunduta egonda eta *passing* handia izanda ere. Gizon bezala sozializatutako emakume trans batek ez du arriskurik ikusten. Emakume gisa sozializatutako gizon trans bat, berriz, talde horren beldur da. Gainera, ez da bagina edukitzeagatik bortxatzeko arriskua dagoelako -maiz ez dute imajinatzen bat eduki dezaketenik ere-, baizik eta transa zarela ohartzen direnean jaso ditzakezun jipoienagatik».
- ▶ «Ohartu gara bakarrik doazen neskek gizon-erasotzaile potentzial gisa ikusten gaituztela eta beldurtu egiten ditugula. Ez dago konplizitate-begiradarik, baizik eta kontrakoa, eta espaloiz aldatzen dira. Ulertzen duzu eta amorrua ematen dizu».
- ▶ «Herriko kaleetan oso era maskulinoan

ibiltzen naiz eta jokatzeko dut gizon bezala ikus nazaten eta, eraso egingo balidate, ni izan nadin beldurgarria dena; inguruan gizon kuadrillak daudenean nire burua gogortzeko joera daukat».

- ▶ «Gizonen aldetiko erasoak eta kalean gehienbat. Mehatxuak, irainak, deseroso sentiaraztea...»

Diskurtsoaren gakoak: Eraso LGBTI+fobikoak gertatzen diren egoerak

- Gaua eta festa-giroa –sarri drogekin eta alkoholarekin nahastuta– dira erasoen testuinguru nagusiak.
- Biktimen artean gizon homosexualak nagusitzen dira, nolabait, baina LGBTI+ kolektiboko talde guztiek jasaten dituzte erasoak.
- Erasotzailearen profilararen inguruan ados daude parte-hartzaileak: gizona, bertakoa, heteroa. Badirudi ideologia politikoak ez duela eragiten.
- Jatorri latinoamerikarreko gizonen kasuan, ez dugu ikusi pentsaera heteronormatiboa izateak inor erasotzera eramaten dituenik –ziurrenik, harrera-lekuan administrazio- eta lege-arazoak ez edukitzeko–.

ARRAZOIAK

Normaltasuna –eta, beraz, matxismo heteronormatiboak eraiki eta ezarritako pribilegioak– arriskuan dagoelako sentimendua identifikatu dugu eraso LGBTI+fobikoaren jatorri gisa. Pribilegio horiek nork erabil ditzakeen azaltzen du eta, aldi berean, baita gizonek euren maskulinitatea garatzeko duten presio hori ere. Boterea dutenen beldurra eta frustrazioaren proiektzioa da eta, ondorioz, pertsona eta kolektibo horiek dira sistema hegemonikoaren oinarriak hankaz gora jartzen dituztenak. Ondorioz, krisien, balioak galtzearen, onarpenaren eta nagusitasunaren eragiletzat hartzen dira. Zentzu horretan, bai pertsona atzeritar arrazializatuak, bai LGBTI+ kolektibokoak jotzen dira erruduntzat.

Jatorri latinoamerikarreko pertsonak hau adierazi dute auziaren inguruan:

- ▶ «Matxismoarekin identifikatzen dira ideologikoki eta, ohartzen ez diren arren, matxistak dira haien egunerokotasunean; **benetan uste dute gizon heterosexualak izateagatik ondokoari kalte egiteko eskubidea eta zilegitasuna dutela. Gayak, transexualak eta trabestiak gaizki tratatzen dituen gizon bera da emakumeak gaizki tratatzen dituenak. Jatorria matxismoa da eta, bertakoa eta dirudunak badira, botere gehiago dutela sentitzen dute».**
- ▶ «Haien ikuspegitik ez da atsegina, haien gizontasuna dela eta; izan ere, begiak itxita badauzkazu ez duzu erabilgarri dagoen informazioa ikusten... Adineko gizon matxistek gutxietsi egiten dituzte emakumeak; LGBTI+ kolektibokoak, gutxiago. Pentsatzen dute hierarkian gorago daudela eta eskubidea dutela gogoko ez zaituztela erabakitzeko, hori zuzentzeko eta eraso egiteko».

- ▶ «Gizonengan ez da ondo ikusten estatus sozial baxuago batera (emakumea) gerturatuko dituen manerak izatea (afeminatuak) eta emakumeengan, berriz, sexuaz gozatzea».
- ▶ «Kolektiboaren **gainetik daudela pentsatzea**, indarkeria erabiltzen duzu ahulagotzat jotzen direlako; badago beti liskar bila ari den jendea, maltzurrena eta indartsuena dela sentitu nahi duelako».
- ▶ «Zuriak, euskaldunak, gauzez, alkohola edanda; matxo-plantak egin behar dituzte, haien rola betetzeko presioa jasaten dute. Sentitzearen eta zerbait gertatzearen beldur dira, pertsona hark zerbait sentiaraziko ote dien beldur. Ez dute LGTBI+ kolektiboa gorroto eta ez dira pertsona txarrak, baina **euren buruarekiko eta sentitu dezaketenarekiko konfiantza falta** dute. Gizon gay eta bisexualekiko beldurra da. Ez dago gayak edo lesbianak astintzen dituen neska kuadrillarik».
- ▶ «Erasokorrenak eta intoleranteenak erreprimittuta daudenak dira. Jende arraroz inguratuta dagoen jendea, zalantzak eta haserreak hartua. Gainetik daudela uste dute, **normalak direlako**. Pozik eta aske bizi direnek molestatu egiten dituzte, irainduta sentitzen dira, molestatzeko egiten dutela pentsatzen dutelako. Eta **uste dute zigor ditzaketela**: polizia-rola dute, sistema mantentzekoa. Legeak zigortzen duena baino haratago doazen delituak ere ikusi izan ditugu. Boteretsuek asko lapurtzen badute, ados, baina gizonak azazkalak margotzearena, inondik inora ere ez. Amorru sozial eta politikoa sentitzen da giroan, dena muturrera eramaten da, baina etengabeko inkoherentiak eta gurutzadak ere badaude eta **behean geratzen direnak beti dira berdinak**».
- ▶ «Skinhead-ak eta hooligan-ak beltzen, gayen, emakumeen eta abarren aurka daude; ez daukate beste ezer egiteko, horrelakoak dira; ez daude ondo eta gainerakoak iraintzen dituzte».
- ▶ «Lehen begiratzen ninduten, baina ez nintzen joko ninduten beldur. Duela bi urtetatik hona, gorroto-diskurtsoak hainbeste gogortu dira, ezen jipoi bat eman diezazuketen. Makineria hori oso azkar hedatzen da alderdi, telebista-kate eta foro jakinen bidez; estatu mailan hemen baino gehiago. Eta gainera, LGTBI+fobikoak arrazistak eta immigrazioaren kontrakoak dira».
- ▶ «**Sistemak gudan eragiten duen indarkeria zaurgarriagotzat jotzen ditugun horietan proiektatzen dugu**: goitik jaso eta beherantz jardun. Kolektibo bat zaurgarri izendatzen bada eta hura diskriminatzea onartzen bada, errazagoa da edo zilegitasun handiagoa du. Eta, gazteen kasuan, taldearen onarpena jasotzeko beharrezkoa da taldearen ahalik eta antz handiena izatea. Horrela, antzekoak ez direnak identifikatzen eta erasotzen dituzte, taldeak erasotzailea jarraitzen du; agian ez dago ados, baina ez du biktima papera eduki nahi - nahikoa lan daukat niri ez tokatzearekin, nola ausartuko naiz hori egiten!-. Halaber, eraso egiten existitzearen eta gorputzaren bidez sistema zalantzan jartzen dutenei -ez dute beti modu kontzientean egiten, baina geroz eta gehiago-. Pribilegioak zituenak arriskuan dagoela sentitzen du eta maizago egiten du eraso. Uste dut pandemia garaian horren mugatuta eta giltzaperatuta egon garela, ezen frustrazio hori kanporatzeko bide berriak aurkitu diren eta, ondorioz, pertsona arrazializatueta eta LGTBI+ kolektibokoetan jarri dute jomuga».

- ▶ «Beti egon behar da ados ez dagoen norbait, **horregatik da borroka bat**, baina datozen belaunaldiekin **itxaropen handiagoa dago**. Irainak egon badaude, baina sexu- eta genero-aniztasuna normaldu egiten dute. Gaur egun, ez da pentsatu behar ea haurra neska edo mutila den, ez zaie belarritakorik edo arropa arrosa edo urdinik jarri behar...»

Bertako LGTBI+ pertsonen ekarpenak ere ildo beretik doaz:

- ▶ «Erasotzaileak hemengoak dira; haien pribilegioetatik eraso egin diezazukete».
- ▶ «Pandemiaren ondorengo testuingurua konplexua da, krisi ekonomikoa eta antsietate handia dago. Inoiz pobrezian biziko ez zela pentsatu ez zuen jendeak uste du ez duela merezi, bidegabea dela. **Inguru pribilegiatuetakoz gazteek ez dute euren etorkizuna argi ikusten** eta badirudi horrek indarkeria oso esplizitua erabiltzera daramatzala».
- ▶ «Behean daudenak alde egitera eramaten ditu beldurrak; pribilegiatuak, berriz, eraso egitera. Ondokoa baino botere handiagoa dudala uste badut, eraso egingo dut, nire burua kontrolatu ezin dudana horretatik babesteko. Gainera, **gizon zisek eraso egin behar dutelako ideia** hori dago: balio duzula frogatu behar duzu, neska babestu beharreko printzesatxo bat da; eraso egiten irakasten dizute. Ulertzen eta kontrolatzen ez duzunak zaurgarri sentiarazten zaitu; muturreko bat emango dizut eta botereitsu sentituko naiz berriro».
- ▶ «Faktore ugari daude. Jendea gatazkan dago, mezu kontraesankorrak daude: harritu egiten ditu horrelako gauzak onartzeak, **status quo-a mantendu nahi dute**, pribilegiarik ez galdu, denak bere horretan jarrai dezala. Eroso dagoen jendeak ez dio eroso egoteari utziko zuk ere

eroso sentitu nahi duzulako. **Ezjakintasan eroso** da, pribilegioetan oinarritua. Eraso egitera eramaten zaitu, zalantzan jartzen duelako nor zaren, zer egiten duzun, zergatik apurtzen dituen makillatuta doan mutilak edo oso makillatuta doan neskak zure sinesmen guztiak. Ez dute gaiari buruz hausnartu nahi, haien kutxan oso gustura daude. Horregatik daukate horren harrera ona alderdi jakin batzuen gorroto-mezuek; pentsatu nahi ez dutenei ongi baino hobeto datozkie, integrazteko eta hedatzeko errazak dira, ez duzu zure burua deseraiki eta pentsamolde konplexu bat eduki behar. Jendeak ez du pentsatu nahi nor den eta nola bizi den. Zigor gisa, jipoiak. Feminitatea ere zigortzen da, femeninoa izateko modu jakin bat dagoelako. Justiziazale eta zigortzaile papera hartzen dute».

- ▶ «Gerturatzetik nahi ez duzunean egiten dizute eraso: ezetz esaten diezunean (emakume lesbiana edo gizon gaya izanda) **nire maskulinitatea erakutsi** behar diet eta, orduan, eraso egiten didate. Gero ez dute esaten saiatu direnik eta ezezkoa jaso dutenik».
- ▶ «Gizon hegemonikoek (zuri, euskaldun, heteroek) **matxistak besteak direlako itxurak egiteko kapital kulturala** dute, baina, egiaz, haiek dira boterea dutenak eta indarkeria erabiltzen dutenak. Indarkeria-kasu gehienak mutil ez arrazializatuak egindakoak dira; kasu batzuetan, taldean euren lekua aurkitu nahi duten kanpotarrek ere erreproduzitzen dituzte estereotipoak».
- ▶ «Ez ditzagun korrelazioa eta kausalitatea nahastu; testuinguru jakin batean gerta daiteke, baina horrek ez du esan nahi horren arrazoia denik. Arrazismoari lotutako kausalitatea onargarriagoa egiten zaigu **pribilegiadun kausalitate**

konplexua baino (atzerritarrei buruzko legeak, pobrezia, auzo jakin batzuetako zabarkeriak, poliziaren arreta bereziak...). Atzerritarrek bestelako arazoak izan ditzakete, baina LGTBI+fobiari lotzen dituzte. LGTBI+fobikoak ere izan daitezke, beste edonor bezala. Gainera, zigor- eta polizia-estatuak jarraitu, atxilotu eta arreta handiagoz begiratzen ditu... Ez dira LGTBI+ pertsonen kontra joango, Estatuak haien kontra egiteko arrazoi gehiago aurki ditzake eta».

goian daudenei. Pertsona eta kolektibok hartzen dituzte krisien, balioak galtzearen, onarpenaren eta nagusitasunaren arduradun gisa. Zentzu horretan, bai pertsona atzerritar arrazializatuak, bai LGTBI+ kolektibokoak jotzen dira erruduntzat.

Diskurtsoaren gakoak: **Erasoak eragiten dituzten arrazoiak**


- Normaltasuna –eta, beraz, kapitalismoaren eta kolonialismoaren babesaz matxismo heteronormatiboak eraiki eta ezarritako pribilegioak– arriskuan dagoelako sentimendua identifikatu dugu eraso LGTBI+fobikoen jatorri gisa.
- Eraikuntza horrek nabarmentzen du nor dagoen indarkeria erabiltzeko posizioan (goian); aldi berean, gizonek euren maskulinitatea garatzeko duten presioa azaltzen du (indarkeria estrategia eta bitarteko gisa erabiliz, sentitzeko beldurra zabalduz, askotariko maskulinitateak onartu gabe...).
- Boteretsuen beldurraren eta frustrazioaren proiektzioa da eta pertsona eta kolektibo zaurgarrienekiko zilegitasuna dutela sinetsarazten die

Ondorioak

Azterketa honen helburuari jarraikiz, Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko pertsonak LGBTI+ kolektiboaren inguruan dituzten askotariko ahotsak, bizipenak eta ikuspegiak jaso ditugu.

Metodologiaren atalean parte-hartzaileen profilak aurkeztu ditugu eta gainerako ataletan haien ekarpenak bildu ditugu, haietatik ikuspegi komunak, antzekotasunak eta kontrasteak ateratzeko. Arreta berezia jarri diegu ñabardurei eta zalantzan jarri dutenari. Legediari, ikusgaitasunari, askatasunez adierazteko aukerari eta oztopoei, adingabeekiko harremanari eta erasoei buruzko sentimenduak, iritziak eta bizipenak jaso ditugu.

Hurrengo lerroetan aztertuko dugu lekukotza horiek zein neurritan berresten dituzten hasierako hipotesiak.



1. LEHENIK

Aniztasunaren eta heterogeneotasunaren hipotesiari helduko diogu. Ikusi dugu, LGTBI+ kolektiboak bezala, jatorri latinoamerikarreko biztanleek ere kolektibotasun eta komunitate sentimendua dutela. Batasun hori gora behera, talde oso heterogeneoa da jatorri latinoamerikarreko pertsonena, multzo txikiagoz osatua. Azpimarratu beharra dago, gainera, heterogeneotasun hori ezin dugula faktore bakar batera mugatu. Horiek horrela:

- ▶ Tradizioak pisu handiagoa du landa-eremutik datozen pertsonen kasuan, baina ez ditu bertatik datozenen aukerak eta ikuspegia erabat definitzen.
 - ▶ Era berean, nahiz eta jatorrizko herrialdeetako LGTBI+ kolektiboaren aldeko edo kontrako legediak eta errealitateek eragina izan, ez dira erabakigarriak.
 - ▶ Ikasketa-maila altua izateak areagotu egiten du ikuspegi zabalagoa izateko aukera, baina ez da erabakigarria edo beharrezkoa.
- ▶ Badirudi inguruan LGTBI+ pertsonak - batez ere senideak- edukitzea giltzarria dela begirunez pentsatzen eta jokatzeko hasteko. Hala ere, kasu batzuetan, eraldaketa hori ez da gertatzen migrazio-prozesua amaitu eta denbora apur bat igaro arte eta aniztasun afektibo-sexuala eta genero-aniztasuna normaltzen dituzten testuinguruekin harremanetan egon arte.
 - ▶ Orokorrean, migrazio-prozesuak ikuspegia zabaltzen laguntzen du. Hala ere:
 - ▷ Parte-hartzaile askok lehendik sentitzen zuten ezinegona matxismoarekiko eta aniztasunean bizitzeko oztopoekiko.
 - ▷ Halaber, berdintasunaren isplaztearen inguruko kontzientzia helburuko bizilekuan hartu dute askok eta aldaketa nabaritu dute euren buruengan.
 - ▷ Harrera-ereduaren izaerak jatorri latinoamerikarreko pertsona asko eramaten ditu elizetara eta horrek sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko ikuspegia zabaltzea oztopatu dezake.
 - ▶ Erljioari dagokionez, askotariko profilak topatu ditugu jatorri latinoamerikarreko pertsonen artean, LGTBI+ kolektibokoak eta zisheteronormatiboak barne hartuta:
 - ▷ Ateoak eta ezkerrekoak, LGTBI+ errealitateen aldekoak.
 - ▷ Oso sinestunak, fedearen eta LGTBI+ pertsonen onartzearen, haiekiko enpatia izatearen edo haiek defendatzearen artean gatazkarik ikusten ez dutenak.
 - ▷ Oso sinestunak, aniztasun afektibo-sexuala eta genero-aniztasuna

normalizatutzat -baina ez mesedegarritzat- ikusten dutenak.

- ▶ Azkenik, adinak -bereziki heldutakoan zutenak- ere eragiten du Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko pertsonen iritzietan. Badirudi haurtzaroa eta/edo nerabezaroa hemen igaro dutenek LGTBI+ kolektiboarekiko eta bizi-aukerekiko ikuspegi zabalagoa dutela. Edonola ere, parte-hartzaileek adierazi dute Euskadiko hezkuntza instituzioek genero-rolak eta bitartasuna betikotzen dituztela.

Testuingurua oso anitza dela, bertako LGTBI+ biztanleen ibilbide eta aukerekin konparatuta alde handiak daudela kolektiboa bera ere oso anitza dela alde batera utzi gabe, antzekotasun batzuk hauteman ditugu mahaigaineratutako gai batzuen inguruko erantzunetan.

- ▶ Lege-eztabaiden inguruko interes gutxi daukate eta ez dute eskubide formalekiko konfiantza handirik, gizartea sensibilizatzen eta prozedurak aldatzen ez badira behintzat. Administrazio publikoaren aldetiko diskriminazio pasiboa ere ekidin beharra dago.
- ▶ Matxismoa sisteman errotuta dagoen auzi estruktural gisa ulertzen dute eta, era berean, ikusten dute rolak, posizioak eta bizi-proiektzioak zehaztean zisheteroarruak duen eragina.
- ▶ Parte-hartzaileak bat datoz sexu-eta genero-aniztasuna gero eta gehiago normalizatzen ari dela. Halaber, askok dituzte ikusgaitasuna areagotu izanaren atzean dauden arrazoen inguruko zalantzak.
- ▶ Sexu-orientazioaren inguruko ezagutza handiagoa dago genero-identitatearen ingurukoa baino.
- ▶ Egunerokoan diskriminazio LGTBI+fobikori edo arrazistarik ez

jasateko faktore nagusia izan daiteke zispasing-a.

- ▶ «Errespetatzen dut, baina...» bezalako jarrerak maiz aipatu dituzte, bai LGTBI+ pertsoneri, bai pertsona arrazializatuerei dagokienez. Hori politikoki zuzena denaren inguruko diskurtsoek duten eraginarekin lotzen dugu.
- ▶ Parte-hartzaileek kontinente batetik besterako zein landa-eremutik hirirako lekualdaketa gisa ulertzen dute sexilioa.
- ▶ Parte-hartzaile askok adierazi dute LGTBI+ kolektiboarekin identifikatzen diren edo haren inguruko zalantzak dituzten adingabeei harrera eman eta lagundu egin behar zaiela.
- ▶ Gaua, kalea eta festa-giroa identifikatu dituzte eraso LGTBI+fobikoen agertoki nagusi gisa eta adierazi dute bertako gizon heterosexualak direla erasotzaile nagusiak. Era berean, aipatu dute pribilegioek ematen duten boterea dela erasoon oinarri.
- ▶ Batez ere bertako LGTBI+ pertsonak eta jatorri latinoamerikarreko pertsona zisheteronormatiboak kontziente dira Gipuzkoan ere badaudela gaintitu beharreko erronkak berdintasunaren arloan.

Bestalde, ikusi dugu jatorri latinoamerikarreko pertsona askok ez dutela intersexualitatea ezagutzen eta queer izatearekin eta ez bitartasunarekin ere nahastu egiten direla. Neurtu 2021 txostenaren arabera, datuak antzekoak dira euskal biztanleen artean.

Horrela, ondorio orokortu eta estereotipatuak ez ateratzeak duen garrantziaz jabetu gara, bai Gipuzkoan bizi diren jatorri latinoamerikarreko pertsonen LGTBI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioei dagokienez, baita kolektiboak tokian duen errealitateari dagokionez ere

2. BIGARRENIK

Ikuspegiak zabaltzen lagun dezaketen espazio gisa ulertzen ditugu kulturarteko topaketak. Lekukotzek parada eskaini digute hainbat kultura hainbat mailatan jorratzeko: landa-eremua eta hiria, eskualdeak eta herrialdeak, belaunaldi desberdinak... Hiru fenomeno horiek aldi berean gerta daitezke migrazio-prozesuetan eta horiek guztiek sexu- eta genero-aniztasunaren inguruko pertzepzioetan eragiten dutela ikusi dugu.

Kulturarteko topaketen testuinguru honek ezagutza sustatzen du, bai autoezagutza, baita bestelako ikuspegi, balio, epistemologia eta jakintzena ere. Edonola ere, horrek diskriminazioa, bestetasun sentimendua eta itxikeria ere sor ditzake. Osagai jakin batzuk behar dira ikuspegi eta bizi-aukera gehiagotara zabaltzeko, mugak gainditzeko eta kulturarteko espazioak sortzeko:

- ▶ Kontzientzia kritikoa. Gipuzkoako gizartearentzat beharrezkoa da kolonialtasunaren eraginaren inguruan hausnartzeko eta hauek berrikusteko gai izatea: heltzen direnek integratzeko egin behar dutela uste dugun ahalegina, atzerritarrei esleitutako

lanpostu eta espazioen bidez generorolak erreproduzitzea, haien jakintza eta erresistentziak ez balioestea, berdintasunari dagokionez atzerago daudelako susmo iraunkorra eta etengabeko diskriminazio arrazista, gure pribilegioen inguruko itsukeria eta harrera-ereduaren gabeziak eta ikuspegia.

- ▶ Elkarrizketa. Ez dago harreman handirik atzerritarren eta LGTBI+ kolektiboaren eta jatorri latinoamerikarreko eta bertako LGTBI+ pertsonen artean. Funtsezkoa da elkarrizketa horizontal bat edukitzeko abagunea eskaintzea, aurreiritzirik gabea, gaiarekin lotuta dauden eta denoi eragiten diguten hainbat auzi eztabaidatzeko: zer paper jokatzan du erlijioak? Eta elizek? Nola bizi dugu gure dimentsio espiritualak? Zer da familia? Nork/zerk mantentzen du? Zer gertatzen da jaiotza-tasarekin? Zein borroka daude leku bakoitzean? Zer lotura dute? Zerk eragiten du LGTBI+fobia? Nola gurutzatzen da bestelako zapalkuntzekin? Gezurrak, zurrumurruak eta informazio okerra alde batera utzita, halako elkarrizketen bidez identifikatu ditzakegu estereotipoen oinarriak eta elkarguneak.
- ▶ Kulturala eta materiala. Pertsonen, herrien eta herrialdeen arteko aldeak eta gatazkak logika kultural batetik aztertzen saiatu arren, hertsiki lotuta daude sistemaren oinarri materialekin. Arrazismoak, matxismoak eta LGTBI+ fobiak eta haien arau, instituzio eta indarkeriek herrientzat eta, orokorrean, bizitzarentzat erabat bidegabea eta suntsitzailea den sistema sostengatzen dute. Behar-beharrezkoa da lotura horiek mahaigainean jartzea.
- ▶ Gorpuztasuna. Sistemak zapal dutako eta diskriminatutako pertsonak, bai LGTBI+ kolektibokoek, bai pertsona arrazializatuak, zuzenean bizi dute sistemaren krudelkeria; era berean, haien izateak eta gorpuztasunak gizartea

deseroso sentiarazten du. Izan ere, ez datoz arauarekin bat eta agerian uzten ditu garapenaren, modernitatearen, bertako identitatearen homogeneotasun eta purutasunaren mitoaren, berdintasun-diskurtsoen eta abarren eredugarritasunaren kontraesanak eta ebatzi gabeko alderdiak.

- ▶ Negoziazioa. Aurreko osagaiekin gurea berrikusteko prest egoteaz ari da eta, identitateei atxiki edo haiek baztertzeaz haratago, alderdi guztiak identifikatuta eta barne direla sentiarazten dituen espazio berri bat sortzeaz, arauarekin bat etortzearen plantak egin beharrik gabe; betiko arraro, atzerritar edo bestelako izan gabe edo behar bezain emakume, bertako edo gizon ez izatearen ideia hori alde batera utzita. Bestela esanda, eskubideak, errespetua eta aukerak eta bakardade eta diskriminaziorik gabeko etorkizun bat edukitzeko merezimendua mugatzen duen hori guztia berrikusteko prest egoteaz.

Komunitateari dagokiona performatiboa den bitartean, gua dinamikoa da. Gu hori eraikitzean aniztasuna barne hartzen badugu, desberdintasunak barne hartzeaz eta normaltzeaz haratago joango gara. Gizartea aberastuko genuke eta modu berriak eskainiko lizkiguke familiak, afektibitatea, amatasuna eta aitatasuna, gorputzak, estetika eta genero-aniztasuna, espiritualitatea, elkarrekikotasuna eta harrera ulertzeko eta bizitzeko; aliantzak eta borrokak beste era batera iraunarazteko, imajinatzeo eta eraikitzeo; gatazkak eta indarkeriazko erreakzioak kudeatzeko. Elkarren ondoan bizitzetik elkarrekin bizitzera aldatzean datza eta, horretarako, periferietatik datozkigun bizimodu guztiak barne hartzean.

3. HIRUGARRENIK

Ikusi dugu migratzen duten pertsonen ahal den heinean, askatasunez- aukeratzen dutela helburuko herrialdea eta zapalkuntza-maila baxuko gizarteak aukeratzen dituzte, alde dauden balioetan oinarritzen direnak, aukerak eskaintzen dituztenak...

Testuinguru horretan, parte-hartzaile askok adierazi du sexu- eta genero-aniztasuna dela integrazio-prozesuan normalizatu beharreko alderdietako bat. Hortik abiatuta, eta jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen artean horren aldeko joera bat egon daitekeela jakinda, hainbat ñabardura identifikatu ditugu jatorri latinoamerikarreko pertsona zisheterosexualek aniztasun afektiboaren eta sexu-aniztasunaren inguruan dituzten iritzietan:

- ▶ Bat ez datorrena eta alde ez dagoena.
- ▶ Onartzen duena, baina etxean nahi ez eta haurren hezkuntzan sartzen ez duena.
- ▶ Gaiak garrantzirik ez duela uste duena eta, besterik gabe, ingurukoei bizitzen uzten diena, lehentasuna ematen dielako kontu material eta administratibo larriagoei eta arrazializazioagatik jasandako diskriminazio instituzional eta sinbolikoari lotutako bizipenei.
- ▶ Erabat onartzen duena eta hobeto ulertu nahi duena.
- ▶ Berarentzat eta seme-alabentzat aniztasuna onartzen eta/edo defendatzen

duen gizarte-eredu bat eraiki nahi duena.

- ▶ LGTBI+ pertsonak jasaten duten diskriminazioarekin enpatia sentitu dezakeena.
- ▶ Gizartean eta LGTBI+ kolektiboan dagoen arrazismoa eta klasismoa zalantzan jartzen duena. nes que las personas LGTBI+ pueden sufrir.
- ▶ Quien cuestiona el racismo y clasismo en la sociedad y dentro del colectivo LGTBI+.

Jarrera sorta zabal honi begiratuta, kontuan hartu behar dugu desiragarritasun sozialaren alderdia, baita migrazio-doluetan giltzarri diren bi elementu ere: jatorrizko herrialdearen eta helburuko edo harrera-herrialdearen artekoa anibalentzia eta belaunaldiartekotasuna.

- ▶ Orokorrean, pertsona gehienek onargarritzat, ontzat eta normaltzat jotzen denaren arabera itxura, jarrera eta pentsaera izaten saiatzen dira. Halaber, lege- edo administrazio-arazoak sor ditzaketen goerak ekidin ohi dituzte.
- ▶ Era berean, migrazio-prozesua egiten duten edo arbaso atzerritarak dituzten pertsonak nahastuta senti daitezke haien jatorrizko kulturaren eta bizi diren lekukoaren artean aukeratu behar dutela pentsatzen badute. Haien identitatea galtzeko edo atenzioa emango dutelako beldurra senti dezakete eta horrek bizi diren gizartearekiko haserrea edo arbuioa sentitzera eta haien jatorrizko kulturako hainbat alderdi indartzera eraman ditzake. Edo azken hori guztiz ukatzera.
- ▶ Migrazio-prozesua egin eta berriro elkartzen den belaunaldiak eta harrerako herrialdean jaiotzen direnek iritzi desberdina izan dezakete aurrez aipaturikoarekiko.

Identitateen, kide izatearen eta leialtasunen berrikuspen mingarri bat gertatzen ari da mundu mailan eta sexu- eta genero-

aniztasunak garrantzia handia du horretan, gaiak gutxiespena eta errudunak sortzen dituelako, baita kideetasunak edo fideltasunak ere. Ideologia politikoetatik eta jatorrietatik haratago doa; izan ere, kontraesan nabarmenak sortzen ditu ezker-mugimenduan eta bertako gizonengan.

Hainbat parte-hartzailek aipatu bezala, sexu- eta genero-aniztasuna onartzea eta lasaitasunez bizitzeak ikuspegia zabaltzea dakar eta ez du zertan moda bat izan eta/edo merkatuak eta iragarkiek askatasunaren sinbolo nagusi edo bakartzat daukaten zerbait. Ez ditu zertan tradizioa, familia eta balioak hautsi, ez baita bizioaren eta kaltegarria edo immorala denaren adierazgarri; ez da aukeratzeko, ezta kutsatzeko ere, nahiz eta zenbait elizek eta kanpaina politikok aho batez hala erabili.

4. LAUGARRENIK

Ikusi nahi izan dugu zer nolako lotura duen LGTBI+ fobiak eskuin-muturrarekin, erlijioaren inguruko ikusmolde batzuekin eta berdintasunaren eta ekitatearen arloetako aurrerapausoekiko erreakzio zuri eta maskulinoarekin. Parte-hartzaileek aho batez adierazi dute gizon zuri, heterosexualak -gazte zein helduak- direla eraso gehienen arduradun

(txantxak, irainak, errietak, ez ikusi egitea, bazterketak, eraso fisikoak...).

Eskuin-muturrak diskurtso LGTBI+fobikoen eta arrazisten gorakadan paper garrantzitsua jokatzeko duela aipatu dugun arren, behin baino gehiagotan errepikatu dute parte-hartzaileek bertako gizonak -askotariko ideologia politikotakoak- direla sexu-orientazioa eta sexu- eta genero-identitatea askatasunez eta modu irekian adierazteko aukera oztopatzen dutenak. Badirudi berdintasunerako eta gizarte anitzago bat eraikitze bidean ematen ari diren aurrerapausoek eta migrazio-prozesuek sistema patriarkal hegemonikoan bidegabeki pribilegioak dauzkatenak interpelatzen dituela eta, ondorioz, pribilegiadun horiek mehatxu gisa ikusten dituzte aurrerapausoak eta horien kontra egiten dute.

Ildo beretik, parte hartu duten bi biztanle-taldeek nabarmendu dute gertuko kolektiboen -jatorri latinoamerikarreko LGTBI+ pertsonen eta pertsona zisheteronormatiboen kasuan, haien herrikideen, eta bertako LGTBI+ pertsonen kasuan, diskurtso trans-baztertzaila duen LGTBI+ kolektiboaren zati baten-aldetik gutxiespena eta diskriminazioa. Horrek argi uzten du ardi beltzaren fenomeno hori egiaz gertatzen dela. Fenomeno horren arabera, komunitatez hartzen den gizatalde batek zuzendu egiten ditu komunitate horretako kide direnen desbideratze eta jarrera zigorgarriak. Gainerako komunitateei dagokienez, ordea, ez du inolako zilegitasun, ardura edo interesik adierazten.

Halaber, ikusi dugu familia- eta erlijio-tradizioek nabarmenki eragiten dutela Latinoamerikako gizartearen balioetan. Tradizio horiekiko lotura handia dute hango gizarteetan, baina, askotan, presio handia egiten dutela sentitzen dute parte-hartzaileek. Familiaren eta erlijioaren inguruko hainbat

ikuskerak mintzagai dugun gaiaren kontrakoak dira guztiz eta askotariko sexu-orientazioen eta sexu- eta genero-identitateen kontrako pertzepzioen eta jarreraren iturburu dira. Nahiz eta hori Gipuzkoan horren nabarmena ez izan, katolizismoa eta familiaren inguruko ikuspegi heteropatriarkal, monogamo eta nuklearra sakon errotuta daude kulturen eta gizartearen egituraketan.

Orokorrean, ondoriozta dezakegu Latinoamerikako familia zabalek, Gipuzkoak hainbat elizek eta gizonen sozializazio-guneek presio sozial handiagoa egiten dutela sexu-genero sistema hegemonikoaren eraikuntza zalantzan jartzearen aurrean. Horrela, kontrola galtzearen eta besteen iritzien beldur direla adierazten dute; izan ere, ezarritako ordena zapaltzaileak eta rol eta botere-harreman bidegabek irauan dezaten interesatzen zaie.

Laburbilduz, azterketan jasotako askotariko ahots, bizipen eta ikuspegietatik abiatuta, esan beharra daukagu ezin direla modu homogeenan bildu jatorri latinoamerikarreko pertsonen LGTBI+ kolektiboaren inguruan dituzten pertzepzioak, hainbat faktoreen arabera alda baitaitezke. Halaber, eskubideei, sexu-orientazioei, sexu- eta genero-identitateei eta erasoei dagokienez, jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen ikuspegia ez da gehiegi aldentzen bertako LGTBI+ pertsonen euren bizipenei eta inguruneen buruz dutenetik.

Modu osagarrian, uste dugu Gipuzkoan sexu eta genero aniztasunarekiko diskriminaziorik gabeko elkarbizitza bat eraikitze funtsezkoa dela kulturarteko topaguneak kulturartekotasunaren, transfeminismoaren eta interseksionalitatearen inguruan ardatzea, non bertakoa eta nazioartekoa kontuan hartzen diren, subjektu bakoitzari aitortza ematen zaion eta epistemologiaren, bizi-esperientzien, kulturen eta zapalkuntza-ardatzen loturaren balioa azpimarratzen den.

Gomendioak

Helburuan adierazi bezala, Gipuzkoako gizartearen uneko testuingururako garrantzitsuak izan daitezkeen gomendio batzuk atera ditugu elkarrizketetatik eta jasotako lekukotzetatik. Gomendiook hainbat eragilerekin elkarlanean aritzeari lotuta daude.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOARENTZAT

- ▶ Dagozkien eskumenei jarraikiz, sexu-orientazioaren eta sexu- eta genero-aniztasunaren arloan onartutako legeditik abiatuta araudi eta prozedurak garatzea eta administrazio publikoko langileak sentsibilizatzea eta trebatzea. Halaber, prozedura horietan pertsona atzerritarren behar eta errealitate espezifikoak bermatzea.
- ▶ Dagozkien eskumenei jarraikiz, harreraredua hobetzea, adibidez, heldu berri diren pertsoneri gune atsegin eta hurbilekoak eskainiz, iritsi berriek informazioa jaso ahal izan dezaten eta, besteak beste, honako esparru hauetan laguntza jaso dezaten: errolda, laguntzak, enplegua, etxebizitza, laguntza eta informazioa, ikasketen homologazioa, aisialdi-guneak eta laguntza psikosoziala.
- ▶ Lanaren antolaketa berrikustea, bereziki arreta jarriz generoaren, jatorriaren eta egoera administratiboaren araberako banaketarekin amaitzean.
- ▶ Sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako ikuspegiak, erresistentziak, motibazioak eta bizipenak ezagutzeko eta ulertzeko eta, hortik abiatuta, enpatia areagotzeko eta partekatzen ditugun praktikak identifikatzeko (kutsaduraren ideiarekin amaitzea, LGTBI+ adingabeak dituzten familiei laguntzeko bitartekoak eskaintzea...) honako neurri hauek hartzea:

- ▷ Konfesioarteko topaketak sustatzea eta LGBTI+ erakundeekin biltzea.
- ▷ Jatorri latinoamerikarreko pertsonekin eta ausaz aukeratutako biztanle latinoamerikarrekin ikerketak egitea, parte-hartzaileen zehihartasuna ekiditeko eta prozedura eraginkorragoak diseinatu ahal izateko.
- ▶ Genero-identitateari dagokionez, agiri ofizialetan hirugarren aukera bat txertatu ahal izateko formulak ikertzea.
- ▶ Dibulgaziozko materiala sortzea, migrazioaren datu kuantitatiboei eta Gipuzkoako gizarteak sexu- eta genero-aniztasunaren, diskriminazioaren eta erasoen inguruan dituen pertzepzioei buruz erregularitasunez egiten diren txostenetan oinarrituta.
- ▶ Elkarrizketa eta esperientzia praktikoen eraikuntza kolektiboa sustatzen duten kulturarteko espazio transfeministak sortzea (elkarrekin mapak sortzea, ekintzailtza, praktika artistikoak, nerabeentzako eta adinekoentzako sexualitatearen inguruko informazioa eta laguntza...)

LGTBI+ PERTSONEN KOLEKTIBO ETA ERAKUNDEENTZAT

- ▶ Gizarte klasista, arrazista eta matxista honetan bakoitzak dituen pribilegioen inguruan banaka eta taldean kontzientzia hartzeko hausnarketa- eta ikasketaguneak sortzea.
- ▶ Uneko testuinguruaren irakurketa politikoa sustatzea, bai kolektiboaren barruan, baita kanpora begira ere (sareetan, ekintzetan...), ondorengo fenomeno hauen bidez zapalkuntza-ardatzak, haien arteko loturak eta horiek egunerokotasunean gauzatzen diren modua azaleratzeko: atzerritarrei buruzko legea, zaintzaren feminizazioa eta prekarizazioa, hirien eta zerbitzuen pribatizazioa, eraso matxista, arrazista eta LGBTI+fobikoak, disidentzien kriminalizazioa, aniztasunaren merkantilizazioa, eskubideak pribilegio bihurtzea, etab.
- ▶ Intersexualitateari eta ez bitartasunari buruzko dibulgaziozko materiala eta hezkuntza-materiala sortzea.
- ▶ Jatorri latinoamerikarreko pertsonen kolektibo eta erakundeetara gerturatzea: erresistentziako bizipenak partekatzea eta haietatik ikastea; sexilio kasuak identifikatzea, trukatzeko eta halakoei laguntza ematea; elkarlan- eta elkartasunguneak identifikatu eta horietatik abiatuta aliantzak sortzea.

JATORRI LATINOAMERIKARREKO PERTSONEN KOLEKTIBO ETA ERAKUNDEENTZAT

- ▶ Sexilio-kasuak badaudela kontuan hartuta, egoera horretan dauden pertsonen informazioa eskaintzea sexu-orientazioagatiko edo sexu- eta genero-identitateagatiko asilo politikoari edo babesari eta bertako LGBTI+ pertsonen erakundeei eta laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuei buruz.
- ▶ Elkarrizketan oinarrituta, sexu-orientazioari eta sexu- eta genero-identitateei lotutako bizipenei eta beldurrei, gatazka posibleetarako laguntzari eta trantsizio-kasuei buruz kolektiboan ikasteko abagunea eskaintzen duten belaunaldiarteko espazioak sortzea.
- ▶ Uneko testuinguruaren irakurketa politikoa sustatzea, bai kolektiboaren barruan, baita kanpora begira ere (saretan, ekintzetan...), ondorengo fenomeno hauen bidez zapalkuntza-ardatzak, haien arteko loturak eta horiek egunerokotasunean gauzatzen diren modua azaleratuko dituen: atzerritarrei buruzko legea, zaintzaren feminizazioa eta prekarizazioa, hirien eta zerbitzuen pribatizazioa, eraso matxista, arrazista eta LGBTI+fobikoak, disidentzien kriminalizazioa, aniztasunaren merkantilizazioa, eskubideak pribilegio bihurtzea, etab.

KOLEKTIBO ETA ERAKUNDE FEMINISTENTZAT

- ▶ Feminismo anitz bat eraikitzea, errealitateak aztertzerakoan eta estrategiak aplikatzerakoan bertako zein mundu mailako ikuspegia lotzen dituen eta hegoalde globalak zuzenduta bere moralaren eta elkartasunaren, puritanismoaren eta punitibismo sexualaren eta identitarioa denaren inguruan kritikoki hausnartzeko prest dagoena.
- ▶ Maskulinitate hegemonikoaren eta eraso matxista, arrazista eta LGBTI+fobikoen inguruko eztabaida mahaigaineratzea, erasookin amaitzeko aliantzak eta estrategia kolektibo eraldatzaile eta eraginkorrek sortzeko.

HEZKUNTZA FORMALAREN ETA INFORMALAREN ARLOETARAKO

- ▶ Hezkuntza-taldeak trebatzea, sexu- eta genero-aniztasuna autoezagutzatik eta zisheteroarauaren eta kolonialitatearen inguruko kontzientzia kritikotik lantzeko.
- ▶ Sexu-heziketa integralari hezkidetzak ikuspegi interseksionala ematea, honako hauek egiteko:
 - ▷ Heteroaraua zalantzan jartzerakoan arrazismoa eta kapitalismoa/klasismoa kontuan hartzeko.
 - ▷ Askotariko familia-, afektibitate- eta komunitate-ereduak ezagutzeko, errespetatzeko eta irudikatzen.
 - ▷ Terminoen eta aukeren katalogo batetik haratago, autoezagutza sustatzeko.
 - ▷ Maskulinitatearen eraikuntza hegemonikoa eta horrek hezkuntza-eremuetan haur eta gazteengan sortzen dituen jarrera matxista eta arrazistak berrikusteko.
- ▶ Hezkuntza-komunitatearentzat elkarguneak eta abaguneak sortzea:
 - ▷ Kodeak (etnikoak, landa-eremu eta hirikoak, erlijioa, adina...) eta sexu- eta genero-aniztasuna normalizatzeko oztopoak eta arrazoiak ulertzeko. Horri esker, empatia sustatzeko eta komunitate osoak egin ditzakeen formula praktikoak identifikatzeko (komunei eta aldagelei, hizkuntzari, txangoei, ospakizunei, hezkuntza-materialei, espazioen banaketari eta abarri buruz).
- ▷ Sexu-orientazioarekin eta sexu- eta genero-aniztasunarekin lotutako askotariko bizipen eta errealitateak partekatzen eta ulertzeko, bai ikasleen eta gurasoen eta/edo tutoreen artean, bai atzeritarren eta bertakoen bizikidetzak-espazioetan, kultura bakoitzari lotutako estereotipoen araberako egituraketarik gabe.
- ▶ Ikasleei eta familiei LGTBI+ pertsonen laguntzeko zerbitzuei eta baliabideei buruzko informazio egokia ematea.

Bibliografia

AZTERKETAN ERABILITAKO DOKUMENTAZIOA

Amerikarteko Giza Eskubideen Batzordea (2018). *Avances y desafíos hacia el reconocimiento de los derechos de las personas LGTBI en las Américas*. <https://www.refworld.org/es/docid/5ced82004.html>

Babiker, S. (15 junio 2022). Regularización Ya considera utilitarista la reforma de Escrivá y denuncia el ninguneo a la ILP. *El Salto*. <https://www.elsaltodiario.com/migracion/reforma-utilitarista-no-escucha-personas-migrantes-descontento-propuesta-regularizacion-escriva>

Euforia Familias Trans-Aliadas (2019-2020). *Legislación estatal*. <https://euforia.org.es/informacion/legislacion/legislacion-estatal/>

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Eraberean (2020). *Informe 2020 de actividad de la Red Eraberean*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_materiales/es_observat/adjuntos/eraberean2020_es.pdf

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila eta Berdinu zerbitzua (2022). *Memoria Anual 2021 Enero-Diciembre*. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdinu_materiales/es_def/Memoria-2021-esp-.pdf

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila eta EHU/UPVren Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra (2022). *Informe de incidentes de odio en Euskadi 2021*. https://bideoak2.euskadi.eus/2022/04/11/news_76483/INFORME_DE_INCIDENTES_DE_ODIO_DE_EUSKADI_2021.pdf

Eusko Jaurlaritza Emakunde (2020). *Cifras 2020. Mujeres y Hombres en Euskadi*. https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/es_emakunde/adjuntos/cifras_2020.pdf

García Dafonte, Zaira eta Expósito Alberdi, Jone (2018). *Convivencia en la diversidad. Diagnóstico de las realidades de la población LGTBI+ en Gipuzkoa 2018*. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gehitu Elkarte. <https://drive.google.com/file/d/1ICSznJVIFNhd5EA1ytTsYz7OXGvqsDph/view>

Ikuspegi (2021). *Barómetro 2021. Percepciones y actitudes hacia la población de origen extranjero*. https://www.ikuspegi.eus/documentos/barometros/2021/bar2021_cas.pdf

Ikuspegi (2022). *Neurtu 2021. Barómetro sobre la diversidad en la CAE: percepciones y actitudes hacia la diversidad sexual y de género*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/2021/neurtu2021cas.pdf>

Ikuspegi (2022). *Panorámica 84. Mayo 2022. Población de origen extranjero en la CAE 2022*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/pan84cas.pdf>

Platero Méndez, Raquel (Lucas) (2014). *Trans*exualidades. Acompañamiento, factores de salud y recursos educativos*. Edicions bellaterra.

Red Acogida (2022). *Informe de actividad 2021*. <https://redacoge.org/wp-content/uploads/2022/06/Informe-de-actividad-2021-Red-Acoge.pdf>

DOKUMENTAZIO OSAGARRIA

Aierdi Urraza, Xabier eta Oleaga Páramo, Jose Antonio. (2013). Percepciones, discursos y opinión pública en Zapata-Barrero, Ricard y Pinyol Jiménez, Gemma (Eds.), *Manual para el diseño de políticas interculturales* (1, 85-94). GRITIM-UPF Policy Series.

Azpiazu Carballo, Jokin (2017). *Masculinidades y feminismos*. Virus.

Butler, Judith (2017). *El género en disputa: el feminismo y la subversión de la identidad*. Paidós.

Coll-Planas, Gerard (2010). *La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans*. Egales.

Coll-Planas, Gerard; Solà-Morales, Roser y Missé, Miquel (2019). *Guía para la incorporación de la interseccionalidad en las políticas de diversidad sexual y de género*. Metrópolis.

Curiel Pichardo, Ochy (2015). Construyendo metodologías feministas desde el feminismo decolonial en Mendia Azkue, Irantzu, Luxán, Marta, Legarreta, Matxalen, Guzmán, Gloria, Zirion, Iker y Azpiazu Carballo, Jokin (ed.), *Otras formas de (re)conocer*:

reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista (2, 45-60). Hegoa Institutua eta SIMRF.

DiAngelo, Robin (2018). *White fragility: Why it's so hard for white people to talk about racism*. Beacon Press.

Europako Kontseilua (2017). *Nuevo paradigma CIUDADES INTERCULTURALES. Conectando las agendas de igualdad, diversidad e inclusión* [PDF fitxategia]. [www.coe.int/interculturalcities](http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2019/07/2017-New-paradigm-paper_en-sp.pdf) http://www.ciudadesinterculturales.com/wp-content/uploads/2019/07/2017-New-paradigm-paper_en-sp.pdf

Giménez Romero, Carlos (2020). Por un Nosotros Plural. Apuntes sobre pluralismo y unidad en la diversidad. *Revista Tiempo de Paz*, 139, 82-97.

Guasch, Óscar (2000). *La crisis de la heterosexualidad*. Laertes.

Guasch, Óscar & Viñuales, Olga (eds.) (2003). *Sexualidades: Diversidad y control social*. Bellaterra.

Guimaraes Correa, Laura (2020). Intersectionality: A challenge for cultural studies in the 2020s. *International Journal of Cultural Studies*, 23(6), 823-832.

Palacios Valencia, Yennesit (2016). Perspectiva de género en los fenómenos migratorios: estudio desde Europa y América Latina. *Rev. CES Derecho*, 7(2), 145-162.

Peña Díaz, Francisco de Asís (2018). *La lucha que no cesa: Los derechos del colectivo LGTBI como derechos humanos*. Tirant Lo Blanch.

Planella, Jordi y Pié Balaguer, Asun (2015). *Políticas, prácticas y pedagogías trans*. Editorial UOC.

Platero Méndez, R. (Lucas) (ed.) (2012). *Intersecciones: Cuerpos y Sexualidades en la Encrucijada*. Bellaterra.

De Sousa Santos, Boaventura (2018). *The end of the cognitive empire. The coming of age of epistemologies of the south*. Duke University Press.



1. ERANSKINA

Parte hartu duten erakunde eta pertsonen egindako elkarrizketa erdiirekien gidoiak

DATU OROKORRAK:

- Adina
- Non jaio zinen? / Non jaio ziren gurasoak?
- Ikasketarik duzu? (edo zer nolako formakuntzatan hartu duzu parte?)
- Zertan egiten duzu lan?
- Zein sinesmen/erlijiotakoa zara?
- Zein dira zure genero-identitatea eta sexu-orientazioa?
- Mugimendu edo erakunderen bateko kide zara? Zer motatakoa?

EZAGUTZA OROKORRA

- Ezagutzen duzu LGTBI+ siglen esanahia?
- Badakazu LGTBI+ pertsonarik inguruan?
- Badakizu heteroaraua zer den?
- Uste duzu egunerokoan eragiten dizula? Nola?
- Zure gertuko sarea pertsona arrazializatuz osatuta dago? Edo bertakoz? Mistoa da?
- Badakizu kolonialitatea zer den?
- Uste duzu egunerokoan eragiten dizula? Nola?

ESKUBIDEAK

- Badakizu LGTBI+ pertsonen eskubide espezifikorik duten/duzuen espainiar Estatuan eta EAEn?
- Zein eskubide eduki beharko lituzketela uste duzu?
- Zein esparru eta egoeratan uste duzu eduki ditzaketela euren eskubideak erabiltzeko zailtasunak?
 - Uste duzu lesbianen, gayen, transen eta bisexualen errealitateak desberdinak direla?
 - Uste duzu pertsona migrante eta/edo arrazializatuen errealitatea desberdina dela?
 - Uste duzu adineko pertsonen eta gazteen errealitatea desberdina dela?
- Badakizu migratzeko eta/edo asiloa eskatzeko arrazoietako bat den ala ez?

*LGTBI+ pertsonen honako galdera zehatzago hauek ere egin dizkiegu:

- Erkidego mailan, ezagutzen duzu transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko legea? Zer iritzi duzu?
- Estatu mailan, ezagutzen duzu trans pertsonen benetako berdintasun eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legearen («trans lege» deritzonaren) aurreproiektua? Zer iritzi duzu?

ADIERAZPENA/ONARPENA

- Nola uste duzu ematen zaiola ikusgaitasuna LGTBI+ kolektiboari abestietan, filmetan, telesailetan, komunikabideetan, iragarkietan...?
- Gaiaz geroz eta gehiago hitz egiten da. Nola bizi duzu aldaketa hori?
- Zure inguruko LGTBI+ pertsonen identitatea, orientazioa eta afektibitatea askatasunez eta modu irekian adieraz dezakezuela/dezaketela uste duzu?
- Hala egiten baduzue/badute, zer sentimendu, emozio eta erreakzio sortzen ditu?
- Uste duzu LGTBI+ pertsonekin harremantzerakoan honako ezaugarri hauek eragiten dutela?
 - gizona edo emakumea izateak
 - transgeneroa, transexuala edo ez bitarra izateak
 - arrazializatua izateak
 - identitateari eta orientazioari dagokienez irekiagoa edo itxiagoa izateak
 - diru-sarreraren altuagoak edo baxuagoak izateak
- Seme-alabak edo gertuko adingaberen batek genero-identitateari eta/edo sexu-orientazioari buruzko zalantzak dituela edo bere burua LGTBI+ gisa identifikatzen duela adieraziko balizu, zer esango zenioke? Nola sentiaraziko zintuzke?

ERASOAK

- Entzun edo bizi izan duzu edo ezagutzen duzu Gipuzkoan LGTBI+ pertsonen kontrako erasorik edo gorroto-deliturik?
- Zein uste duzu dela eraso mota ohikoena? Zein egoera eta testuingurutan gertatzen direla uste duzu?
- Zein uste duzu dela erasotzaileen profila?
- Eta biktimena?
- Zure ustez, zerk eramaten du jendea eraso egitera?



2. ERANSKINA

Grafikoetako datuen taulak

► **TAULA (1):** parte-hartzaileen profila, adinaren arabera.

	JATORRI LATINOAME- RIKARREKOAK	BERTAKOAK	GUZTIRA
16 - 22	7	1	8
23 - 30	4	3	7
31 - 45	14	8	22
45 - 60	3	0	3
61 baino gehiago	1	2	3
	29	14	43

► **TAULA (2):** parte-hartzaileen profila, ikasketa-mailaren arabera.

	JATORRI LATINOAMERI- KARREKOAK	BERTAKOAK	GUZTIRA
Derrigorrezko oinarrizko ikasketak	5	1	6
Unibertsitate ikasketak	14	12	26
Lanbide heziketa	10	1	11
	29	14	43

► **TAULA (3):** parte-hartzaileen profila, enpleguaren arabera.

	JATORRI LATINOAME- RIKARREKOAK	BERTAKOAK	GUZTIRA
Zaintza (garbiketa, etxea, adinekoak)	11	0	11
Zerbitzuak (merkataritza, aisia, ostalaritza, osasuna, segurtasuna...)	8	3	11
Hezkuntza (irakaskuntza, ikerketa...)	2	5	7
Elkartegintza/hirugarren sektorea	2	1	3
Industria	1	3	4
Ikaslea (ez du lanik egiten)	2	0	2
Pentsioduna	0	2	2
Langabetua	1	0	1
Biziraun egiten dut, buru-belarri lanean...	2	0	2
	29	14	43

- **TAULA (4):** parte-hartzaileen profila, erakundeetan duten parte-hartzearen arabera.

	JATORRI LATINOAMERIKARREKOAK	BERTAKOAK	GUZTIRA
Bai	12	13	25
Ez	17	1	18
	29	14	43

- **TAULA (5):** jatorri latinoamerikarreko parte-hartzaileen profila, Gipuzkoan daramaten urte kopuruaren arabera..

EAEN BIZI IZANDAKO URTE KOPURUA	PERTSONA KOPURUA
0 - 5 urte	15
6 - 12 urte	6
12 urte baino gehiago	4
Aldizka (guztira 10 urte baino gehiagoz egon eta gaur egun Gipuzkoan bizi direnak)	4
	29

- **TAULA (6):** parte-hartzaileen profila, Gipuzkoara heldutakoan zuten adinaren arabera

ADINA	PERTSONA KOPURUA
0 - 5	1
10 - 15	6
16 - 25	8
26 - 35	9
36 - 59	4
60	1
	29

► **TAULA (7):** parte-hartzaileen profila, jatorrizko herrialdearen arabera.

JATORRIZKO HERRIALDEA	PERTSONA KOPURUA
Argentina	1
Bolivia	2
KoloNbia	4
Ekudor	2
El Salvador	1
Honduras	5
Mexiko	1
Nikaragua	4
Dominikar Errepublika	1
Peru	3
Venezuela	5

► **TAULA (8):** parte-hartzaileen profila, bizilekuaren arabera.

	JATORRI LATINOAMERIKARREKOAK	BERTAKOAK	GUZTIRA
Andoain	1	0	1
Aretxabaleta	1	0	1
Donostia	15	3	17
Hernani	9	4	13
Oiartzun	0	1	1
Orio	0	5	5
Renteria	0	1	1
Zarautz	3	0	3
	29	14	43

► **TAULA (9):** erlijio kristauan/katolikoan sinesten duten parte-hartzaileen profila.

	JATORRI LATINOAMERIKARREKOAK	BERTAKOAK	GUZTIRA
LGTBI+ pertsonak	1 (16,6%)	2 (16,6%)	3
Pertsona zisheteronormatiboak	17 (58,6%)	0	17